

Zu hemen zaude. goiena



OIHANA ALDAIRI
ETA SOKOA AZKARATERI
ELKARRIZKETA

ETXEAN ERAKUTSI DU TXAPELDUNEN SARIA OIHANA ALDAIK

Erreginaren Kopa zaleen artean partekatu du Realak / 54

Argazki nagusian, Oihana Aldai aretxabaletarra Arrasateko balkoian; txikian, Sokoia Azkaraterekin. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA XABIER URZELAI

**EH Bilduren eta
EAJren arteko lehia
estua aurreikusi dute
maiatzaren 26rako
Debagoiensean** / 2

**Artzainen Eguna
ospatuko dute
zapatuan Antzuolan,
San Isidro feriarekin
bat eginda** / 6



**UDAL HAUTESKUNDEEN
GAINEKO GEHIGARRIA** / 21

**Arantzazuko
artxiboetan
mendeetan gordeta
izan duten bilduma
eskuragarri dago** / 56

SINADURAK

	OIHAN VITORIA / 8		ANDRES OSA 'SAKONA' / 47
	XABIER IGARTUA / 52		AINZANE OIARBIDE / 64
	ANE ZUZUBISKAR / 13		



Europako eredu ekonomikoa, zalanztan
Maite Higuero sexologoari elkarrizketa

SKODA KODIAQ



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70





Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan boto zenbaketa Bergaran. IMANOL SORIANO

EH Bilduren eta EAJren arteko "lehia estua" izango da Debagoienez

Hauteskunde orokorretatik hilabetera egingo dituzte udal eta foru hauteskundeak; adituen esanetan, "inkognita" izango da zenbaterainoko eragina izango duen horrek emaitzetan; gauza bat argi dute: EAJren eta EH Bilduren arteko lehia estua izango da

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2015eko udal hauteskundeek lau alkatetza utzi zizkioten EH Bilduri Debagoienez, eta beste lau EAJri –Leintz Gatzagan, hango hautesle elkartearentzat izan zen alkatetza–, eta, geroztik egin dituzten lau hauteskundeetan izandako boto bilakaera aintzat hartuta, bi alderdion arteko lehia estua egongo da udal hauteskunde hauetan ere.

"EAJren eta EH Bilduren arteko pultsua interesgarri dago. Biek egin dute gora azken hauteskundeetan, biak sendo daude. Azken urteetako boto bilakaera ikusita, ez dago alde handirik bien artean, eta azken momentura arte ez dugu nabariturik zein gailenduko den. Alde horretatik, emozio handiko gaua izango da maiatzaren 26koa. Alkatetza batzuk boto gutxiren aldearekin lortuko dituztela iruditzen zait", adierazi du Mikel Irizar analistak.

Iñaki Galdos analistak ere bat egiten du horrekin. "Bien arteko lehia izango da Gipuzkoan eta baita gure bailaran ere. Orain dela lau urte porrot handia jasan zuten EH Bilduk, eta pentsatzen

ez zuten alkatetza batzuk galdu zituen. Orain saiatuko da horiek berreskuratzen. 2015eko emaitzekiko hobekuntza bat edukiko du EH Bilduk, baina ez da iritsiko 2011n izan zituen emaitzak izatera. Diputaziorako, halere, EAJ ikusten dut faborito".

Olatu sozialistak iraugo du?

Apirilaren 28ko emaitzak oso onak izan ziren alderdi sozialistarentzat, eta Galdosek dio horrek mesede egingo diola orain PSE-EERI. "Udal hauteskundeetan orokorrekiko jaitsiera bat edukitzen dute sozialistek, baina oraingoan, agian, mesede egingo die bi hauteskundeak hain gertu egon izanak. Zenbait lekutan, etxean geratzeko asmoa zuen jende askok edo botoa beste alderdi bati emateko asmoa zuen jende askok alderdi sozialistari emango dio, olatuaren eraginez", dio.

Irizar ere iritzi berekoa da. "Espainiako indarretan, unio-nismoan, aurreko hauteskundeek eragina izango dutela argi dago, eta alderdi sozialistak emaitza onak izango dituela esateko ez da igarle izan behar".

ENGLISH SUMMER ACTIVITIES

mondragon
Lingua

Come & discover! Hop into summer!!

UDALEKU ITXIAK Santo Domingo de la Calzada

Uztailak 1-12 / 1-16 / 15-26

8-14 urte

Bertako eta atzerriko irakasleak



IKASTAROAK ATZERRIAN



UDALEKU IREKIAK Arrasate

Ekainaren 26tik uztailaren 26ra

3-12 urte

Escape room, international day, jokoak, kirolak...

Harrera eta jangela zerbitzua



**MATRIKULA ZABALIK
INFORMA ZAITEZ**



www.mondragonlingua.com

ARRASATE

Araba Etorbidea, 4 - Tel. - 943712055
mlarrasate@mondragonlingua.com



Botoa, klabe ezberdinetan

Bi analistek beste gauza batean ere bat egiten dute: botoa klabe ezberdinetan ematen dute herritarrek hauteskunde orokorrak izan edo tokian tokikoak. "Espainiako erreferentziak lausotu egiten dira, eta tokian tokikoak indartu. Tokiko hauteskundeetan pertsonak ezagunak dira, ez da irudia bakarrik. Pertsona baten ezagutza zuzenak elementu gehiago eskaintzen ditu aukeraketa bat egiterako orduan", azaldu du Irizarrek, eta Galdosek gaineratu: "Hauteskunde orokorretan hemengo alderdi bati botoa ematea ez da sartzen zenbait herritarren eskemetan, baina tokiko ordezkariak aukeratzeko orduan, eskema hori aldatu egiten dute".

Boto mugikorra "geroz eta nabariagoa" da, eta "jende askok botoa aldatzen du". Hori positiboa da, Irizarren ustez. "Udal hauteskundeetan, herri mailan egindako lanak sigletatik bereizi egin dezake boto-emalea. Geroz eta ahulagoa da siglekiko leialtasuna, botoa mugikorra da, eta hori heldutasun demokratikoaren zantzua da, ondo egin duenari saria ematea eta gaizki egin duena zigortzea". Horrek nola eragingo duen aurreikustea zaila dela diote.

Boto bilakaera, herriz herri

EH Bilduk nagusitasun handiarekin irabazi zituen 2015eko udal hauteskundeak Antzuolan, eta egonkor mantendu da azken lau hauteskundeetan, guztietan indar bozkatuena izanik -2015eko Espainiako hauteskundeak, 2016ko Espainiakoak, 2016ko Eusko Jaurlaritzakoak, 2019ko Espainiakoak-. EAJ bigarren indarra izan da bost hauteskunde horietan, eta PSE-EEK, oro har, goranzko joera izan du, Podemosek behera egin duen bitartean.

Aramaion ere gauza bera gertatu da. EH Bildu alderdi bozkatuena izan da azken bost hauteskundeetan, eta EAJ, bi-

garren indarra. Podemosek gorabehera handiak izan ditu boto kopuruan, baina beheranzko joera dauka, eta PSE-EEK oso boto-emale gutxi ditu, oro har.

Aretxabaletari dagokionez, EAJ nagusitu da azken bost hauteskundeetan. 2016an indartsu sartu zen Podemos, bigarren indarra izan zen Espainiako hauteskundeetan, baina geroztik indarra galtzen joan da. Gainera, zuzeneko hauteskundeetan EH Bildu izan da bigarren, eta, oro har, EAJrekiko aldea murriztu egin du koalizio abertzaleak.

Arrasaten ere antzeko zerbait gertatu da. Oro har, EAJ izan da indar bozkatuen azken bost hauteskundeetan, 2016ko Espainiakoetan izan ezik. Orduko hartan Podemos nagusitu zen. Nabarmen hazi dena PSE-EE izan da, batez ere azken hauteskundeetan. Bestalde, EAJren eta EH Bilduren arteko aldea murriztu joan da, oro har. Azkenik, kontuan hartu behar da Arrasate Aurrera! plataforma aurkeztuko dela, lehen aldiz, eta horrek ere eragina izango du emaitzetan.

Bergaran, EAJ ia 400 botoren aldearekin nagusitu zitzaion 2015eko udal hauteskundeetan EH Bilduri. Hala ere, orduetik egin diren lau hauteskundeetatik hirutan EH Bildu nagusitu da. Lehia estua espero da, beraz, eta boto gutxiren aldearekin erabakiko da alkatetza. PSE-EEK, oro har, goranzko joera izan du azken bost hauteskundeetan, eta Podemosek alderantzizkoa. Kontuan hartu behar da, gainera, Podemos lehenengo aldiz aurkeztuko dela Bergaran udal hauteskunde batzuetan, eta Irabazi eta Podemos bakoitza bere aldetik aurkeztuko direla hauteskunde hauetan -Aretxabaletan, Arrasaten eta Eskoriatzan batera aurkeztuko dira, Elkarrekin Podemos izenarekin-.

2015eko udal hauteskundeetatik egin diren guztietan EH Bildu izan da indar bozkatuena

Elgetan. Gu Geu Elgeta alderdia izan zen bigarren bozkatuena. Geroztik egin diren hauteskundeetan, EAJ izan da bigarren indarra, baina ez oso alde handiarekin. Podemosek indarra galdu du hor ere, eta azken hauteskundeetan 77 boto baino ez zituen eskuratu.

Eskoriatzan, EAJ nagusitu da azken bost hauteskundeetatik lautuan. 2016ko Espainiako hauteskundeetan Podemos izan zen bozkatuena, EAJrekiko alde txikiarekin bada ere. EH Bildu

izan da bigarren indarra beste hauteskunde guztietan, eta EAJrekiko aldea ez da handia izan. PSE-EEK ere goranzko joera izan du azken hauteskundeetan. Bestalde, Elizateen Elkarteak zinegotzi bat lortu zuen 2015ean eta aurten ere aurkeztu dute euren zerrenda.

Leintz Gatzagan, herriko hautesleena taldeak irabazi zituen 2015eko udal hauteskundeak, baina oraingo honetan ez dute hauteskunderik egingo han, ez baitute zerrendarik osatu.

2015eko udal hauteskundeetan erabat nagusi izan zen EH Bildu Oñatin. Hala ere, geroztik egin diren lauretan aldea ez da hain nabarmena izan, eta nahiko parean ibili dira bi alderdien boto kopuruak. PSE-EEK goranzko joera izan du, oro har.

Debagoiengan, EH Bildu izan da bozkatuena azken bost hauteskundeetan, eta bigarren indarra EAJ izan da, ez oso alde handiarekin. Podemos botoak galduz joan da geroztik, eta PSE-EE, berriz, irabazten.



Mondragon Unibertsitatea



Gure ikasleen ahotan



“Graduak gastronomiaren ikuspegi zabala ematen dizu”

Ion Torres Jimenez (32 urte, Arrasate) Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak graduko 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Gastronomía Zientzien Fakultatea - Basque Culinary Centerren.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia polita izan da, egia esan, asko ikasi dut gastronomiaren inguruan eta ikuspegi zabalagoa osatzen lagundu dit. Gainera, irakasleek pila bat dakite, eta beti daude laguntzeko prest. **Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Jarraitutako metodologia azterketa partzialetan, talde-lanetan eta praktiketan datza. Egia esan, metodologia aproposa iruditzen zait, gaur egun garrantzi handia dauka taldean lan egiten jakiteak. Gainera, praktiketan jarraitu dezakezu lantzen klasean landutako gaiak, eta zure gustuko alorretan sakontzen. **Praktikak egiteko aukerarik izan duzu?**

Aurten egingo ditut nire hirugarren praktikak, Taiwango jatetxe batean. Lehenengo urtean Madrilan egin nituen, Streetxo jatetxean, eta oso esperientzia ona izan zen. Eta bigarren urteko praktikak Grupo Bokadon egin nituen, catering batek nola funtzionatzen duen ikusi nahi nuelako.

Definitu zeure burua: baduzu zaletasunik?

Gauza berriak ikastea gustatzen zait, eta gastronomia mundua, jakina. Honetaz gain, oso gustuko ditut natura eta mendia. Nire beste pasioetako bat elektronikoa da eta, honen barruan, programazioa. Arazoei konponbidea aurkitzea betidanik izan dut oso gustuko.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía gradua? Eta zergatik Basque Culinary Center/Mondragon Unibertsitatea?

Egia esan, Basque Culinary

Center ezagutu nuen bere inaugurazio egunean, ekitaldi hartan zentroa erakutsi zidaten eta baita ikasketa plana ere. Orduantxe sartu zitzaidan nire barnean bertan ikasteko gogoia. Baina orduan, Ingeniaritza Elektronikoa ikasten nengilan Mondragon Unibertsitatean, eta oso gustura, egia esateko. Ingeniaritza bukatu bezain pronto Irlandara joan nintzen. Baina ez nuen burutik kentzen Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak gradua egiteko gogoia. Irlandatik bueltan, aukera bat eman nion neure buruari, eta gaur arte.

"ALKATETZA BATZUK BERRESKURATUKO DITU EH BILDUK"

"FORU ALDUNDIRAKO EAJ IKUSTEN DUT FAVORITO"

IÑAKI GALDOS

"INTERESGARRI DAGO EH BILDUREN ETA EAJ-REN PULTSUA"

"SIGLEKIKO LEIALTASUNA GEROZ ETA AHULAGOA DA"

MIKEL IRIZAR



Mankomunitatearen lanaz aritu da EH Bildu

Eskualdeko EH Bilduko hautagaiek agintaldi amaierako agerraldia egin zuten astelehenean Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan; bertan, erakundearen jardunaz eta bailarako egoera sozioekonomikoaz aritu ziren, besteak beste

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Debagoieneko EH Bilduko ordezkariak agintaldi amaierako agerraldia egin zuten astelehenean Debagoieneko Mankomunitatean, eta bertan, erakundearen jardunaz mintzatu ziren. Agerraldian, egungo hondakinen bilketa sistema, ingurumena eta bailarako egoera sozioekonomikoa eta horren garapena izan zituzten hizpide, besteak beste, politikariek.

Ingurumena hizpide

Ingurumenari dagokionez, alderdiko Mikel Biainek adierazi zuen 2015ean Mankomunitateko Gobernu Batzorde berria eratu zenean, edukiontzi bidezko sistemara aldatzearen ondorioz, "debagoiendar guztiondako kostu aurrezpen bat" iragarri zutela baina datuek erakutsi dutela "ez dela horrela izan": "Gainera arazo larri bat sortu da



EH Bilduko ordezkariak, Mankomunitatearen egoitzan. AMAIA TXINTXURRETA

gaika bildutako hondakinetan inpropioen altuagatik".

Ekonomiaren garapena

Ekonomiaren garapena kontuan hartuta, Biainek esan zuen Mankomunitatetik eta "eskual-

deko erreferente" den Arrasateko Udal Gobernutik ikusi duten jarrera "kanpora begirakoa" dela. Kanpoko inbertsioa erakartzeko "nahi handiak" ikusi dituztela argudiatu zuten, eta, aldiz, bertako kooperati-

beekin eta gainontzeko enpresek elkarlanerako "egitasmok eta lidergo falta" sumatu dutela.

Bestalde, bertaratuek argi utzi nahi izan zuten eskualde honetako ekonomia "modu orekatu eta sendoan" geratuko bada, "garapen endogeno bati esker" izango dela, eta bertako enpresek eta eragileekin "elkarlan estua" derrigorrezkoa dela. Gaineratu zuten kooperatiba munduaren bultzadarekin berriki sortu den Gizarte Berrikuntza Plataforma horren "adibide garbia" dela.

Salatu zuten, bestetik, deigarria egin zaiela Mankomunitateko Lehendakartzatik Foru Aldundiaren *Etorkizuna eraikiz* ekimenaren baitako egitasmok bakar bat ere eskualdera ekartzeko "ahaleginik egin ez izana".

Amaitzeko, EH Bilduko ordezkariak azaldu zuten Debagoieneko Mankomunitatea "hondakin zerbitzuak eskaintzeaz haratago eskualdeko garapenari begira" jarri behar dela.

Izagirre eta Biain Bergaran

Bestalde, Juan Karlos Izagirre Gipuzkoako diputatugai nagusia Bergaran izan zen atzo goizean eta berarekin izan ziren baita ere Mikel Biain Oñatiko alkate eta Batzar Nagusietarako Debagoieneko alkategaiak.

Ekitaldian, Izagirrek hartu zuen hitza lehendabizi eta EH Bilduren helburu nagusia herritarren ongizatea hobetzea dela argitu zuen, horretarako "kalitatezko hezkuntza, zerbitzu eta osasungintza publikoak bermatuta" izatea beharrezkoa dela azalduz. Bestalde, Osakidetza lehen arretako langileen biharko lanuzteari babes azaldu zion Izagirrek.

Mikel Biainek hartu zuen jarraian hitza eta EH Bilduk oinarritzko zerbitzu publikoak modu orekatuan jendartera helaraztearen alde egin duen lana nabarmendu zuen.

Amaitzeko, Aldundiaren politikek Gipuzkoan eskualdeen artean sortu duten "oinarritzko eskubideen desoreka" salatu zuten bi hautagaiek.

Indarkeria sexista jasan dutenen pobrezia bikoitza aztergai

Deustuko Unibertsitateko Ana Vidu, Aitziber Mugarra eta Mariola Serrano irakasleen eskutik da mintegia

Amaia Zabala OÑATI

Indarkeria sexista jasan dutenen pobrezia bikoitza eta haiek dituzten lan aukerak aztertzen ari dira Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen, atzo eta gaur.

Genero-indarkeriaren biktimen gainditze bikoitza: berrikuntza eta lan aukerak da mintegiaren izena eta Deustuko Unibertsitateko Ana Vidu, Aitziber Mugarra eta Mariola Serrano irakasleak dira hizlariak; atzo eta gaur egiten ari diren mintegi hori gaztelaniaz da.

"Biktima izateaz haratago, harremana utzi eta geroko beraien egoerak oso markatuta daude, datozkien prozesu guztiei aurre egiten dieten neurrian. Horrez gainera, azterketek aitoritzen dutenean emakume horiek senarren mende daudela ekonomikoki eta sozialki, aitorzen ari dira banantzeak haien egoera ekonomikoa okertuko lukeela eta giza-arrakala eta sarean lan galera ekarriko lukeela", azaldu dute Oñatin egiten ari diren mintegiaren antolatzaileek.

Ordezkaritza zabala

Mintegian 30 lagun baino gehiago batuko dira eta ordezkari oso zabala izan da: Deustuko, Castelloko, Madrilgo, Malagako, Leongo, Bartzelonako eta Argentinako unibertsitateetako ordezkariak gain, sindikatu eta legelarien elkarteetako ordezkariak ere batu dira. Erakunde publikoei dagokionez, berriz, Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak ere bertan izan dira. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabala ere bertan izan zen aurkezpenean.

Antolatzaileen esanetan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak ezarri dituen neurriak aztertzea eta horien eragina neurtzea da mintegiaren helburua.

ULMA	Packaging, S. Coop.	Oñati
OHIKO BATZAR NAGUSIA - DEIALDIA		
Eguna: 2018ko maiatzaren 24a		
Ordua: 14:30ean lehenengo deialdian eta 15:00etan bigarrenean		
Lekua: Zeharka Kirolegiko frontoia - Oñati (Gipuzkoa)		
GAI ZERRENDA		
1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO		
2. 2018KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2019KO GESTIO PLANA BERRESTEA		
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA		
4. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO		
4.1. 2018ko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio		
4.2. 2018ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio		
4.3. 2018ko ekitaldiko informazio ez-finanziario bateratuaren egoera aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea		
5. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2018KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA		
6. 2018KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA		
7. POGU III-REN II. IDAZPURIAREN 1.3.3., 1.4.2. ETA 2.2. ATALAK, POGU III-REN III. IDAZPURIAREN 2.2. ATALA ETA BARNE ARAUDIAREN 42., 43. ETA 82. ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN HIRUGARREN ETA LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK GEHITZEA, FONDO PROPIOAK SENDOTZEKO		
8. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)		
8.1. 2018an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua		
8.2. 2019an IPDK-ko zehazketak aplikatzeko proposamena		
8.3. ULMAren 2019ko jarduera sozialaren ikidien azalpena		
9. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK		
10. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA		
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA		
12. ZABINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA		
13. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA		
14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA		
15. AHALMENAK ESKURDUTZEA		
16. GALDE-ESKEAK		
<p>OHARRAK: Baitako proposamena ULMA Packaging, S. Coop-en ("kooperatiba") egitasmo erakundearen barnean, informazio ez-finanziario bateratuaren egoera, ezarriak aplikatzeko proposamena eta kontuak kumpulazatuz egindako jarduera, batzuek proposamena deialdiaren egunetik aurrera atal izan dituzten. Hala ere, bakoitzeko jarduera egitasmoaren barnean, kooperatibaren egitasmo erakundearen barnean, POGU III-a proposatutako aldatutako irudiak eta aldatutako kontu jarduera berria, eta hori dugu materia edo baliabideen erabilera.</p>		
<p>KONTSEILU ERREKTOREA Oñati, 2018ko apirilaren 26a</p>		



"Industria indartzeak lehentasun osoa du"

Maria Ubarretxena EAJren alkategaia eta Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusirako EAJren hautagaia Arrasaten izan dira, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa Uribeko egoitzan garatzen dabilen laborategi teknologiko berrien instalazioa bisitatzen

Amaia Zabala ARRASATE

Ekintzaitzaren eta 4.0 Industriaren aldeko apustua berretsi dute Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusirako EAJren hautagaiak eta Maria Ubarretxena Arrasateko EAJren alkategaia, Mondragon Unibertsitatea Uribeko egoitzan garatzen dabilen laborategi teknologiko berrien instalazioetara egin duten bisitan.

Hala, berrikuntza teknologikorako strategiaren xehetasunak ezagutzeko aukera izan dute erakundearen goi-arduradunen eskutik; Juan Maria Palencia, Mondragon korporazioko lehendakariordea, bertan izan da,



Maria Ubarretxena, Markel Olano eta Juan Maria Palencia. AMAIA ZABALA

besteak beste. 5.000 metro koadroko espazio horretan, teknologia industrialeko Estatuko laborategirik "modernoenak" kokatuko dira eta enpresen eta langileen formakuntza jarraiturako erabiliko dira.

Arrasate, erreferentziako gune

Egitasmoak Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako erakundeen babesa du, eta, Ubarretxenaren hitzetan, "etorkizuneko Arrasateren zutabeetako bat" izango da: "Arrasatek, oso modu nabarmenean, elementu guztiak ditu berrikuntza teknologikoaren erreferentziako gune bihurtzeko, lehen mailako unibertsitate batekin, puntako enpresa teknologikoekin, ikerketa-guneekin eta lankidetzatradizio sendoarekin. Honelako apustuak ezinbestekoak dira etorkizunerako ekonomiaeren lehen lerroan kokatzeko".

Enprekin elkarlanean

Markel Olanok, berriz, Mondragon Unibertsitateak hezkuntza eredu dualaren alde egin duen apustua azpimarratu du: "Enprekin elkarlanean proiektuak

sortzeko egin duen lana zoriontzekoa da".

Industria eredu

Era berean, eskualdeak industria ikuspegitik duen potentziala ere nabarmendu du Olanok: "Debagoiena da industria aurreratua eta kohesioaren ikuspegitik eskualde aurreratuena da Gipuzkoan. Gainera, Gipuzkoa arlo horretan Europako herrialderik aurreratuena mailan dago; aberatsen eta txiroen arteko diferentzia Suediaren, Norvegiaren eta Danimarkaren parekoa da".

Gaineratu du datu hori "kooperatibismoari eta industria ereduari esker" dela eta EAJ dela lurraldeko industria eta enpresa ehuna sendotzeari "lehentasun osoa" ematen dion alderdi bakarra: "Industriaren etorkizuna da gure lehentasun absolutua, badakigulako horrek gizarte orekatua ekartzen duela eta industriari gabe lurralde bezala dugun oreka galduko genukeela. Horren harira, orotarazi du "kemen" horren ondorioz enplegu tasa jaitsi egin dela, duela lau urteko %13tik gaur egungo %8ra, zehazki.

HEMEN

EAJ-PNV

EAJ-PNV.EUS

EMAN BOTOA

Dolmenen Ibilbideaz gozatzeko doako bisitak

Bergarako, Elgoibarko eta Soralezeko udalek, Debegesarekin batera, sustatu dute egitasmoa, ibilbidearen eta bere ingurunearen paisaia-balioa eta balio arkeologikoa herritarrei ezagutzera emateko helburuarekin; lehena maiatzaren 26ean izango da

Amaia Zabala BERGARA

Dolmenen Ibilbidearen (PR-Gi 94) balio arkeologikoa eta pasaia-balioa gizarteratzen jarraitzeko asmoz, Elgoibarko, Bergarako eta Soralezeko udalek doako bisita gidatuen programa berria abiarazi dute, Debegesa Debarreneko Garapen Agentziarekin elkarlanean.

Zazpi bisita gidatu antolatu dituzte eta lehendabizikoa maiatzaren 26an egingo da, domekan, euskaraz. Hortik aurrera, datuzen irteeretako datak honako hauek dira: euskarazkoak ekainaren 29an, uztailaren 14an eta uztailaren 28an eta gaztelaniazkoak, berriz, uztailaren 7an,

uztailaren 21ean eta abuztuaren 10ean.

Bisita gidatuak Karakateko aparkalekutik aterako dira, Soralezeko, goizeko hamarretan. Parte hartu nahi duten herritarrek aurrez izena eman beharko dute 657 79 46 77 telefonora deituz edo info@begi-bistan.com helbidera idatziz.

"Ibilbide gidatuak 9 kilometroko luzera eta hiru ordu eta erdiko iraupena du, Karakaten hasi eta Irukurutzetaraino joanetorria. Ibilbidea erraza eta malda gutxiokoa da, familian egiteko aproposa. Hori bai, ibilaldian parte hartzeko gomen-dututako gutxieneko adina 7

urtekoka da. Edertasun handiko paisaiak zeharkatzen dira ibilbidean zehar eta balio arkeologiko handiko interesguneak aurki daitezke bertan. Mendilerroan historiaurreko monumentu ugari dago, hala nola Neolitoko eta Brontze Aroko tumuluak, trikuharriak eta zutarri bat", azaldu dute antolatzaileek.

Boluntario bila

Dolmenen Ibilbidean dauden zenbait tumuluren eta trikuharriaren indusketa lanak hasiko ditu Aranzadi Zientzia Elkartek eta boluntario bila dabil; harremanetarako, jtpia@aranzadi.eus helbidera idatzi behar da.

Debagoieneko Artzainen Eguna izango da bihar, Antzuolan

Eusko Label bildotsa burruntzian, ile-mozte erakusketa eta haurrentzako jolasak izango dira herriko plazan

Amaia Zabala ANTZUOLA

Iaz Elgetan izan zen eta aurten Antzuolaren txanda izango da; izan ere, Debagoieneko Artzainen Egunaren VII. aldia Antzuolako plazan egingo dute bihar, maiatzak 18. Ikuskizuna eta jai giroa ziurtatuta izango dituzte bertaratzen direnek, antolatzaileek goiz osorako egitaraua antolatu baitute.

Goiz osorako egitaraua

Debagoieneko pastoriek argazki lehiaketako argazkien erakustaldiarekin hasiko dute eguna, goizeko hamarretan.

11:00etan hasita, berriz, eta goiz osoan, artzaintzarekin lotutako haurrentzako jolasak izango dituzte: *Artiletik harira*, *Ardi latxaren bila* eta *Zein da ahariaren pisua* jolasak, hain zuzen ere. Jarraian, 11:30ean, ardi-ile mozte erakustaldia egin-



Artzainen eguna, iaz. IMANOL SORIANO

go dute eta 12:30ean, goizean zehar burruntzian erre duten Eusko Label bildotsaren pintxoak banatuko dituzte.

13:00etan, argazki lehiaketaren sari banaketa egingo dute herriko plazan.

Edukiontzietako pedalak erabiltzeko argibideak

Debagoieneko Mankomunitateak, organikoaren eta errefusaren edukiontzietan irisgarritasuna hobetzeko asmoz, pedalak jartzeko lanak hasi ditu dagoeneko, eta, horrekin batera, hurrengo egunetan, pedalak nola erabili erakusten duten pegatinak jarriko dituztela jakinarazi dute.

Pegatina horietan, pedala erabiltzeko argibide hauek agertuko dira: *Txartela pasatu*, *Soinua entzun*, *Unetxo batez itxoin* eta, azkenik, *Pedalarri eragin*.

"Pegatinetako argibideei jarraituz, oso modu erraz eta erosoan irekiko da edukiontzien tapa; pauso horiek jarraitzen ez badira, ordea, tapa ez irekitzeaz aparte, hondatu egin daiteke", argitu du Debagoieneko Mankomunitateak.

Horren ondorioz, herritarrei dei egin die te erabilerara egokia egin eta pegatinetako argibideak jarrai ditzaten, guztien artean zaindu eta, era berean, pedalen erabileran ahalik eta intzidentzia gutxien egon daitezten.

ULMA Hornigón Polimero, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2019ko maiatzaren 24a
Ordua: 08:30ean lehen deialdia eta 09:00etan bigarrena
Lekua: MU-Empresagintzako auditorioa - Oñati (Gipuzkoa)

GAIZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDIAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2018KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2019KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2018ko urteko banalario kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2 2018ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2018KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2018KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
8. POGU III-REN II. IDAZPURUAAREN 1.3.3, 1.4.2 ETA 2.2 ATALAK ETA III. IDAZPURUAAREN 2.2 ATALA ETABARNE ARAUDIAREN 42, 43 ETA 82 ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN HIRUGARREN ETA LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK GEHITZEA, FONDO PROPIOAK SENDOTZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 9.1 2018an IPDKetan egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 9.2 2019an IPDK-ko zerbatekoak aplikatzeko proposamena
 - 9.3 ULMAren 2019ko jardura sozialaren bidelen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA
14. GALDE-ESKEAK

OBERRAK Batzideki proposamenen rala ULMA Hornigón Polimero, S. Coop-en ("Kooperatiba") egoitzean erabilerari buruzko deskargua, erabilerari buruzko deskargua eta kontu bateratuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea; Barne Nagusiaren deialdiaren arabera, Barne Nagusiaren deialdiaren arabera erabilerari buruzko deskargua, erabilerari buruzko deskargua eta kontu bateratuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea; Barne Nagusiaren deialdiaren arabera, Barne Nagusiaren deialdiaren arabera erabilerari buruzko deskargua, erabilerari buruzko deskargua eta kontu bateratuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2019ko maiatzaren 8a

ULMA Servicios de Mantenición, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2019ko maiatzaren 23a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Lekua: ULMA Taldeko auditorioa - Oñati (Gipuzkoa)

GAIZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDIAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2018KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2019KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2018ko ekitaldioko banalario kontuak aztertzea eta, onartzea hala badagokio
 - 4.2 2018ko ekitaldioko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, onartzea hala badagokio
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2018KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2018KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
 - 7.1. 2018ko ekitaldioko ematzak banatzea
 - 7.2. Berondatzeak Erreserba Fondok banatzea
8. POGU III-REN II. IDAZPURUAAREN 1.3.3, 1.4.2 ETA 2.2 ATALAK ETA III. IDAZPURUAAREN 2.2 ATALA ETA BARNE ARAUDIAREN 42, 43 ETA 82 ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN HIRUGARREN ETA LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK GEHITZEA, FONDO PROPIOAK SENDOTZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 9.1 2018an IPDKetan egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 9.2 2019an IPDK-ko zerbatekoak aplikatzeko proposamena
 - 9.3 ULMAren 2019ko jardura sozialaren bidelen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA
14. GALDE-ESKEAK

OBERRAK Batzideki proposamenen rala ULMA Servicios de Mantenición, S. Coop-en ("Kooperatiba") egoitzean erabilerari buruzko deskargua, erabilerari buruzko deskargua eta kontu bateratuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea; Barne Nagusiaren deialdiaren arabera, Barne Nagusiaren deialdiaren arabera erabilerari buruzko deskargua, erabilerari buruzko deskargua eta kontu bateratuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea; Barne Nagusiaren deialdiaren arabera, Barne Nagusiaren deialdiaren arabera erabilerari buruzko deskargua, erabilerari buruzko deskargua eta kontu bateratuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2019ko apirilaren 30a



DBHko 3. mailako ikasleak eguzki-labeak egiten. ARRASATE INSTITUTUA



Eguzki-labeak. ARRASATE INSTITUTUA



Eguzki-labean eginiko bizkotxoak. A.I.

Eguzki-labeak, janaria prestatzeko alternatiba

Arrasate Institutuko ikasleek janaria prestatzeko eguzki-labeak sortu dituzte eta GKEn bitartez hainbat herrialdetara zabalduko dituzte. Kenyara bidali dutena martxan da dagoeneko eta gainontzekoak ekainean bidaltzea aurreikusten dute

Amaia Zabala ARRASATE

Arrasate Institutuko DBHko 3. mailako ikasleak diziplinarteko proiektu batean dabilta burubelarri, janaria prestatzeko eguzki-labeak sortzen: "Teknologian, Matematikan, Euskaran, Ingelesean, Fisikan eta Balio Etikoetan ari gara lantzen proiektua, eta, hainbat materialekin probak egin ondoren, janaria prestatzeko 25 eguzki-labe sortu ditugu" azaldu Javi Crespok, Arrasate Institutuko irakasle eta proiektuaren buruak.

Institutuak jakinarazi du helburua dela labe horiek gobernu kanpoko erakunde bitartez hainbat herrialdetara zabaltzea, bertan erabilera eman diezaioten. Bidalketa gehienak ekainean egingo dituzte, baina institutuak jakinarazi du bat dagoeneko bidali dute, Kenyara, eta oso pozik hartu dutela: "Kenyarrek probatu dute dagoeneko eta oso pozik agertu dira. Bestalde, aste honetan Bilboko Amigos de Mufunga fundazioarekin elkartu gara eta beraien bitartez Kongora lau labe eramatea adostu dugu, han erabili ditzaten", azaldu dute.

Javi Crespo proiektuaren buruarentzat ez da horrelako proiektu bat garatzen duen lehen aldia, antzeko hainbat proiektu aurrera atera baititu zenbait institututan. Proiektuak gauzatzaren garrantzia nabarmendu du Crespok: "Ikasteko beste modu bat da, benetako gauza batekin ikasteko modua, hain zuzen. Gainera, oso pozgarria da ikasleak inplikaturik ikustea".

Gaineratu du ikasleek gain irakasleak ere gustura dabiltzala proiektuan lanean: "Gu ere gustura ari gara proiektuarekin, eta, datorren urtera begira, proiektu interesgarri eta solidario honekin jarraitzeko asmoa daukagu".

Alex Txikonen bisita

Bestalde, institutuak jakinarazi du hainbat zientzialari interesatu direla proiektuarekin eta egitasmoaren dibulgazioa egiteko mendizaleez eta sukaldariez ari direla baliatzen. Hori dela eta, datorren astean Alex Txikonen bisita espero dute institutuan, zeinak dagoeneko labe horietako bati erabilera eman dion espedizioetako batean.

Zurekin
GIPUZKOA
gara

ehbildu



ZABALIK

OIHAN VITORIA

Lanorduak, hasi eta buka

Beste gairik ez da izan egunotan: indarrean da lanaldiaren nahitaezko erregistroa, nahiz eta ez duen erabat galaraziko lan merkatuan hain ohiko bihurtu den aparteko orduen gehiegikeria, legeari izkin egiteko zirrikituak ez direlako desagertu.

Enpresa guztiek dute lanaldi hasiera eta bukaera orduak jasotzeko ardura, langileei dagozkien soldatak ordaintzeko. Ez gehiago, ezta gutxiago ere, dagokiena baizik. Arazoa, baina, erregistro hori aplikatzeko moduan dago. Noiz eta nola?

Kontraesanak nabarmenak dira. Sektore batzuetan aise ezarriko dute dekretua, erraza izango da langileen sarrera eta irteera orduak kontrolatzea. Beste lanpostu batzuetan, ordea, kazetaritzan, irakaskuntzan edo garraiolariaren kasuan, adibidez, ia ezinezkoa da hasiera eta amaiera orduen kontrol

LANALDIAREN ERREGISTROA EGITEN EZ DUTENEK ZIGORRAK JASO DITZAKETE

zurruna egitea. Eguna hasi eta mugikorra piztu bezain pronto hasten baita askoren laneguna, gauean amaitzeko.

12 orduko lanaldiak zenbatu eta ordaintzea onartuko luke sistemak?

Enpresariak, noski, gehien komeni zaiena ezarriko dute,

beharginen interesentzat komenigarria izan ala ez. Galtzailea, betikoa. Lanaldiaren erregistroa egiten ez dutenek zigorrak jaso ditzakete, baina isunak malguegiak dira: enpresa ugari merkeago aterako zaizkie isunak, aparteko orduak ordaintzea baino.

Kasualitateak kasualitate, legea indarrean sartu den aste berean, sekulakoa bota du kanpaina betean Bizkaiko ahaldu nagusi izateko EAJren hautagaiak. Ez bereziki prekaritateari aurre egin eta lan baldintzak bete daitezela aldarrikatzeko.

Andoni izeneko arrain-saltzaile baten adibidea jarri du, aho bizarrik gabe: 04:30ean esnatu, merkatuko postua zabaldu eta arratsaldean beste dena batean lan eginda pertsiana 22:00etan ixten duen barakaldarraren kasua. "Ez da kexatzen, ez du laguntzarik eskatzen", esan du. Prest legoke Andoni bezalako langileei lanordu guztiak ordaintzeko? Isiltasunek hitzek baino gehiago esaten dute sarritan.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Nolabait

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/S5ACX
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Konfiantzazko jubilatutako bat osasunez ongi dagoena, goizean goiz jaikitzen ohitura duena, txirrindan ibilizalea eta begi zolikoa.

Partidukoa bada, hobe.

Bera luke edozein alkatek aholkularirik onena eta merkeena.

Goizeko bederatzietarako joango litzaioket bulegora partearekin.

Halako faroleko argia fundituta dago; halako bidetan ez dago zuloa

besterik; halako tabernatako

terrazak espaloia jan egiten du; halako hil da; halako tokitan zabor-poltsak azaltzen dira tokiz kanpo...

Hiri handietarako, bakarra ez litzateke aski, eta hartu bi-hiru.

Herri malkartsuetarako, berriz, ipini txirrinda elektriko berri horietako bat jubilatutaren esku.

Agintea egunero sortzen diren gorabeheren kudeaketa soila balitz, ados egongo zarete agintzeko modurik eraginkorrena hori litzatekeela.

Baina gure herri eta hirietako agintariei zerbait gehiago ere eskatzen zaie.

Nolako herria eraiki nahi duten erabaki beharra daukate.

Eta halako herria eraikitzeko zer antolamendu klase dagokien ongi pentsatu behar dute.

Katigatuko dira aholkulariak Mankomunitateko bileretan, komertziantek eta tabernarietako negoziatioetan, Europako diru laguntzen xerka paper artean...

Deus onik ez, soldata baino.

Jubilatuak, berriz, telebistara argazkiak bidaliz etsi beharko du.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martín.

Administrazioa

Ane Bereziar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Irakasleen formakuntzan sakontzea izan da helburua"

LURDES UGALDE GOIESKOLAKO KOORDINATZAILEA

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA
Goieskola duela lau urte hasi zen elkarteko kide diren irakasleen arteko formakuntza saioak egiten, Eusko Jaurlearitzaren *Partekatuz ikasi* ekimenaren baitan. Urtero egiten dituzte saioak, eta asteen bukatu dituzte. Goieskolako koordinatzailea izateaz gain, Zuazola-Larraña institutuko irakaslea ere bada Lurdes Ugalde.

Pozik zaudete ikastaroen izan duten harrerarekin?

Bai. Bi saio egin ditugu eta, gutxi gorabehera, batean 80 irakasle egon dira eta bigarrenean, 90. Irakasle batzuek, gainera, errepikatu egin dute, eta bi saioetara etorri dira. Oso interesgarriak izan dira jorratu diren gaiak, eta egin diren aurkezpen guztietatik atera dugu zerbait aplikagarria egunerokorako. **Ze motatako gaiak izan dira?** Lehen Hizkuntzan, gai bat hizkuntzetan oinarritu zen, ikusteko ingelesa nola uztartu dezakegun hemengo



Lurdes Ugalde, Zuazola-Larraña institutuan. ENEKO AZURMENDI

hizkuntzekin. Errekalde Herri Eskolakoekin egin zuten honen aurkezpena; izan ere, proiektu orokorrean oso ondo integratuta daukate ingelesa. Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolakoekin aniztasuna

landu dute, kulturartekotasuna. Horretarako, ariketa bat egin dute, eta irakasleek klaseak grabatu dituzte, teoriarik ez ezik, praktikan ere inklusiboak diren ikusteko,

eta ondorio interesgarriak atera dituzte. Bestalde, Angiozarko Eskola Txikia orain dela gutxi integratu da Goieskolan, eta aurkeztu digute eurek nola funtzionatzen duten, eta, eskola txikia izanik, ze abantaila eta ze arazo dituzten.

Eta Bigarren Hezkuntzan?

Digitalizazioa izan da gai nagusia. Ikasleek, liburuak eduki beharrean, *chromebook*-ak dituzte, eta egunero ekartzen dute eskolara. Azaldu dute baliabide digital ezberdinak nola erabiltzen diren hainbat ikasgaitan. Gai honekin lotuta, Irungo Hirubide ikastetxea gonbidatu dugu, Ubuntuaren bitartez egin dutelako digitalizazioa. Oso era ezberdina da, software librea erabilia, eta azaldu digute nola egin duten.

Saio hauen helburua zein da?

Irakasleen formakuntzan sakontzea, irakasleen arteko elkarlana eta harremanak sendotzea, eskola batean egiten dena bestean ere baliagarria izan dadin. Bestalde, Goieskola elkarte bezala indartzea da beste helburuetako bat, eta azken helburua, nagusia, Debagoieneko Eskola Publikoa hobetzea eta indartzea da.

HAU BE BADOGU!

Osasuna Lehenengo Mailatik gertu



Gizonen Lehenengo Mailan bost euskal talde egon daitezke hurrengo denboraldian. Horretarako, Osasunak lehenengo *finala* izango du aste bukaera honetan, Cadizen aurka: *@BetiGorri*: "Atera ditzagun Osasunako banderak balkoietera! Gora Osasuna!".

@caosasuna_eus: "77 puntu batzera heldu gara *#LaLiga123*-en. 77 arrazoi ditugu amets egiten jarraitzeko eta babesten gaituzuen guztioi eskerrak emateko *#gorrizamestu*".

Sare sozialak ere, hauteskundeetara begira

Oraindik hauteskundeetarako astebete luze gelditzen den arren, dagoeneko *trending topic* bilakatu da *#M26* traola.

@iraola_: "*#M26* Europako hauteskundeak 2. mailan gelditzen ari dira, ezinbestean, baina nabarmenegi agian. Dena den badira intereseko kontuak: EAJ-GBai-ren koalizioak ordezkaritzarik lortuko ote duen. Eta EH Bilduk ERCrekin egindako aliantzaren balizko arrakasta, asko azpimarratu du koalizioak".

Andoni arrain saltzailea, 'trending topic'

Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiaren txio baten ondorioz, *trending topic* izan da *Andoni* izena. Txioan, egunean 12 ordu baino gehiago lan egin arren kekatzen ez den langilearen adibidea jarri du Rementeriak, eta txantxak askotarikoak izan dira:

@martin_kitto: "Ba, oraindik ez naiz lotara joan. Sinatuta, Andoni, arrain saltzailea".

@AsierEguiraun: "Andoni arrain saltzailea kexu da: "Bizitzeko ari naiz".

ITURRI ONETIK

Lorea Ibarra arrasatearra 'Akelarre' filmean

Pedro Agüero zuzendari argentinarraren *Akelarre* filma errodatzen ari dira egun hauetan Euskal Herriko kostaldean.

XVII. mendean dago girotuta filma eta Inkisizio garaian sorginek pairatutako jazarpena kontatzen du, sorginen ikuspuntutik.

Hain zuzen ere, sorginen rola jokatu zuten artean dago Lorea Ibarra arrasatearra.

800 emakume gazteren artean aukeratu dituzte hogeit bat eta horien artean dago Ibarra.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-05-16

Munilla gotzainaren lehen bisita

Jose Antonio Munilla Gipuzkoako gotzaina Bergaran izan zen, jaunartzeak zirela eta. Igokundeko meza esan zuen Santa Marinan. 2009ko azaroan izendatu zuen Gipuzkoako gotzain Benedikto XVI.ak eta 2010eko maiatzekoa izan zen Bergarara egiten zuen lehen bisita. Ikusmina sortu zuen elizkoien artean. Pastoraltzako bikario izendatu berri Juan Kruz Mendizabal *Kakux* ere bertan izan zen.



Seminarixoko parkinga

LANDER ARREGI ETA MAITE AGIRRE

BERGARAKO EAJ-PNV
BERGARA

Aspalditik dator aparkaleku faltaren arazoa Bergarako erdigunean. Deba ibaiaren eta alde zaharraren bitartean garatu da erdigunea eta honekin lotuta datorren guztia: biztanleria multzo handi bat eta hauei eta herri guztiari zerbitzua ematen dieten hainbat eta hainbat zerbitzu desberdin, publikoak zein pribatuak, Udala, aurrezki kutxa eta banketxe, epaitegia, era guztietako dendak, osasunarekin lotutako hainbat zerbitzu, UNED, jatetxe eta tabernak, Seminarixoa, eta profesional desberdinen hainbat zerbitzu.

Eta herritarrak erdigunera datoz, herriko beste auzo batzuetan bizi direnak eta baserri-auzoetakoak, eta baita inguruko herrietakoak. Eta kotxean datoz. Urrintxo bizi direlako, pisua eraman behar dutelako, adinez nagusiak direlako edo osasun arazoak dituztelako, presaka dabiltzalako edo horrela tokatu delako. Eta joan nahi duten lekutik gertu aparkatu nahi dute.

Honek trafikoa arazoak sortzen ditu, eta, guztien gainetik, aparkatu ezina. Udalean agintean egon diren talde desberdinak saiatu dira egoera honi aurre egiten, TAO(OTA) hobariak kotxea garajejan aparkatzearen, eta

abar. Baina nahikoa da. Iritzia orokorra da, guztiok daukagu soluzioa buruan eta herriak barneratuta dauka: lur azpiko parkinga behar dugu erdigunean.

EAJ-PNV aspaldi hasi zen hau lortzeko lanetan, eta horretarako erosi zuen Madrilen Seminarixoko patioa, gaur egun herriarena dena. Eta 2015eko programan egiteko asmoen artean sartu genuen. Eta 2017an ekin genion, behingoz, lanari. 2019an egin dira aurretik egin behar ziren lan batzuk eta dena ia prest dago lan handienarekin hasteko.

Noski eragozpenak sortuko dituela, tamaina honetako lan batean ezinezkoa da bestela, baina aginduta dago eragozpenak ahalik eta txikiak eta ahalik eta denbora laburren zango direla.

Guk parkinga Seminarixoa egiteko asmoa berresten dugu. Hitza ematen diogu herriari. Gure esku badago, egingo dugu.

Hauteskunde bezperako erakuslehoak

AINHOA NARBAIZA

MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEA
BERGARA

Hauteskunde bezperan herria asfaltzo josi eta sare sozialetan egindako lan horiek guztiak argitaratzen ari diren honetan, berdintasun politiketan egin ez direnei ere tarte bat eskaini nahiko nieke. Gai

feministak etekin politikoa ateratzeko erabiltzeak barru-barruko amorrua eragiten didalako, batez ere.

Legealdi honetan abiatutako ekimen solteen ereduarekin eta herri eragileekin izandako harremanean sartu gabe, hona hemen oinarriko kontu batzuen inguruko datuak:

1-Bergarako Udalean 4 urtean ez da sortu berdintasun sailik. Ez dago gune erreferentzialik edo emakumeen etxerik. Eta azken momentuan, jardun erdian eta azpikontratututa dagoen berdintasun teknikaria dugu.

2-Berdintasun arloko aurrekontua eta baliabideak oso ahulak izan dira – inguruko herri batzuekin konparatuz gero, alfonbra azpian ezkutatzeko modukoa–.

3-Jabekuntza eskola sortzeko saiakera bat egin zen arren. 4 urtean ez da egon jabekuntza eskoletako ikastarorik martxan.

Ereduak badaude, eta lan asko egin ahal da udalgintzan herriko emakume guztion bizitzak hobetu eta herri feministago bilakatzeko. Baina baliabiderik gabe ezin da. Herrigintzan feminismotik lanean ari garenok segituan antzematen ditugu instituzioetako hutsune eta erakuslehoak. Eta EAJ-PSEk legealdi osoan egin ez duzuen ezin da azken egunean garbitu. Zuen

bandera morea trapu bat da, haizerik ez dabil eta. Baliabide eta apustu sendorik ez badago, zuriketa morerik ez! Eskerrik asko.

Irabazi Bergarak arriskuan ikusten ditu Agorrosingo atletismo pistak

AIERT LIZARRALDE

IRABAZI BERGARA
BERGARA

Irabazi Bergarari elektoralista eta lotsagarria iruditzen zaio EAJren eta PSE-EEren Gobernuak Agorrosingo zelaiaren hitzarmenaz egin duten erabilera.

Gobernua 4 urtetan BKErekin hitzarmena sinatzen oso urruti zegoela esaten ibili eta gero, hauteskunde atarian, mirari bat gertatuko balitz bezala, agintaldi hasieran lasai asko sinatu zitekeen hitzarmena adostu du BKErekin.

Irabazik apirileko Kirol batzordean garbi utzi zuen ezer sinatu aurretik gaur egun kirol eremu honek dituen gabezia guztiak herritarrekin antzeman eta biharko egunean eremu honek izan beharko lukeen itxura herritarrekin adostu beharra zegoela. Honela, Agorrosinek behar dituen konponbide guztiak proiektu integral batean garatuz.

Hala ere, Gobernuak maiatzaren 13rako ezohiko osoko bilkura baterako deialdia egin zuen,

hauteskunde kanpaina garaian, eta bertan, Irabaziren botoekin izan ezik, beste alderdi guztien botoekin hitzarmena aurrera atera zuen.

Bilkuran bertan, Irabaziri onartezinak egiten zaizkion adierazpenak egin zituen Gobernuak. Besteak beste, esan zuten gaur egun atletismoko pisten erabiltzaileak diren hirugarren adineko pertsonek, elbarriek, korrikalariek, ikastetxeetako kirol jardueretakoek, eskola kiroleko haurrek, eta abarrek, etorkizunean, bidegorrira joan beharko dutela kirola egitera. Horrekin, Gobernuak garbi uzten du zeintzuk diren bere intentsioak eta sentsibilitatea atletismoarekiko.

Irabazi, futbolak gaur egun duen futbol zelai gabezia ikusita, zelai naturala artifiziala bihurtzearen alde dago, baina, gutxienez, atletismoko hiru kale mantentzea eskatzen du, instalazio hauek erabiltzen dituzten erabiltzaileen mesedetan.

Momentuz, hitzarmenak ez du esaten atletismoko pistak kentzen direnik, bakarrik aipatzen ditu zelaia artifizial bihurtzea, zelaia ureztatzeko sistema jartzea, argiteria ipintzea eta atezainak entrenatzeko txoko bat egokitzea.

Baina filmaren amaierari antza hartzen zaio.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Ask duzu ikusteko

Oftalmologia zerbitzua

Zure begiak eta ikusmena zainduko dituen espezialista taldea.

RPS 194/16. Zerbitzaburua: Pío García doktorea, Medizinan eta Kirurgian Izentziaduna. Asistentzia-arduraduna: Irune Cachero doktorea, Medizinan eta Kirurgian Izentziaduna.

Hospital Quirónsalud Vitoria
Esperantzza kalea, 3, 01002, Gasteiz, Araba
945 252 500
Aurretiko hitzordua
901 500 501

Hospital  quirónsalud
Vitoria





Segurtasuna hobetzeko neurriak iragarri dituzte

Fiskaltzari bidalitako gutunaren berri eman ostean, Arrasateko EAJk komertzioen eta lokalen segurtasuna lantzeko asmoen berri eman du asteon; horien arten daude droga-menpekotasuna prebenitzeko neurriak eta lapurrak jazartzeko asmoak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Honela laburbildu zituen Maria Ubarretxenak droga-menpekotasuna prebenitzeko zein bi neurri dituzten: "San Juan de Dios ospitalearekin eta ikastetxeekin, agintaldi honetan, guk abiatutako programa berritzailearekin jarraituko dugu. Programa berritzaile hori droga-menpekotasunari aurre egiteko programa bat da, gazteen arlokoa. DBHko ikasle guztiak hartzen ditu kontuan, eta gure proposamena da hain ondo joan den programa berritzaile hori zabaltea LH-5 eta LH-6 mailetara. Prebentzio arloan dugun beste proposamena ondorengoa da: Hondarribia kaleko 3. zenbakian, udal eraikin batean, Kalekarekin jarri dugu zerbitzu berri bat, zerbitzu berezi bat. Zerbitzu honetan, gazteak hartzen ditugu, lanik egiten ez dutenak, ikasten ari ez direnak, eta pertsona ho-



EAJren zerrendako lehen zazpi hautagaiak, astelehenero agerraldian. JULEN IRIONDO

riek lanbide batzuk ikasten dituzte eta babes bat jasotzen dute".

Une honetan, hamar lagunek jasotzen dute zerbitzu hori, eta EAJren proposamena da har-tzaile kopurua bikoiztea.

Aktuazioak

Batetik, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lana gaizkileak atzeman eta atxilotzeko: "Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko segurtasun plan opera-



Garay, Arana, Ubarretxena, Artolazabal eta Muro, Elma eraikin parean. X.G.

Elman Lanbide jartzearen alde

Pasa den barikuan, kanpainako lehen agerraldia egin zuen Arrasateko EAJk, Elma eraikinerako dituen asmoak aditzera emateko. Esandakoaren arabera, "etxerako lanak eginda" dituzte bertan Lanbideren bulegoak jartzeko, eta aurrean hori irudikatzen honako hauek egon ziren Maria Ubarretxena babesten: Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabal, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren zuzendari Nestor Arana eta Jaurlaritzako Enplegu eta Gazteria sailburuorde Marcos Muro.

Lanbidez gain, Mugi txartela tramitzeko eta kontsumitzaileen arreta zerbitzurako bulegoak jartzeko gestioak ere eginak dituzte, eta ostean zerbitzu gehiago jartzeko nahia azaldu zuen Ubarretxenak: "Nahiko genuke Gizarte Segurantzaren edo nortasun agiria egiteko zerbitzua eman ahal izatea Arrasatetik mugitu gabe".

tibo bat jarriko dugu martxan. Talde berezi bat antolatuko dugu lapur talde jakin honi jarraipena eta presioa egiteko. Eta herriko komertzioen eta ostalarien ordezkariarekin, euren komertzioen eta lokalen segurtasuna

lantzeko programa jarriko dugu martxan". Arrasateko EAJren helburu nagusia herriko "elkarbizitza seguru eta baketsua" dela adierazi du Maria Ubarretxenak, eta horretarako lanean jarraituko dutela agindu.

OHARRAK

Herri Eskolako hitzaldia, autoestimuz

Hilaren 21ean, 18:00etan, Kulturaten. Hizlaria: Sara Sanabria.

Domekan, II. Gazte Talent, gaztetxean

18:00etan, Gazte Txoko gazteek erakustaldia egingo dute.

Pentsiodunen elkarretaratzea

12:00etan egingo dute, Herriko Plazan.

'Zuztarrak errotuz'-en azken saioa

Argia-ko kazetari Axier Lopezek Juan Sebastian Elkanoren konkistaren gaineko hausnarketa egingo du. Hitzordua, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.

1969an jaiotako kintada, azaroaren 23an

1969arrasate@gmail.com helbidean izena ematea eskatu dute.

Bi ikastaro fitosanitarioekin lotuta

Fitosanitarioak aplikatzeko txartela berritzeko, hilaren 28an eta 29an, 15:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Legionellari aurre egiteko mantentze-lanena, Etxaluzen, 15:30ean, maiatzaren 20an, 21ean, 22an, 23an, 27an eta 28an.

"Naturan jolastea onuragarria da sormena lantzeko esaterako"

IÑAKI TELLERIA TXATXILIPURDI ELKARTEA

Zapatuan, IV. Naturan Jolasean eguna egingo dute

X.G. ARRASATE

Txatxilipurdi aspalditik dabil-tza naturan jolastearen onurak balioan jartzen, eta zapatukoa beste urrats bat izango da.

Zergatik da hain onuragarria naturan jolastea?

Aditu askok diote naturarekin harremana izateko beharra dugu. Beraz, behar horri erantzuteko, baina baita jakituria eta osasun iturri delako. Gaixotasun batzuk saihesteko gaitasuna eman dezake naturak berak: antsietatea, alergiak, asma, gizentasuna... eta ez dezagun ahaz-

tu sormena eta irudimena lantzeko medio paregabea dela.

Eta hain onuragarria izanda, zer dela eta daukagu gero eta harreman gutxiago naturarekin?

Pisuzko argudioetako bat da, beste askoren artean, jolas parkeek izan duten garapena. Lehen, ohikoa zen harea edo belarra bezalako elementuak jolas parkeetan ikustea, baina, segurtasunaren eta garbitasunaren izenean, elementu horiek desagertu egin dira, metalei, kautxuei, PVCari edo metakrilatoei bide emanez.



Iñaki Telleria, Goiena TBko platoon. GOIENA

Zer egongo da zapatuan?

Goizean, ginkana egingo dugu Santa Barbaran Leintz Eskolako laguntzarekin; 17:00etan, jolas libre espontaneoak eta 18:30ean, kontzertu akustikoa erdiguneko gaztelekuetan.



Egitasmo "egingarriekin" ekonomia potentziatzeko

Enpresen arteko ezagutza bultzatzeko foroa sustatu nahi du EH Bilduk. Horrez gain, premiazotzat jotzen dute, besteak beste, merkatarien eta ostalarien mahaia osatzea, enplegu mahaia sortzea, ekintzailatza laguntzea eta azoka zaharberritzea

Xabi Gorostidi ARRASATE

Honela azaldu du Mainer Morrasek Arrasateren "potentzialtasun ekonomikoa: jakintza akademikoa, esperientzia luze-ko ehun industrial eta zerbitzu sektore zabala... Eta posible ikusten dugu, Udalaren bultzadarekin, garai bateko gaitasun ekonomikoa berreskuratzea". EH Bilduk proposamen egingariak dituela ziurtatu du Morrasek. Azaldu du Arrasateko Etorkizunaren Giltza Zarela eta halako foroak sustatuko dituztela, enpresen arteko ezagutza eta elkarlana bilatze aldera.



Igor Uribesalgo, Mainer Morras eta Joseba Ezpeleta. GOIENA

Ostalaritzari lehenatsuna

Horrekin batera, komertzioari eta ostalaritzari lehenatsun osoa emango diotela jakinarazi du. "Arrasate Debagoieneko bihotz komertziala izan dadin komertzio eta ostalaritza bizi batek ekonomian ez ezik hamaika arlotan egingo dio onura herriari. Kaleen segurtasunari, kulturaren kontsumoari, kaleetako giroari, turismoari...". Merkataritzako eta ostalaritzako ordezkariekin harremanetan daudela adierazi du Morrasek. "Hainbat bilera egin ditugu, eta eurekin eskuz esku ariko gara

lanean gero ere". Alor horretan, PER plana berrikustea eta merkatarien eta ostalarien mahaia eratzea proposatu dituzte, eta ostalarien rola nabarmendu dute turismoa erakartzeko.

Lehen sektorearekin lotuta, ezinbestekotzat jotzen dute azoka zaharberritzea. Enplegu mahai bat sortu nahi dute langabeen eta enpresen artean "zubi lana egiteko", eta ekintzailatasuna sustatzeko arau urbanistikoak malgutzearen eta udal azpiegiturak uztearen alde daude.

Zapatuan, ekitaldia

Arrasateko EH Bilduk kanpainako ekitaldi nagusia egingo du zapatuan: 12:00etan, Biterin, eta eguraldi txarra bada, Kulturaten. Mainer Morras alkategaiak alboan izango ditu Juan Karlos Izagirre diputatugaia eta Arnaldo Otegi koordinatzailea.

lapurreta eta hiru eraso matxista, besteak beste".

Beste herri eta hiri batzuetako esperientziak ezagututa, hiru lan-ildo planteatu zituzten gaiarekin lotuta: udaltzain gehiago eta prestatuak, prebentzioa eta Udalak bitartekaritza zerbitzua eskaintzea.

"Badakigu arazoari nola erantzun, gaia ondo ezagutzen dugu eta gaitasuna daukagu horretarako".

Gobernutik jaso duten "tratua" salatuko dute 30 eragiletik gora

"Kaltetuak, isunekin zigortuak, isilaraziak eta mespretxatuak" izan direla diote; agerraldia egingo dute

X.G. ARRASATE

EAJk eta PSE-EEk osatu duten Gobernuak euren gaitasun komunikatiboa mugatu duela azaldu dute: "Mozal ordenantza-ri dagokionez, Arrasateko herri eragileok gero eta mugatuago ikusi dugu gure ahotsa kaleetan. Talde politikoez, sindikatuek, aisialdi taldeek, antolakunde feministek, musika taldeek, kultura eragileek, euskararen aldeko mugimenduek...".

Montronedik kendutako pankartak aipatzen dituzte horren adibide gisa, eta bereziki larri-

tzat jo dute Martxoaren 8ko greba egunarekin bat egin ostean Monterrongo kartel feministak kendu izana. "Ez ditugu horrelako beste lau urte nahi. Lan boluntario eta militantea ezabatu nahi dute herritik, euren neurritza egokitutako postalherri bat sortzeko, ez garbia, baizik eta isila eta hila, gobernatzeko erraza izango dena. Ahotsa goratzeko unea da, eta ozen diogu: Arrasateko kultur-gintza eta herrigintza ez dago baztertzen eta zigortzen gaituen Udal Gobernu honekin".

200 banderaxo nahi ditu Sarek

San Juan jaiak baino lehen lortu nahi dute erronka.

Helburua betetzeko bidea errazteko, gaur egun banderaxorik ez dutenentzat bost erorsketa puntu jarri dituzte: erdialdeko Monte eta Irati tabernetan, Uribeko Usue dendan, Musakolako Ziorla tabernan eta Arimazubiko Txixinpe tabernan. Sei euroren truke egongo dira salgai.



X.G.

Udaltzainen "ezinegona" eta iritzi kontrajarriak agerian

Batzordeak "pertsonal gabezia" salatu du; beste udaltzain batzuen ustez, "ezkutuko joko politikoan" ari da komitea

X.G. ARRASATE

Arrasateko Udaleko enpresa komiteak (ELA eta LAB) salatu du "komunikabideen bidez" jakin dutela azkenaldiko lepurretan eragilea hamasei kideko talde bat dela. Era berean, udaltzainen buruzagiengandik ez dutela jaso gaiari aurre egiteko instrukzioak. "Koordinazio falta, pertsonal gabezia eta prestakuntzarik eza" ere salatu dituzte eta gaueko txanda indartzeko egindako eskariak "behin eta berriro" baztertu dizkiela Pertsonal Sailak. Azkenik, Udaltzaintzako formakuntza

saioetara joan ez direla diote, "plantilla eskasiagatik".

Udaltzain batzuk, aurka

Bestetik, udaltzain batzuen beste ohar bat argitaratu du *Mon-draberri*-k. Diote Udaltzaingoa- ren barruan ez dela batzarrik egin komitearen oharra eztabai- datu edo onartzeko. Eta lepora- tu die langile batzordeari Udaltzaingoa kanpaina politikoen barruan erabiltzea. "Haien egitekoa langilearen defentsa da eta ez ezkutuko politika bat egitea" adierazi dute.

Segurtasuna, "arazorik larriena"

"Oso kezkatuta" dago EH Bildu herriko segurtasunarekin, eta horri heltzeko konponbideak aurkeztu zituen pasa den barikuan. Gai horrekin ezin dela "beste aldera begiratu" adierazi zuten, eta "Udal Gobernuaren" erantzukizunik eza salatu. "Orain dela lau urte, gure agintaldiaren bukaeran udaltzainek esaten ziguten gora egingo zutela horrela jarraituz

gero. Gobernuak Fiskaltzari igorritako txostenari buruz zera esan zuten: "Badakigu hamasei pertsona baino gehiago dabiltzala gure herrian lapurretan eta kalteak indarkeriaz egiten". Herriaren segurtasuna bermatzea Udal Gobernuari dagokiola dio Morrasek: "Baina erantzukizun falta izugarria egon da lau urteotan eta orain gauden egoeran gaude: hilero lauzpabost

Landareak, haziak eta loreak, azokan eskuragai

Hileroko baserriarren azokak beti izaten du ukitu berezi bat; sasoiko produktuak, kanpotik etorritako bisitariak edo sarritan egiten dituzten ikastaroak. Maiatzekoan, ordea, ortuko produktuek bereganatuko dute Seber Altubetik pasatzen direnen arreta

Xabi Gorostidi ARRASATE

Hamazortzi saltoki izango dira zapatuan Seber Altuben, eta horietan izango dira garaian garaiko askotariko barazkiak, txerrikiak, arrautzak, ganbarako produktuak, haragi ekologikoa, ezta eta gazta; horiez gainera, baina, ortuko landareak eta haziak eta balkoiatarako loreak ere eskuratzeko aukera izango da maiatzeko baserriarren azokan.

Alekakoen hazi ekologikoak

Azokako gonbidatuetako bat Aleka elkartekoak izango dira, eta Euskal Herriko hazi ekologikoak eroango dituzte. "2016an sortu genuen elkarte, hazien merkaturatzea alternatiba bat eskaini ahal izateko. Haziak ekoizten eta komertzializatzen ditugu, eta hori gure baserrietan aspaliditik egiten zuten ohitura berreskuratzea da", azaldu du Miguel Arribasek, elkarteko kide eta sortzaileak.

Gutzira, 100 hazi mota inguru ekoizten eta komertzializatzen dituzte –barazkiak eta loreak, nagusiki–, eta lurrerako ongaria ere saltzen dute.

Beizamako (Goierrri, Gipuzkoa) Amenabar Beheko baserrian egiten dute hazien ekoizpena. Haziak denetariokoak dituzte: bai euskal jatorrikoak, eta baita kanpokoak, baina hemen ondo funtzionatzen dutenak.

Sasoi honetan, eta jakintza handirik gabe, zein hazi diren landatzeko modukoak galdetuta, hona hemen Arribasen erantzuna: "Gure baratzeak zimaurtzen hasiak dira, eta jendeak ekin dio tomateak, piperrak, letxugak, kalabazak, kalabazinak, lekak, babarrunak... guretzako lan handiko unea, jendeak orain sartzen duelako udan landuko duena". Hazien ordez landare txikiak sartzeko ohituraz galdetuta, beste hau: "Biak dira gauza bera, baina landarean ez dakizu zein hazi erabili den".



Erosleak eta saltzaileak, Seber Altube Plazako baserriarren azokan. IMANOL SORIANO

NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Zerbait duzu begian

"Bada jendea traba egiten diona euskara folkloreaken kajoitak irteteak. Hizkuntza ez-gaitzat dute, baztertzea nahi dute; ez dezala trabarik egin". Gorka Urbizuren hitzak dira, Radio Euskadin egin zioten elkarrizketakoak. Traba egiten dizue euskarak, komunikatzeko balio duenean, esaten duenean, espazioa eta denbora hartzen dituenen, erdiguneratzen denean. Bestera esanda, traba egiten dizuegu euskaldunek. Traba egiten dizuegu osagarri ez badira, "bestea" ez badira..

"Jendaurrean jarriko bagina biok, ekitaldi bat aurkezten adibidez, agian norbaitek pentsatuko luke nola nagoen, baina entzungo luke zer. Zuri begiratuko lizkizukete arropak,

belarritakoak, makillajea...". Eta naizen lepotik gorako izaki arrazional honek lepotik behera egin zuen krak. Traba egiten dizuete emakumeek, tokia eta minutuak hartzen dituztenean, oholtzaratzen direnean. Traba egiten dizuegu. Azafatak nahi d traba egiten dizuegu, beltzez jantzita edo gorritz, margotuta edo ez, isilik edo hizketan. Itxaron, hurbildu hona. Utzidazu begian putz egiten. Lasai, ez da ezer. Zerbait sartu zaizu begian.

maiatzak **18** larunbata

Bazkide: alaitasunez salto egizu!

50€

-raino

oparituko dizugu deskontu-txarteletan

5 €-ko txartel bat, 40 €-tik gorako erosketak egiteagatik

10 €-ko txartel bat, 75 €-tik gorako erosketak egiteagatik

10 €-ko bi txartel, 150 €-tik gorako erosketak egiteagatik

10 €-ko bost txartel, 250 €-tik gorako erosketak egiteagatik

Txartelak nola eskuratu:

Promozioa Euskadiko, Nafarroako, Kantabriako, Erikoako eta Aragoiko EROSKI Supermerkatu eta Hipermerkatuetan izango da baliozkoa. Dandako artikuluz guztiak hartuko dute parte promozioan, hauek izan ezik: testu-liburuak, esperientzia-paketeak, E-pay txartelak (aurreordainketa-txartelak), errebeltu digitala eta fidelizazio-promozioetako produktuak.

Txartelen erabilera:
2019ko maiatzaren 20tik ekainaren 17ra arte erabil daitezke.
EROSKI Supermerkatuetan, 5 €-ko eta 10 €-ko txartelak 15 €-tik eta 25 €-tik gorako erosketetan erabili ahal izango dira, hurrenez hurren.
EROSKI Hipermerkatuetan, 5 €-ko eta 10 €-ko txartelak 20 €-tik eta 30 €-tik gorako erosketetan erabili ahal izango dira, hurrenez hurren.
Txartelak ezin dira erabili EROSKI Bidaiak eta Gasolindegietan.
Kontsultatu gainerako baldintzak zure saltokian.

ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE • Tel.: 943 71 10 30

Baita eroski.es webgunean ere



Patxi Gorosabelek eta Izar Bediak jaso zuten iaz aitortza. GOIENA

Arrasateko Kirol Sariak, arrasatearren esku

Ekainaren 6an egingo dute aurtengo kirolari onenaren saria eta kirol ibilbideari saria banatzeko gala. Iaz bezala, 14 urte beteak dauzkaten eta Arrasaten erroldatuta dauden herritarrek izango dute hautagaien artean botoa emateko aukera

Aitor Agiriano ARRASATE

Herriko kirolariei, kirol taldeei eta kirolaren alde egiten duten herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete ekainean izango den sari banaketa horrekin.

Aurten, iaz bezala, herritarrak izango dira euren botoekin irabazleak nortzuk izango diren erabakiko dutenak. Aurrez, baina, Arrasateko Kirol Mahaia osatzen duten eragileek erabaki dituzte jada zeintzuk izango diren saria jaso ahal izango duten hautagaiak.

Hala, 14 urte beteta eta Arrasaten erroldatuta dagoenak izango du gustuko den duen hautagaiaren aldeko botoa emateko aukera. Maiatzaren 26ra arte egongo da horretarako eta Udalaren webgunera jo beharko du herritarrak saria irabaztea nahi duen hautagaiaren aldeko botoa emateko, hain zuzen.

Kirol onenaren saria

Lehen modalitate horretan, saria eskuratzeko lehian dauden

kirolariak honako hauek dira: Aitor Fernandez futbol atezaina, Lehen Mailan debutatu duena Levante taldearekin; Istar Dapena, Gipuzkoako marka gainditu duen pertika-jauzilaria, 5,26 metro eginez; Arrasate Dragoi Gimnasta Taldea, Sorian jokatu berri den aerobikeko Espainiako Txapelketan banakako N3 mailan lehen postua lortutakoa; Jonathan Perez, master mailako Munduko Txapelketan zilarrezko domina lortu duena; Irene Murua, Arabako kopa irabazi eta Espainiako taldekako saskibaloitza txapelketan izango dena; Malen Ruiz de Azua, Espainiako mailako emakumezkoen klub txapelketan bigarren egin duena; Arrasateko Arlutz Xake

KIROLARI ONENAREN SARIA ETA KIROL IBILBIDEAREN SARIA, EKAINAREN 6AN IZANGO DEN GALAN

Taldea, xakean Ohorezko Mailan jokatu duena; eta Maialen Axpe, Espainiako mailako emakumezkoen klub txapelketan lehen postua lortu duena.

Kirol ibilbide onenaren saria

Modalitate horretan, sei hautagai daude: Mariano Arrieta, hildoko titulu bezala, Arrasate Eskubaloiko lehendakari eta eskubaloien alde lan gogorra egindakoa; Karmelo Bergaretxe, mendizaletasuna arlo guztietan Arrasatearrekin helarazteko sekulako ahalegina egindakoa eta Besaide Mendizale Elkartearen zuzendaritzan izandakoa; Arrasate Atletiko Taldea, 75 urte bete dituen arrasatearren artean atletismoa zabaldu eta diziplina desberdinak lantzen; Jon Basurko, Arrasaten saskibaloiko lehen taldearen entrenatzaile eta saskibaloien alde lan asko egindakoa; Arantzazu Zubia, Dragoi Gimnasia taldearen sortzailea; eta Maria Jose Gil, 1993a ezkerro lasterkaria dena.



Fernando Zufiria 'Txufi', omenaldian, agurra egin zioten uean. MAIALEN REGUEIRO

Omenaldi hunkigarria 'Txufi'-ri, atletismoan egindako lanagatik

Fernando Zufiria 'Txufi' omendu zuten Eskolarteko Gipuzkoako Atletismo Txapelketaren baitan

Aitor Agiriano ARRASATE

Urteetan Arrasateko atletismoaren alde egindako lana eskertzeko, omenaldi hunkigarria jaso du Zufiriak Mojategin.

"Banekien omenaldia egingo zidatela, baina ez nuen espero jaso ditudan sorpresa guztiak jasoko nituenik. Benetan pozgarria eta hunkigarria izan da niretzako".

Orain dela urte asko hasi zen atletismoan lehian Zufiria: "Gogoan dut nola, lehen, Iturripen zegoen pistan krosa egiten genuen. Egun, gainera, txikitatik nirekin hasi ziren sei atleta

internazional ere badauzkagu. Nork esango zigun...".

Arrasateko atletismo saileko kideen artean pasilloa egin zioten pistan bertan, eta ondoren, aurrerantzean bere izenean Mojategin egongo den plaka ere erakutsi zioten. Omenaldia amaitzeko, talde argazkia atera zuten guztiek.

Istar Dapenak, errekor berria

Bestalde, Gipuzkoako errekorra lortu berri du Dapena pertika-jauzilariak, 5,32 metro luzerako jauzia eginda, pasa den asteburuan, Anoetan.

Euskal Ligara igotzeko beste aukera bat du Mondrak

2-1 galdu zuen pasa den zapatuan Mondrako Ohorezko Gazte Mailako taldeak Zubietan. Hala, Euskal Ligara igotzeko lehen txartelak ihes egin zion talde zuri-moreari. Dena den, hamabost egun barru jokatu den hiruko torneoan beste aukera bat izango dute. Hori bai, Arabako eta Bizkaiko ordezkariekin batera jokatu duten hiruko torneo irabazi beharko dute.

Bestetik, zapatuan, Debako Amaiak Bat taldearen aurka 16:30ean Monjategin jokatu den partidura talde zuri-morea animatzera joaten diren zaleen artean, datorren urteko denboraldirako bazkietza txartela oparitu du klubak.

Alpinismoa, eskalada, eskia... 8. Mendi Tour pelikulen eskaintzan

Bilbao Mendi Film Festivaleko lanik onenak ikusteko aukera izango da Besaide Mendizale Elkarteak antolatutako zortzigarren Mendi Tour jardunaldian.

Mendiko gaiei buruzko pelikula dira, zirkuitu komertzialean ikustea ohiko ez direnak, jatorrizko bertsoan: *Viacruxis*, 2018ko BMFFko Film Labur Onena; *Everest Green*, 2018ko BMFFko Mendiko Film Onena; eta *Age of Ondra*, 2018ko BMFFko Sail Ofiziala, hain zuzen. Lehenengo lana mutua da eta azken biek euskarazko azpittuluak izango dituzte. Maiatzaren 21ean, 19:30ean, Amaia Udala Antzokiko pantaila handian ikusteko aukera izango da.

Margo tailerreko ikasleen lanak, Kulturaten ikusgai

Amaia Bengoaren ikasleek 'Quattrocentotik' erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Kulturateko klaustroan; ekainaren 14ra arte izango da ikusgai 57 margolan batzen dituen sorta –tamaina eta estilo askotarikoak–

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Ikasturtean egin dituzten lanak erakusteko ohitura dute Kulturateko margo tailerretakoek, eta hala egingo dute gaurtik ekainaren 14ra bitartean klaustroan izango duten erakusketan. "Kalean egin izan dugu, gehienetan, baina, oraingoan, klaustroan egin gura izan dugu, ikasle bakoitzak egindako koadroez gain, talde-lanean egin ditugun tamaina handiko margolanak ere erakusteko asmoarekin", azaldu du Amaia Bengoa irakasleak.

Orain dela hamar urte egin zuten azkenekoz klaustroan, eta, horregatik, ilusio handiarekin daude bilduma berria erakusteko; astelehenetik zapatara 17:30etik 20:30ak bitartean izango dute bilduma ikusgai.

180 ikasle, aurten

Eskarmentua du Bengoak margo irakasle moduan. "20 urte baino gehiago dira hasi nintzela; aurten, 180 ikasle ditut –100



Amaia Bengoa, Kulturateko klaustroan dagoen *Quattrocentotik* lanaren ondoan. A. A.

haur eta 80 heldu-; gehienek urtero jarraitzen dute tailerrean. Harrobi ona dago, nire ustez".

Adinaren edo taldearen arabera ikasgaiak moldatu egiten dituela gaineratu du irakasleak: "Teknika eta materialak ezagu-

tzeko eta ikasteko, paperaren gainean margoekin marrazten hasten dira txikiak, eta akrilikoetara salto egiten dute gero. Helduekin, berriz, marrazten ikasi eta koloreak nahasten ikasi ostean, olioarekin probatzen

hasten dira. Bakoitzak erabakitzen du zein estilotakoak margotu, eta euren bideratzen edo laguntzen saiatzen naiz ni. Oso giro ona dugu gure artean, eta oso ondo pasatzen dugu".

Margo ezagunen kopia bitxiak

2012an proposatu ziren lehenekoz Bengoak ikasle helduei elkarrekin margolan bat egitea, eta Picassoren *Gernika* koloretsua sortu zutela kontatu du: "Nahiko azkar egin genuen, abenduan hasi ginen lantzen eta ekainean amaitu genuen".

Esperientzia polita izan zenez, hurrengo urtean, impresionistotik abstrakziara bitartean egon ziren mugimenduak batzen dituen *Lehenengo abanguardia* izeneko lana egitea proposatu ziren irakasleak: "Lan handiagoa eman zigun horrek, eta bi ikasturte behar izan genituen bukatzeko. Formatu txikian margolan osoa egin nuen lehenengo nik, laukitan banatu nuen gero, eta ekimenean parte hartu gura zuten ikasleei margolanaren zati bat, hau da, lauki horietako bat eman nien. Ikasle bakoitzak mihise batean margotu zuen zegokion zatia, eta ondoren, zatiak elkarrekin lotuta, margolan erraldoia osatu genuen. Zabaleran bost metro pasa ditu eta ia metro eta erdiko altuera".

Aurten izarra, 'Quattrocentotik'

Pizkunde garaiko obra ezaguna hartu dute oinarri tamaina han-

diko hirugarren margolana egiteko, eta hori izango da gaur zabalduko duten erakusketako izar nagusienetakoa: "Beste hainbat autore ezagunen margolanen zatiak ere sartu ditugu eta fusio moduko bat sortu dugu Pizkundeko pieza horren baitan. Lan handia eta zaila izan da, ondo landu beharra zegoen-eta Pizkundeko irudi garbi hori; gauza berriak probatzeko baliatu dugu lana, eta antzinako teknikak erabili ditugu aurpegiak irudiak margotzeko. Triptiko baten itxura du lanak; hau da, hiru mihise handi dira bata besteari lotuta; ez da igartzen, baina, pieza ezberdinekin sortuta dagoela".

Aipatutakoez gainera, Andy Warhol margolari ezagunaren teknika eta estiloa imitatuz, 41 autoreren irudiak batu dituzte eta hala osatu dute laugarren margolan erraldoia: "*Dos caballos* auto zaharraren marrazkiak banatu nizkien ikasleei, eta bakoitzak gura zuen moduan eta estiloan margotu zuen, eta horiekin guztiekin, koadroak bata bestearen ondoan jarrita, instalazio bat sortu dugu aretoko horma batean".

HELDUEK ETA HAURREK EGINDAKO 57 LAN ERAKUTSIKO DITUZTE, GAURTIK HASITA, KLAUSTROAN

Abesbatzaren eta gitarraren doinuak Udaberriko Musikaldian

Musika zikloa ixteko kontzertuak gaur eta domekan izango dira San Frantzisko elizan eta Kulturaten (19:30)

A. Aranburuzabala ARRASATE

Askotariko doinuak eta musika formatuak batu ditu Arrasateko Udalak hamalagarrenez antolatutako Udaberriko Musikaldiak. Asteburuan eskainiko dituzte azken emanaldiak, orain artekoak moduan, doan eta 19:30ean hasita.

Oñatiko Ganbara Abesbatzaren oinarritik sortutako emakume abesbatza da Hots; 2016ko irailean Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean sortutakoa. Gaur egun, 40 kide ditu, Oñatiarrez gainera, eskualdeko eta probin-

tziako abeslariak osatzen dute taldea. 2016ko Gabonetan Oñatiko San Migel parrokiaren estreinako kontzertua egin zutenetik, ibilbide oparoa egin dute, hainbat alditan abestu dute herrian, askotariko ekimenetan, eta baita kanpoan ere; horrez gain, EITBren *Oholtzan* saioan ere izan ziren.

San Frantzisko elizan 19:30ean izango dira gaur, egubakoitza. *A cappella* eta pianoz lagundutako musika lantzen du Hots Abesbatzak, garai klasikotik musika garaikidera, euskal fol-



Hots abesbatza, Arantzazun egin zuen emanaldian. IMANOL SORIANO

klorea eta beste herrialde batzuetako musika interpretatuta, eta hala egingo dute gaur ere. Eli Mendiaraz pianista lagun, Eva Ugaldere, Josu Elberdinen eta Junkal Guerreroren piezak abestuko dituzte, besteak beste.

Domekan, nazioartean eskarmentu handia duen Alejandro Aparicio gitarrak joleak borobilduko du zikloa Kulturateko areto nagusian. Garai eta jatorri askotariko piezak interpretatuko ditu gitarrarekin.

Astelehenetik hasita, Arrasate Musikalen izena emateko aukera

Maiatzaren 20an zabalduko dute 2019-2020 ikasturterako matrrikulazio epea; astelehenetik eguenera 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean izango da izena emateko aukera, Monterron jauregian edo 943 77 05 40 telefonora deituta.

"Eskaintza handia" izango da, hala dio komunikazio arduradun Edorta Aiastuik, abian jarriko duten *Kultura Musikala* ikasgai berria aipatuta: "Iñaki Mangaren eskutik, musikaren historia ikasteko aukera eman nahi diegu helduei. Era berean, aurten hasi gara gitarra elektrikoa eta bateria eskolak zazpi urte dituztenei eskaintzen, eta hala jarraitzeko asmoa dugu".

Gazte zein heldu, drogen gainean hausnartzen

Substantzien kontsumoaren ondorioz gaixotasun mentalak dituztenak elkartu, eta horren bueltan lan egingo dute ekainaren 5ean, 6an eta 7an Donostian; UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak antolatuta, eragileen, erakundeen eta enpresen babesas jaso dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteak eta San Juan de Dios ospitaleak 2017an abian jarritako UD@A egitasmoaren barruan, *Inklusioa: esnatu, mugitu, ausartu eta erabaki* leloa duten jardunaldiak antolatu dituzte ekainerako. Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen babes osoa jaso du horrek, baita ikastetxeena –Kurtzebarri eta Arizmendi–, gurasoena eta hainbat enpresarena –Mondragon Assembly, Fagor eta Copreci, besteak beste–.

Kirola eta hausnarketa, lotuta

Drogen aurka Islandian egindako iraultza oinarri hartu dute: "Hango *Planet Youth* egitasmoa ardatz hartuta, olinpiadak antolatu ditugu", dio Agurtzane Elkorok, UDAko presidentea, eta Donostian elkartuko dira 4. DBHko gazteak. Hainbat kirol jardueraz izango dituzte bi egunetan: "Hortik harantzago doan ekimena da, lantaldeetan substantzien



UDaren ekimenarekin bat egin duten hainbat eragile. MIRARI ALTUBE

kontsumoaren gainean hausnartuko dute eta", dio Elkorok.

Ekainaren 7an, ostera, adituen txanda izango da: "Seguru asko, lehenengoz elkartuko dira halako bi aditu handi Donostian: gaixotasun dualatan jakitun den


Marta Torrens eta Islandiako proiektua gehien ezagutzen duen Patricia Ros", jakinarazi du San Juan de Dios ospitaleko Emilio Martinek. Parte hartzeko, izena eman behar da: inkluisioa.ilusioa@gmail.com.

Antolatzaileak eta babesleak



EMILIO MARTIN SAN JUAN DE DIOS OSPITALEKO MEDIKUA

"Substantzien kontsumoaren ondorioz gazte bat ospitalera iristen ikustea oso gogorra da. Ospitalera ez datorren gaztea, ostera, kooperatibaren batera joango da lanera, seguru asko, eta hori lortzea garaipen handia izango da guztiondako".



MYRIAM BELTRAN DE HEREDIA PREBENTZIO TEKNIKARIA

"Ekimen garrantzitsua da, drogen arazoa gertutik bizi dugu eta. Bi ikastetxeetako gazteek parte hartzea benetan da garrantzitsua, eta, politiki-poliki, hasi da zerbait aldatzen. Bide honetatik jarraitu behar dugu lanean".



SUSANA ALVAREZ GURASOA

"Gurasook ere kontu honi heldu behar diogu, gure seme-alaben alde lan garrantzitsua egiten dabilza eta. Beste proiektu batzuetatik ikasi behar dugu eta jardunaldian parte hartzera gonbidatzen ditugu".



JOSE MARI EIZAGIRRE MONDRAGON ASSEMBLY

"Gizartean eragiteari, esparru sozialari garrantzia ematen diogu, eta ekimen honek oinarrian eragiten du. Aukera ematen dio drogen gurpilean sartutakoari birgizarteratzeko; era berean, kontzientziatze lana du ardatz".

Herriko etxebizitzaren egoera konpondu nahi du EH Bilduk

Gazteen emantzipazioarako etxebizitzak eta alokairu sozialekoak sustatzearen alde agertu da

M.A. ARETXABALETA

Alokairurako dauden etxebizitzak gaineke herriko erretratua egin du EH Bilduk; ondorioztatu du "ia ezinezkoa" dela errentan hartzea, eta "are eta zailagoa gaztea izanik". Hori dela eta, "irtenbideak" proposatu ditu.

Hiru proposamen

Etxebizitzaren egoerari heldu beharra dagoela uste dute, herriko egoera ezagutu ondoren. Hona hemen eman dituzten datuak: "Jaurilaritzarenak diren alokairu sozialeko hoge etxe-

bizitza; 145 etxe hutsik; Bizigune programan izena emandako etxebizitzak hamasei (2017); eta herriko 71 familia programa horretan etxe eskaera eginda zutenak (2017); errenta-prezioak 600 eurotik gorakoak; eta ia etxerik ez alokatzeko". Gaineratu dute babes ofizialeko etxebizitza batzuk txikiegiak direla.

Hainbat egoerari erantzun nahian, hiru proposamen egin dituzte: batetik, gazteen emantzipazioarako udal etxebizitzaren proiektua dute: "Hori errealitate izan dadin hainbat diru iturri

ikusten ditugu: etxe hutsen zergen errekaritutik jasotzen dena; alokairuaren truke jasotakoa; eta Udalaren eta beste erakundeek ekarpenak", adierazi du Ion Albizu alkategaiak.

Bestetik, alokairu sozialeko etxebizitzak bultzatu gura dituzte: "Gehiago eraikita eta Txarapean dauden babestutako etxebizitzak saltzean administrazioak erosi eta alokairuan jarrita".

Hirugarrenik, beste aukera batzuk aztertzea proposatu dute "krisiaren ondorioz bukatu barik dauden etxebizitzendako": etxe kooperatiboak, komunitarioak eta belaunaldiarteak, besteak beste.

Era berean, 40 urtetik gorako etxebizitza gehienek berreskurapen integrala behar dutela aipatu du Albizuk, eta neurriak hartzeko gertu agertu da.

Aretxabaletara egokitutako kooperatiben soinu banda

Kantuek, dantzek eta umoreak bat egingo dute hilaren 25eko 'Humanity at music' saioan –sarrerak, Arkupen–

M.A. ARETXABALETA

Humanity at music sinfonia kooperatiboa eskainiko dute maiatzaren 25ean, 19:00etan, Ibarra kiroldegian –sarrerak salgai daude Arkupen, 5 eurotan–. Otsailean Arrasaten estreinatuta zuten ikuskizuna Aretxabaletara dator, eta bertara egokitutako emanaldia gertatu dute herriko hainbat talde bidelagun hartuta.

Aretxabaleta Abesbatzak, Leizarra musika eskolakoak eta Arizmendikoak hartuko dute parte, baita Iubilo Bilbao abesbatzak ere. Zortzi kantu abestu-

ko dituzte; hain zuzen, Fernando Velazquezek eta Jon Sarasuak *Humanity at music*-erako gertatutako guztiak. Horretan lagun izango dute Arrasate Musikaleko orkestra, eta Leizarra musika eskolako dantzariak eta Jaiki elkarteak hainbat dantza eskainiko dituzte. Xabi Igoak, ostera, bertsotan egingo du.

Umore ukituak ere izango ditu emanaldiak: "Kooperatibetako hiru herritarren bizipenak jaso dira, eta emanaldi benetan polita geratu da", jakinarazi du Javier Marcosek.



Aretxabaletako trialsin-gunea. AITOR AGIRIANO

Gipuzkoako Trialsin txapelketa domekan

Aretxabaletako herri sarreran dagoen trialsin-gune berrian jokatu da Gipuzkoako trialsin txapelketa. Gunearekin "oso pozik" daude Aretxabaletako Oztopo trialsin taldeko kideak, eta gaur hasiko dira txapelketako oztopen markak egiten

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletan, trialsinean aritzen direnentzat gune berria zabaldu dute. Arrasatetik Aretxabaletara bidean, herri sarreran, ezkerrean geratzen den eremuan dago gunea, eta kirol horrekiko zaletasuna dutenek erabilera handia ematen diote. Aretxabaletako Oztopo trialsin taldeko kideez gain, Euskal Herri osotik entrenatzera joaten direla adierazi du Aitor Murua Oztopo trialsin taldeko entrenatzaileak: "Oztopo trialsin taldean haur eta gazte ugari daude, eta Unai Zunzunegik eta nik entrenatzen ditugu, beraien gurasoen laguntzarekin. Poliki-poliki taldea handitzen joan gara urteen poderioz, eta gune berriarekin zaletasun hau konpartitzen dutenak batzeko aproposa da. Izan ere, oso ondo prestatuta dago. Hori horrela, aste honetan, esaterako, Irene Caminos Tolosatik etorri da. Jon Areitio hondarribiarra ere askotan etortzen da bertara entrenatzera; Irundik,

Durangotik... eta bailarako herrietatik ere hurbiltzen dira hainbat txirringululari".

Gune erreferente eta prestatua
Aitor Murua Oztopo trialsin taldeko entrenatzaileak adierazi duenez, gune berriaren beharra zuten, eta orain, oso pozik daude taldekideak: "2010ean, Aretxabaletako hilerri alboan jarri ziguten gunea, baina txiki geratu zitzaigun; euri apur bat egiten bazuen, sekulako lokatza sortzen zen bertan, eta ezin zen ibili. Udan soilik aritzen ginen. Oraingoa, aldiz, oso ondo prestatuta dago, eta taldeko kideak oso gustura gaude". Tamaina ugaritako harriak, kamioien gurgopilak, egurrak, edukiontzia...

TRIALSIN-GUNE BERRIAK EUSKAL HERRIKO PILOTU EZBERDINAK ERAKARRI DITU

dituzte trialsin eremu guztian banatuta, bizikletarekin triki-mailuak egiteko. Batez ere Kanpazar harrobiaren laguntza izan dutela eta beste hainbat enpresari materiala eskatuz atondu dutela gunea adierazi du Muruak.

Gipuzkoako txapelketa

Aretxabaletako trialsin-gunean Gipuzkoako trialsin txapelketa jokatu da domeka honetan. Gaur hasiko dira oztopen markak egiten eta zapatu-rako prest izango dute, txapelketa aurretik pixka bat probatzeko.

"Hiru proba egongo dira. Probak independenteak dira, baina sailkapen orokorrean parte hartzeko hurrak egin beharko dituzte parte hartzaileek. Gure taldeko sei edo zazpi animatuko gara. Julen, Gorka eta Alvaro, esaterako, benjamin mailan emaitza oso onak lortzen ari dira. Hala ere, domekako txapelketan, gure helburu nagusia ondo pasatzea izango da".

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen faseko saioa, zapatuan, Arkupen

17:00etan hasiko den kanporaketa saioan, sei bertsolari izango dira oholtza gainean

I.B ARETXABALETA

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen faseak hamalau saio izango ditu, hamalau herritan, eta zapatu honetan, hamargarren saioa Aretxabaletan jokatu da, Arkupen aretoan, 17:00etan hasita.

Oholtza gainean sei bertsolari izango dira kantuan: Manu Goio-gana, Endika Igarzabal, Izarne Zelaia, Peru Aiartza, Julene Iturbe eta Ainhoa Agirreazaldegia bergararra. Azken hori saioko debagoiendar bakarra izango da. Aurkezlea, berriz, Itziar Etxezarreta izango da.

Sarrerak egunean bertan

Berto saiorako sarrerak egunean bertan erosi beharko dira, Arkupen leihatilan. 16:00etan hasiko dira sarrerak saltzen, eta prezioak honako hauek izango dira: Gipuzkoako Bertsotale elkarteak bazkideek eta 6 eta 16

urte bitartekoek bost euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, berriz, zazpi euro.

Berrizbeitia, ezin sailkatu

Maiatzaren 12an, pasa den domekan, Altzon jokatu zen saioan, Martin Berrizbeitia bertsolari aretxabaletarra izan zen oholtzan. Gipuzkoa Bertsotan txapelketako sailkapen fasera aurkezten den lehen aldia izan da, eta esperientzia ederra izan dela adierazi du. Hala ere, 286,5eko puntuazioarekin, ez zen sailkatu: "Txapelketara aurkezten naizen lehen aldia izanda, gustura aritu nintzen. Bertsolarien maila ere ona izan zen, eta, sailkatu ez nintzen arren, esperientzia polita izan dela esango nuke. Ea zapatuan ere Arkupen areto-ko saioa ederraz gozatzeko aukera izaten dugun eta aretoa betetzen den".

Agur Herri Artekoari

Hamasei urtean parte hartu barik egon eta gero, aurtengo taldea osatzea lortu dute, eta Herri Arteko Pilota Txapelketaren lehen faseko partidua jokatu dituzte. Zestoa izan zen aurkari eta Aretxabaletako taldeak ez zuen ezer egiteko aukerarik izan. Hala ere, pozik daude. "Urte batzuetarako taldea badagoela uste dut", adierazi du Juan Mari Errasti entrenatzaileak.



MIRARI ALTUBE

Potx eta Lotx pailazoan 'Etxean' lana etzi, domekan

Potx eta Lotx pailazoak domekan izango dira Arkupen, *Etxean* izeneko azken ikuskizuna aurkezten. 17:00etan hasiko da saioa, eta sarrera hiru euro da. Gai ugari landuko dituzte pailazoek ikuskizun horretan, eta, oraingoan, etxean geldituko dira, osabak irten beharra izan duelako. Hala ere, bisitari ugari izango dituzte...

Loramendi Euskara Elkartea hezitzaile bila ari da

Loramendi Euskara Elkartek ludotekako koordinatzaile-hezitzaile eta Gazte Zoro eta Hizkuntza Errefortzu proiektuetarako hezitzaileak behar ditu. Euskalduna eta bigarren mailako lanbide heziketa, gradua edo diplomatura-lizentziatura izatea eskatzen da. Interesdunek curriculum bidali dezakete loramendielkartea.eus helbidera.



1993an Fernando Eskoriatzako plazan sokamuturra egin zenekoa. ESKORIATZAKO ARGAZKI ARTXIBOA

Sinadura bilketa abian, sokamuturra antolatzen

San Pedro jaietan sokamuturra antolatzen gogoz dago Eskoriatzako gazte talde bat. Aurtengo egitaraua ia itxita, datorren urtera begira sinadurak batzen hasi dira, eta eskuorriak taberna hauetan daude: Akeita, Urrestilla, O'Dogherty, Aldatz eta Naira

Imanol Beloki ESKORIATZA

San Pedro jaietako egitaraua antolatzen hainbat bilera egin dituzte jai batzordeko kideek. Urtero moduan, Udaleko eta herriko elkarte eta eragileetako ordezkariak zein norbanakoak batu izan dira, hamabost egunean behin, ekainaren 28tik uztailaren 1era bitarteko jaiak antolatzen. Hala, egitaraua ixten ari diren arren, Eskoriatzako gazte batzuek proposamen bat zabaldu dute herriko hainbat tabernetan, eta baita sare sozialetan ere. Garai batean egiten zen moduan, jaietan sokamuturra antolatzearen gaineko iritzia jaso nahi dute herritarrengandik.

"Aurten ezinezkoa izango zagu sokamuturra antolatzea San Pedro jaietan, denbora aldetik justu ari garelako, aurrekontua eginda dagoelako... Hala ere, lagun talde batek ilusioz hartu dugun ekimena da, eta herritarren iritzia jaso nahi dugu soilik. Badakigu jendea alde egongo dela, eta beste batzuk ez. Hori

horrela, gustuko duenak sinatu dezala eskuorria eta gustuko ez duenari errespetua eskatu nahi diogu", adierazi du proposamena helarazi duen lagun taldeko Ane Arraeta eskoriatzarrak.

Eskuorriak, tabernetan

Herritarrek interesatuta dauden edo ez jakiteko helburuarekin hasi dute sinadura bilketa. Akeita, Urrestilla, O'Dogherty, Aldatz eta Naira tabernetan daude bete beharreko eskuorriak. Hala, maiatzaren amaieran sinadura guztiak batu, eta interesa dagoela ikusten badute, jai batzordeari eta Udalarari helaraziko diete herritarren eskaera, datorren urtera begirako San Pedro jaien egitarauaren barruan so-

ESKAERA HELARAZI DUEN TALDEAREN HELBURUA AHALIK ETA SINADURA GEHIEN BATZEA DA

kamuturra antolatu dadin. "Sare sozialetan polemika pixka bat sortu da, normala den moduan, baina gure asmoa ez da polemika sortzea. Soilik iritzia jakin nahi dugu, eta, oraingoz, sinadura dezente batu ditugula esan dezakegu, eta hori da gure helburua. O'Dogerthy tabernan, esaterako, sinaduraz betetako hiru orri badituzte jada..."

Ohitura berreskuratzeko nahian Sokamuturra sanpedroetan oso ohikoa izaten zen, eta frontoi inguruan zegoen arboladian egiten zen. Herriko plazan ere urte askoz egin izan da, eta eskaera hau martxan jarri dutenek ez dutenez bizi izan, ilusioz daude ekintza gauzatzeko: "San Pedro jaietan zein Inauterietan zezentxoak eta poneyak izaten ditugu, baina ez da berdina. Ez dugu sokamuturra Eskoriatzan ezagutzeko aukerarik izan... Gure asmoa ekainaren 29rako, San Pedro egunerako, goizean goiz antolatzea izango litzateke".

Olazarko erretiratuak Aginaga sagardotegira doaz bihar

Bazkaria egiteaz gain, Tolosako merkatua eta beste hainbat leku bisitatzeko aprobetxatuko dute irteera

I.B ESKORIATZA

Urteroko hitzordua gauzatzeko dute Eskoriatzako Olazar Erretiratu Elkarteko kideek zapatu honetan. Hain zuzen ere, Aginaga sagardotegira irteera. Eder to bazkaltzeaz gain, hainbat herritan egingo dute geldialdia. "Sagardotegira egiten dugun irteera honek arrakasta handia izaten du beti. Elkarteko kideak gogotsu egoten dira eguna noiz helduko, gainera. Ederto tratatzen gaituzte; beraz, hainbat urtez goaz errepikatzen leku bera", adierazi du Pedro Her-

nandok, Olazar Erretiratu Elkarteko presidentea.

Autobusez joango dira irteerara, eta 08:30ean jarriko dira martxan. Lehenbizi, Tolosako merkatuan egingo dute geldialdia. Han, buelta bat emanaz, bertako produktuak ikusteko aprobetxatuko dute. Gero, Tolosatik Donostiarako bidea hartuko dute, eta bertan, txikiteoa egingo dute bazkal aurretik. Aginaga sagardotegian bapo jan ostean, berriz, Zarautzera joango dira. Paseotxo bat egin ostean, Eskoriatzara bueltatuko dira.

Udaero aisialdi ekintza prestatzeko bilera, domekan

Uztailean nerabeei zuzenduta egiten den Udaero programa prestatzeko bilera egingo dute domekan, Eskoriatzako gaztelekuan. Batzen diren gazteen artean proposamenak egin eta uztailean zehar egingo dituzten ekintzen zerrenda osatuko dute.

Udaero Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuek elkarrekin antolatzen duten udako

aisialdi eskaintza da. 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago, eta, iaz egindako egitarauarekin gustura geratuta, aurtengorako ideia zaparrada egingo dute domeka honetan, gaztelekuan, 18:00etan batuta. Iaz, Mutrikura joan ziren egun-pasa, eta bertan, igerileku naturalean aritzeko aukera izan zuten, Urdaibaira ere egun-pasa egin zuten eta kayakean ibiltzeko aprobetxatu zuten, besteak beste. Hala, aurten ere halako irteerak antolatuko dituzte.



I.B

Chiapasko egoera hizpide

EskoZap eta Lumaltik Herrira elkarteek antolatuta, *Zapatisten altxamendutik 25 urte geroago* izeneko hitzaldia izan zen eguaztenez kulturaren etxean. Hizlaria Fray Bartolome de las Casas giza eskubideen zentroko Rosa Estela Rodriguez izan zen, eta Chiapasko historia, egindakoak eta lortu nahi dituzten helburuak jakinarazi zituen, besteak beste.

Azokara produktuak eramateko epea, zabalik

Maiatzaren 26an 11:00etatik 14:30era bitartean bigarren eskuko azoka egingo dute Eskoriatzako plazan. Horrekin batera, postu solidarioa ere izango da, eta batzen den dirua VHL sindromearen ikerketari laguntzeko Sendabidea elkarteari bideratuko diote

Imanol Beloki ESKORIATZA

Maiatzaren 26an, udal hauteskunde domekan, izango da bigarren eskuko azoka, Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etatik 14:30era bitartean. Hainbat urtetan egin den moduan, denetarik saldu eta erosi ahal izango da azokan, betiere, egoera onean baldin bada eta bigarren eskuko baldin bada.

Mota guztietako produktuak eraman ahal izango dituzte herritarrek, eta prezioa produktua eraman duenak jarriko du. Hala ere, postua jartzeko mahai erreserba egin beharko da. Horrez gain, postua jarri nahi ez baina produktuak eman nahi dituztenek aukera izango dute horretarako, postu solidarioarako entregatuta.

Postu solidarioa

Herritar talde batek postu solidarioa jarriko du, eta bertan batuko den dirua Sendabidea elkartearentzat izango da -VHL sindromearen ikerketari laguntzeko elkartea-. Modu horretan, gaixotasun arraro hori ezagutzera emango dute, alde batetik, eta, bestetik, ikerketa proiektuak sustatzeko helburuarekin egingo dute diru-bilketa. Hori horrela, antolatzaileek parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrak.



laz egindako bigarren eskuko azokan. GOIENA

Bertan jartzeko produktuak kultura etxera eramateko epea maiatzaren 22tik 24ra bitartean izango da, honako ordutegi honetan: 09:00etatik 19:00etara. Postu horretan egongo direnek sailkatu eta antolatuko dituzte produktuak, eta baita prezioa jarri ere. Saltzen ez den materiala, berriz, berriro jasotzeko aukera egongo da, eta saldu ez eta bueltan jaso nahi ez dutenek, berriz, bertan utzi ahal izango dute; produktu horiek Emaus elkartearentzat izango direla adierazi dute antolatzaileek.

Mahai erreserba, ezinbestekoa

Nahi duenak postua jarri ahal izango du azokan, betiere, egoera onean dauden eta bigarren eskukoak diren produktuekin: arropak, liburuak, diskoak, altxariak, jostailuak... Horretarako, Udalak mahaiak jarriko ditu, baina beharrezkoa izango da mahai erreserba egitea.

Azokan parte hartu nahi duten interesdunek mahai erreserba dezakete kultur etxera deituz 943 71 46 88 telefono zenbakira edo mezua idatziz kultura@eskoriatza.eus helbidera.

Mailari eutsi diote seniorrek

Senior kategoriako lehenengo mailako Eskoriatza saskibaloitako taldeko emakumezkoek mailari eustea lortu dute. Goierriren aurka maila ez galtzeko bueltako partidua zazpi puntuko aldearekin galdu zuten pasa den asteburuan 47-40, baina, joaneokan hamahiru puntuko aldea atera zuten (49-36), maila berean jarraituko dute datorren denboraldian.



ESKORIATZA K.E



Maulanda jatetxea pasata lanak egiten izan dira. IMANOL BELOKI

Hondoratutako errepide zatia konpontzen ibili dira

Gatzagako bolatokiko sarrerako harresia eta semaforo ondoko petrila ere konpondu dituzte

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

GI-3310 errepidean, Eskoriatzatik Gatzagara bidean hainbat lan egiten izan dira Gipuzkoako Foru Aldundikoak. Errepide horretako zati baten lurzorua ezegonkor zegoen. Ez zen erabat leuna eta zirkulazioarentzat arrisku bat izan zitekeen. Hori horrela, konponketa lanak egiten izan dira egunotan.

"Foru Aldundikoak hainbat lan egiten ibili dira. Batetik, Maulanda jatetxea pasata, errepide hondoratuta izan da hainbat urtez, eta hori konpontzen izan dira. Horrekin batera, ere-

mu horretan, urari pasoa emateko lanak egin dituzte, eta, bide batez, harrizko pareta indartu egin dute", adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako alkateak.

Bi hormatan konponketak

Udazkenean, Gatzagako bolatokiko sarreran, harresiaren kontra, istripu bat izan zuen furgoneta batek, eta hor ere lanak egin dituzte harresia behar bezala uzteko. Goratxoago, berriz, semaforo ondoko petrila ere guztiz hondatuta zegoen eta hori behar bezala utzi dute egindako lanekin.



OIER ETXEBARRIA

Gatzagako gatza Lizarrara, oinez

Pasa den zapatuan, lau lagunek Gatzagako gatza eraman zuten, oinez, Gatzagatik Lizarraraino. Egitasmo hau egiten duten laugarren edizioa da, eta gatzaren mezularia izan den Oier Etxebarriak hauxe adierazi du: "Paisaia eta herri ederrak ezagutu ditugu, eta 76 kilometro gogoangarri izan dira. Hurrengoa antolatzeko motibatuta bukatu dugu ibilbidea".

Finalerdietara iristea, "oraingoz", helburu

Aurreko asteburuan ekin diote Aramaioko pilotariek Arabako Herriarteko txapelketari; 2-1 galdu zuten Amurrion. Aste honetan, Maeztun jokatuko dute. Garrantzitsua litzateke ligaxkan lan ona egin eta final-laurdenetarako Gasteiz eta Laudio saihestea

Julen Iriondo ARAMAIO

Kadete mailan irabaziz eta gazteen eta nagusien mailetan galduz ekin zion Aramaiok aurreko zapatuan Herriartekoari. 16-22 irabazi zuten Arriolabengoak eta Errastik euren partidua: "Hasi aurretik, garaipena zail ikusten zuen gure bikoteak, baina partidu ona egin zuten, eta irabazi", zioen Jon Herrarte entrenatzaileak. Beste bi partiduetan, berriz, emaitza bera izan zen: 2-2 galdu zuten bai Del Campok eta Kintanak eta baita Axpek eta Ruiz de Aldak ere. Hala ere, Herrarteren esanetan, nahikoa txukun jokatu zuten bi bikoteek; "pozik" zegoen.

Asteburuan izango da bigarren jardunaldia. Aramaioarrek Maeztun jokatuko dute: "Kadete mailan baditugu esperantzak; ondo jokatuz gero, irabazi dezakegu. Eta nagusietan, berdin". Bi partidu horiek bakarrik izango dira, gazte mailako Kintanak, eskuko minez, ezingo du-eta jokatu. Maeztuk ere 2-1 irabazi zion lehen jardunaldian Urkabustai-zi-aramaioarren multzoko laugarren herria-.

Maezturi bi partidua irabaztea -hirugarrena galdua du-, beraz, aurrerapausoa litzateke Aramaiok txapelketa honetan duen helburuari begira. Urka-



Pilotariak, aurreko astean Amurrion lehiari hasi aurretik. ARABAKO EUSKAL PILOTA ELKARTEA

ASTE HONETAN BI NEURKETA SOILIK JOKATUKO DITUZTE, KINTANA ESKUKO MINEZ DAGO ETA


bustaizek irabazi egin zuen partidu bat Maeztun, eta aramaioarrek ikusten dute Urkabustai hiru partidua irabazteko modua -hurrengo asteburuan, Aramaion-. Garrantzitsua litzateke hori, multzoko sailka-

penean bigarren geratu -Amurrion faborito argia da lehen posturako- eta final-laurdenetan beste multzoko lehen biak -Gasteiz eta Laudio, ziurrenik-saihesteko. Final-laurdenak Agurainen edo Guardiaren kontra lirateke, horrenbestez, eta, hasiera batean, aukera gehiago litzukete, horrela, finalerdietarako sailkatzeko.

Eta hori da, "oraingoz", helburua: "Taldea polita dugu, eta zerbait egin daiteke aurtentzen", dio Herrarterek. Hurrengo astean, gainera, taldera batuko da Olaiola, Kintanaren orde.

Aitor Ugarte bigarren, eta Gorbeialdeko topaketa gaur

Aurreko asteburuan jokatu zen Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, eta txapelkunorde geratu zen Aitor Ugarte, Aroa Arrizubietaren atzetik; biak sailkatu dira Euskal Herriko finalerako. Bestetik, Gorbeialdeko bertso eskolen topaketa egingo dute gaur -barikua- Aramaion. 17:00etan hasiko da, kultura etxean.



Arrizubieta eta Viñaspre. ABE

Txirritolaren ipuin lehiaketak baditu aurtengo sarituak

Hauek dira: Maren Abarrategi eta Manex Astola, 3. mailan; Ixiar Bikuña eta Eñaut Olaziregi, 4.ean; Hegoi Azkarate eta Ibai Garitaonaindia, 5.ean; Gailur Zubia eta Ildar Bengoa, 6.ean; Leire Vilches eta Leire Arrizabalaga, 12-18 urte artekoetan; eta hirukote bat -Manex Agirre, Xabi Igoa eta Maider Aldai- eta Maitane Gomez de Segura, nagusietan.



Saria jasotzen. JAGOBA DOMINGO

Zuhaitzen mozketak direla-eta ikerketa zabalik du Ertzaintzak

Ertzaintzatik adierazi dute ez dagoela berritasunik Kasatxo inguruan kaltetuta agertutako zuhaitzen kasuan, baina ikerketak zabalik jarraitzen duela. Aurreko astean salatu zuen Udalak -publikoki, eta Ertzaintzan ere jarri zuen salaketa-Kasatxo inguruan hamabi zuhaitzi "zentzu gabeko ebaketak" egin zizkiotela, motozerrarekin.



Zuhaitza, kaltetuta. ARAMAIOKO UDALA

40 bat ume Gorbeialdeko topaketan

Gorbeialdeko pilota topaketaren Aramaioko aurtengo saioa egin dute -aurreko domekan-, eta 11-12 urtera arteko 40 neska-mutiko inguruk hartu dute parte.

Kuadrillako herrietakoak
Kuadrillako herrietako umeek hartzen dute parte topaketan; urtean hainbat egiten dituzte, herriz herri. Aramaiokoarekin gustura geratu ziren denak.



Gorbeialdeko pilota topaketa, aurreko domekan. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Bisita gidatua eta abestia, Bizente Goikoetxeari buruz

Bizente Goikoetxearen bizitza eta obra gogora ekartzea izango da ekimenaren helburua. Bisita gidatua Amillenako lagunek egingo dute, batetik; horrez gain, baina, Durangoko Begi Argiak abesbatzakoek ere hartuko dute parte, eta azalpenen artean kantuan egingo dute. Bihar, zapatua, izango da, 18:00etan, Bizente Goikoetxea plazan.

OHARRAK

Jaietako kartela

Lanak hilaren 28ra arte aurkez daitezke. Hiru kategoria daude: 15 urtera arte, 16-59 eta 60tik gora.


Udalekuetan begirale

Hilaren 24a baino lehen eman behar da izena, ludotekan.

Martxoaren 8az, gaur

Balorazio bilera eta argazki emanaldia, 19:00etan, Sastiñan.

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2019





Xabi Gorostidi ARRASATE

Ikusmin handia dago, maiatzaren 26ko udal hauteskundeen bueltan, Arrasateko bazter guztietan. Alderdiek asko dute jokoan, eta herritarren botoen koloreak hipotesi asko argituko ditu.

Gakoak

Prentsaurreko eta lapurreta uholde baten epizentroan eman beharko dute botoa arrasatearrek, eta, ezbairik gabe, segurtasunaren aferak zeresana emango du. Interpretazio politikoak alde batera utzita, datuak hor daude: azken bi urteetan, lapurreta kasuek nabarmen egin dute gora –tabernetan eta komertzioetan, nagusiki–, eta, lapurren aurka ia 200 aktuzio egin diren arren, haiek aske geratzen jarraitzen dute eta lapurreta kasuek ez dute behera egiten. Normala den legez, herritarrak eta merkatariaiek kezkatuta daude, eta horrekin lotuta bi alderdi nagusiek gaiarekin dituzten jarre-ak azaltzeko agerraldiak egin dituzte.

Hurrengo lau urteei begira jarrita, Musakolako kiroldegia berritzea izango da proiektu na-

Lehen aldiz bi emakume daude alkate izateko lehian

Lehia estua espero da EAJren eta EH Bilduren artean alkatetzera eskuratzeko; apirilaren 28an, 99 boto gehiago jaso zituzten jeltzaleek, baina udal hauteskundeak beste kontu bat dira. Arrasate Aurrerak berritasun ukitua jarriko du, babes nahikoa lortu ostean

gusietako bat, eta aurreproiektua duela bi hilabete eman zen aditzera. EAJrentzat "proiektu izarra" da, eta EH Bildu hura berritzeko prest azaldu da; ñabardurekin eta kirol eskaintza deszentralizatzeko apustu eginez. PSE-EEk programa barruan sartu du, eta "estrategikotzat" jo. Elkarrekin Podemoseko partaideak berritu beharrekin ados azaldu ziren, baina "eromena"

EAJ-K AGINTALDIKO LANA JARRI DU BERME GISA ETA EH BILDUK, LANTALDE "PRESTATUA"

eta "zorakeria" hitzak erabili zituzten aurreproiektuaren kostua definitzeko. Hala, kiroldegia berrituko dutela ziurtzat jo daiteke, baina arrasatearren botoek definituko dute nola.

Aparkalekuek, oinezkotzeek eta igogailuek ere eman dute zeresana. Agintaldi honetan onartuta geratu da datozen hamarkadako mugikortasuna definitzen duen Mugikortasun Plana. Horrekin lotura duten proiektu garrantzitsuak ere aurkeztu dira –Ekoboulevard-a, Monterron eraberritzeko proiektua edo Erguingo igogailu sistema– eta 2019-2023 agintaldiak TAO sistema herrian hedatzen hasteko aukera eman dezake.

Bost alkategai; bi berri

EAJn Maria Ubarretxenak errepikatuko du alkategai gisa, eta, GOIENARI aitortu dionez baldintza bat jarri zion alderdiari berriro alkategai izateko: bere lantaldearekin aurkeztea. Agintaldian izan duten lantaldearekiko berritasun batzuk izango ditu zerrendak: Juan Karlos Garitano eta Amaia Aspiazu zerrendako azken postuetara

PSE-EE-K GILTZA IZAN NAHI DU, BALEIKE ETA IRABAZI BATUTA DOAZ ETA ADI ARRASATE AURRERAREN AUKEREI

pasa dira eta euren ordezkariak Edurne Unamuno, Maitane Muñoz eta Eugenio Uribarren izango dira lehen zazpien artean.

EH Bildu buru berriarekin dator: Maider Morras. "Barne prozesu demokratikoa" egin ostean aukeratu dute, eta lantalde eraberritua du atzean. 24 lagunekin zerrenda aurkeztu zuten martxo bukaeran, eta bertan, azken agintaldiko bi zinegotzik bakarrik errepikatzen dute. Kezka sortzen dieten gaiei heltzeko jende oso "prestatua" dutela azpimarratu du Morrasede.

PSE-EEen, berriz, sorpresa gutxi. Oscar Garcia izango da euren hautagaia, beste behin, eta sozialistek izan berri dituzten emaitza onei heldu nahi diete, Gobernurako "giltza" izaten jarraitzeko.

Elkarrekin Podemos markaren babespean aurkeztu dira Baleike eta Irabazi, elkartuta "emaitza hobea" lortu ahal izateko.

Azkenik, Arrasate Aurrera herritarren zerrendak 500 sinaduratik gora batu ditu hauteskundeetan parte hartzeko. Horiak boto bihurtuz gero, aukerak lituzkete ordezkari izateko.



GAKOAK ARRASATEN

SEGURTASUNA

LAPURREN AFERAK KANPAINA ZIPRIZTINDU DU GOITIK BEHERA

KIROLDEGIA

ALDERDI GEHIENAK ADOS, BERRITZEKO BEHARRAREKIN; EZ, ORDEA, FORMAREKIN

ERAIKINAK

MONTERRON JAUREGIA ETA ELMA, ALDERDI NAGUSIEN JOMUGAN

MUGIKORTASUNA

MUGIKORTASUN PLANA ONARTUTA, TAO SISTEMA HEDATU DAITEKE

AUZOAK

GEHIENEK AIPATU DITUZTE KANPAINAN ETA EUREN BOTOAK GAKO IZAN DAITEZKE



MARIA
UBARRETXENA CID

- Zumarraga. • 38 urte.
- Arrasateko alkatea.

"Administrazioan tenpoak motelak dira"

"Hor daude Juan Arzamendi Musika Etxea eta Kulturola. Lehena martxan dago jada. Kulturolaren kasuan, ez digu astirik eman lanak hasteko ere. Denbora luzeko proiektua da, eraikin babestua... tramiteek luze jo dute, eta uda ostean hasiko dira lanak. Alkate postua lortu eta gutxira esan nien teknikariei: 'Nola ez dugu eraikin bat berrituko lau urteko epean?'. Hala da, eta onartzea kostatzen da".

"Inoiz baino gehiago behar dugu kiroldegi berri bat"

MARIA UBARRETXENA CID EAJ-KO ALKATEGAIA

Xabi Gorostidi ARRASATE

Oposizioan aritu ostean, 2015ean hauteskundeak irabazi eta alkateza lortu zuen.

Lau urte egin dituzu Arrasateko alkate. Pertsonalki, zer-nolako lau urte izan dira zuretzako?

Sekula izan dudana lanik zailena izan da, baina, aldi berean, politena ere bai. Intentsitate handiko lana da, dedikazio handia eskatzen duena. Baina lan aberasgarria ere bada; aukera ematen dizu zure herria gertutik eta sakonago ezagutzeko, jendearekin harremana areagotzeko eta herria hobetzeko.

Zertan asmatu duzue?

Ez dakit asmatu dugun, baina ahalegindu gara entzute aktiboa egiten. Denbora hartu dugu horretarako; elkartzea eskatu diguten guztiekin egon gara, gu

ere hurbildu gara jendearengana... Eta, horrez gain, duela lau urte eman genuen hitza bete egin dugu. Proiektu batzuk egin go genituela esan genuen; egin da edo egiteko bidean daude.

Asmatu ez duzuenik?

Alderdien arteko harremanak, uste dut. Denok ahalegindu gara harreman ona edukitzean. Herriarregandik sumatu izan dut eskaera bat, gure artean ados jartzeko, bereziki, herriarentzat garrantzitsuak diren gai horietan. Herrigintzan alderdien artean adostasunak lortzeak ez luke hain zaila izan behar; ika-miken jokoan sartzen gara eta gure gain hartzen dugu dagokigun erru zatia. Denok dugu asko hobetzeko politikarion arteko harremanetan, eta errespetuan.

Lau urte hauetako ikasgairik handiena?

Konturatzea, eta benetan ulertzea, proiektu komunitario bat aurrera ateratzeko jende guztiari entzun behar zaiola. Izen-datu ezin dezakedan pertsona batek honako gomendio hau eman zidan: "Askotan, gehiago entzun behar zaio zure aurka dagoenari, zure alde dagoenari baino". Oso gomendio garrantzitsua da politikariontzako.

Arrasateko alkateza berreskuratu duzu, eta, horrez gain, gaitasun

"EZ DUT ALDERDIAREN PARTETIK ESKAINTZARIK JASO; EZ NAIZ EZER NIRE LANTALDEA GABE"

komunikatibo sendoak dituzu kamera aurrean, jende aurrean... Jaso al duzu eskaintzarik alderdiaren partetik goi-kargu baterako?

Ez naiz ezer atzean dudana lantalderik gabe. Niri dagokidanez, ez dut inolako eskaintzarik jaso. Ni alkategaia banaiz, alderdiak hala erabaki duelako da. Baina aitortzen dizut baldintza bat jarri nuela berriz alkategai izateko: nire taldearekin aurkeztea. **EAJren hiru proiektu garrantzitsuenak hurrengo agintaldirako?**

Gizarte Zerbitzuetan, aitortza bat jaso dugu, Espainiako hirugarren udalerrria izan garela biztanleko egindako inbertsioan. Alor hau oso garrantzitsua da guretzat, eta horren aldeko apustua tinkoa egiten jarraituko dugu. Seguratasunarekin lotuta, seguratasun mahai bat sortzea planteatzen dugu: udaltzainekin, Ertzaintzarekin, merkatariekin eta Gizarte Zerbitzuetako langileekin. Eta, nola ez, Musakolako kiroldegi berria. Arrasatek aspalditik du beharra, eta orain, inoiz baino gehiago. Eta irisgarritasunarekin lotuta, igogailuak jarri nahi ditugu: Erguinen eta Santa Teresan.

"Arduratzen gaituzten gaiei heltzeko talderik onena dugu"

MAIDER MORRAS AZPIAZU EH BILDUKO ALKATEGAIA

X.G. ARRASATE

2011-2015 agintaldian Bildurekin gobernatu ostean, lau urte egin ditugu udal zereginetatik kanpo. Orain, Eneko Barberenaren lekukoa hartu du.

Gutxi falta da udal hauteskundera. Nola heltzen zara?

Ondo eta ilusioarekin. Momentu zail eta delikatuak pasa dut arlo pertsonalean, baina gogo handiarekin nago. Talde oso ona daukagu, eta motibatuta gaude Gobernu berreskuratzeko.

2011-2015 agintaldian Udalean egin zinen, baina azken honetan ez. Nola ikusi duzu agintaldia distantziatik?

Gobernuaren egiteko modua asko aldatu da. Ni egon nintzen agintaldian, gehiago absolutua genuen, baina gure helburua beti zen oposizioarekin adosta-

sunetara heltzea, eta garden jokatzea. Baina kanpotik ikusi dut Gobernu honek ez duela horrela jokatu, eta agintaldi honetako Bildukideen erreleboa jaso dugunean, are garbiago ikusi dut hori. EAJk eta PSE-EEk akordioetara iristeko izan duten borondate falta horrek eragin garbia izan du udal batzordeetan, zinegotzien arteko harremanetan eta baita udal langileekin duten harremanetan. **Zer egin du ondo Gobernuak? Eta zer gaizki?**

Komunikazio lan itzela egin dute, eta martxa bizian izan dute beti euren komunikazio makineria. Saldu, primeran egin dute. Eraikinak ere, oso ondo. Guk sekulako afera izan genuen Aprendices desblokeatzeko, eta EAJ Gobernua jarri eta hiru

hilabetera, gaia desblokeatuta. Denok dakigu zer dagoen horren atzean. Ostera, benetan gaizki egin dutena, nire ustez, herria benetan ondo joan dadin zaindu beharreko gauzak albo batera utzi dituztela da.

Adibidez?

Lehenik eta behin, seguratasuna. Ostean, herri eragileekin harremanak. Eta, era berean, ukiezin den ondarea: feminismoa zero, euskara zero, kultura zero, gazteria zero. Eta ez dezagun

"SEGURTASUNA HOBETU BEHAR DA, ARRASATE 80KO HAMARKADARA ITZULTZEN ARI BAITA"

ahaztu langabezia-tasa, Deba-goieneko altuena baitugu.

Zer du Arrasatek hobetzeko?

Seguratasuna hobetu behar da; Arrasate 80ko hamarkadara itzultzen ari da. Eta ostean, ongizatea, merkataritzaren, komertzioaren eta ostalaritzaren berpiztea, gazteriaren aukerak eta pentsiodunen egoera

Gobernura helduz gero, zein hiru neurri hartuko zenituzke?

Seguratasunarekin lotutakoak gain, merkatariekin eta ostalariekin elkartzeko PERari buelta bat emateko eta herriari bizia emateko ekimenak lantzeko. Emakume Txokoa Monterron jauregian kokatzea, eta LGTBI kolektiboaren dinamika gehitzea. Eta kirolari dagokionez, kiroldegi berri bati, baina kirola deszentralizatzea ere bai. Musakolako pixka bat xumeago genuke, eta bertan aurreztutakoarekin Iturripen gune indartsu bat eta auzoetan kirola egiteko guneak jarri.

Ze emaitza espero duzue?

Onak izango ditugula uste dut, batez ere, arduratzen gaituzten gaiei heltzeko talderik onena eta prestatuena dugulako.



MAIDER
MORRAS AZPIAZU

- Arrasate. • 43 urte.
- Abokatua.

"2015ean galdutakoa irabazi behar dugu"

"2015ean, ez genuen asmatu zerrendak aurkezteko prozesuan, eta orain, beste era batera egin dugu. Horrez gain, nolabait esateko, puztutako emaitza batetik gertozten, historikoki izan dugun emaitzarik onenetik. Askotan izan ziren agintea gaitzeko faktoreak, baina oso argi daukat duela lau urteko hauteskundeak ez zituela EAJk irabazi; guk galdu genituen. Eta orain egin behar duguna da: guk irabazi".



elkarrekin
PODEMOS

IGOR URIZAR
MURGOITIO

- Arrasate. • 31 urte.
- Zerbitzaria.

"Gure alderdia justizia sozialaren aldekoa da"

"Indar handiena etxebizitzaren arloan jarriko dugu, alokairu sozialean enfokaturik. Horretaz gain, auzoetan, bitzita berreskuratu eta bitzita komertziala berreskuratu dezaten lan egingo dugu. Eta parte-hartzearen arloa indartzea proposatuko dugu, horretarako batzorde bereizi bat sortuz, beste udal batzuetan dagoen moduan. Alderdi horietan eragin nahiko luke gure taldeak".

"Ezkerreko proposamen apurtzailea aurkeztu dugu"

IGOR URIZAR MURGOITIO ELKARREKIN PODEMOSEKO ALKATEGAIA

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Bigarren aldiz aurkeztuko da Urizar Arrasateko Udalerako alkategai Elkarrekin Podemos koalizioarekin. Zinegotzi jarduteak instituzioak ezagutzeko balio izan diola dio.

Errepikatu egingo duzu. Samur konbentzitu zaituzte?

Alderdi berri bat gara, eta gehienak ez gara politika munduan ibilitakoak; hortaz, ulertu dugu lau urte hauetan politika munduan hartu dugun esperientzia garrantzitsua dela. Nabarmendu nahi dut nire azkeneko lau urteak izango direla; izan ere, gure kode etikoa agertzen da gehienez zortzi urte egongo garela instituzioetan.

Nolakoak izan dira lau urte hauek? Pertsonalki, nahiko onak izan dira, jende asko ezagutzeko au-

kerak izan dudalako. Politika mailan, instituzio barrutik ezagutzeak oinarri bat ematen dizu. Ilusio handiko hautagaitza bat ginen orain dela lau urte; maiatzaren 15eko olatutik gertozen, eta talka handia izan da instituzioetan sartzea. Alde batetik, ilusioa dago; baina, bestetik, gauzak eraldatzeko instituzioak dituen aukerak daude.

Zuen hainbat proiektu gauzatu dira agintaldi honetan.

Guk oposiziotik egin dugu lan; horregatik, guk proposatu ditugun eta landu ditugun gaiak, askotan, ibilbide motzekoak izan dira. Aurrekontu parte-hartzaileak, pobrezia energetikoaren aurkako mozioa eta memoria feministaren berreskuratzearan proposamena aurrera atera ditugu.

Zure herria hobetzeko ze hiru neurri hartuko zenituzke?

Justizia sozialaren aldeko alderdia gara. Hori horrela, eta Arrasaten dagoen langabeziarekin, titulatu gabekoen langabezia plan bat proposatzen dugu. Bestalde, etxebizitzaren kontua arazo sozial handienetako batenez, batez ere, alokairuaren ikuspuntutik, gure asmoa ekin-tza plan zabal bat aurkeztea da. Azkenik, auzoen sailak batzorde bereizi bat izatea eskatuko dugu.

"GAUZA BAT DA EZKERRA ZARELA ESATEA ETA BESTE BAT DA EGITEN DITUZUN POLITIKAK"

Ezkerreko hiru aukera egongo dira hauteskondeetan Arrasaten. Nola eragingo du horrek?

Gauza bat da ezkerreko zure politikek eta ekintzek esaten dutena. Gure proiektuarekin koherente jokatu, ezkerreko proposamen apurtzaile bat aurkeztuko diegu Arrasateko herritarrei.

Nola baloratzen dituzu apirilaren 28ko emaitzak?

Era gazi-gozaan. Bazegoen eskuin muturraren igoerari beldurra, eta boto erabilgarria eman da, alderdi sozialistari. Gainera, eskuineko alderdi horiek botoaren bila etorri ziren -Oreterara, Altsasura...- eta horrek polarizatu egin du egoera, EH Bilduren alde. Horretaz gain, gure aldetik, autokritika egin beharko genuke, ezkerreko botoa mobilizatzeko gehiago egin beharko genukeelako.

Feministatzen duzu zeure burua?

Saiatzen naiz borroka feministaren aliatu izaten. Sistema patriarkalari eta kapitalistari ondoen aurre egiten dion mugimendua. Badugu zer ikasi feminismoaren antolamenduz.

"Musakola berria eta geltoki intermodala egin gura ditugu"

OSCAR GARCIA HERRILLO PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Eneko Azkarate ARRASATE

Oscar Garcia Horrillo (Arrasate, 1979) obretako, zerbitzu eta auzoetako zinegotzia izan da azken agintaldian EAJrekin eratutako koalizio Gobernuan. Gobernu aukera berrietarako "gertu" daudela dio.

Udal Gobernuan egindako ze gauzarekin zaude bereziki pozik?

Makatzeko igogailua izan da 35 urtean eskakizun garrantzitsuena. Gure programako punturik garrantzitsuena zen, eta, negoziazioan mahaiaren gainean jarri ostean, azkenean, egin dugu.

Gobernu bakar ala bi izan dira?

Ikuspuntu ezberdineko bi alderdi ezberdineko Udal Gobernu bakarra izan da. Pentsaeraz, alderdi ezberdinak, baina bate-lan egin dutenak.

Zer da zure herritik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Jendea da Arrasaten dugun altxor preziatuena. Kontuan izanda ikuspuntu, pentsaera, kultura, bizitzeko era... askotarikoak gara. Eta gutxien, geroago eta gutxiago diren gutxi batzuen izaera.

Zuenean zeinek egiten ditu etxeko lanak?

Neska-lagunaren eta neure artean, bion artean.

Emakumeen aldeko aldarrikapenak indarra hartu dute azkenaldian. Zeure burua feministatzen duzu?

Ez zait askorik gustatzen berba hori. Izan ere, pertsonak gara ezerean gainetik. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erabateko eta errealik ez dago, eta, horrenbestez, emakumeen alde borrokatu beharra dago.

Hori feminista izatea bada, baina.

Datozen urteetako zuen lehentasunak?

Gizarte politiketan eragin nahiko genuke. Askotan inbertitzen du Arrasateko Udalak horretan, baina beste modu bateko politiken bidez eraginkorrak izan gaitezke. Hirigintzan ere bai. Agintaldi honetan asko aurreratu dugu, baina aurrekoetan ez, eta Arrasate modernoagoa, atseginagoa eta erosoagoa gura badugu, hirigintza alorrean lan

"ARRASATEN EZKERREKO KOALIZIO BATEK LAN EDERRA EGINGO LUKE, DENA DA POSIBLE"

gehiago egin behar dugu; batez ere, irisgarritasunaren aldetik. **Ze gauza edo proiektu zehatz egin nahiko zenuke zure herrian datozen lau urteotan?**

Musakolako kiroldegi berria. Bestetik, garraio publikoaren dako geltoki intermodala ere behar du Arrasatek, eta Arrasateko parkearen ingurua izan daiteke toki egokia. Horrek ahalbidetuko liguere herrian hainbat kale oinezkoendako bihurtzea, bidegorri sarea eta garraio publikoa indartuz.

Alkate izango bazina egingo zenituzkeen lehen hiru gauzak?

Kiroldegi berriaren gaineko alderdien mahai eratu, memoria- eta bizikidetzaren mahaia berrindartu eta gizarte ongizate saila berrantolatu, zerbitzu publikoak indartuz.

EAJrekin gobernatzeko aukeraz gain, beste aukerarik ikusten duzu?

Zergatik ez? Edozertarako gertu gaude. Arrasaten, ezkerreko koalizioa gobernu batek lan ederra egingo luke. Aldez aurreko arazoak daude hori lortzeko, baina dena da posible, urratsak egin daitezke...; keinu batzuk nahikoak dira.




PSE-EE
PSOE

OSCAR GARCIA
HERRILLO

- Arrasate • 39 urte.
- Kooperatibako bazkidea.

"Lau urteotan ni neu ere aldatu egin naiz"

"Arrasateri buruz duela lau urte neukan ikuspegia eta orain daukadana ezberdina da. Izan ere, ni neu aldatu egin naiz. Orduan, beharbada, sutsuagoa nintzen. Oposizioan gauzak modu batera ikusten dira; Gobernuan lanean diharduzenean, beste perspektiba batekin. Esaterako, duela lau urte, hiri hondakinak lur azpian gordetzekoaren aldekoak ginen; orain, konturatu gara hori horrela egitea ez dela bideragarria".



**NOELI
GAVILAN TEJADA**

- Arrasate. • 32 urte.
- Enpresaria.

"Delinkuentzia murriztu egin behar da Arrasaten"

"Arrasate lehen zen modukoa izateko delinkuentzia murriztu egin behar da. Gainera, egun euritsuetan gure seme-alabek jolasteko guneak egokitzea ere bada behar handi bat; jolas parkeak estaltzea, adibidez. Aparkaleku irisgarriagoak sortzeko ere egingo nuke lan. Horrez gain, herri garbiagoa izateko neurriak hartuko nituzke, oro har: errekek, espaloiak, edukiontzia, parkeak...".

"Arrasatear guztien ongizatea hobetzeko egingo dut lan"

NOELI GAVILAN TEJADA PP-KO ALKATEGAIA

Jokin Bereziartua ARRASATE

Arrasateko udalbatzako PPren azken ordezkaria Itziar Lamarain izan zen. 2011ko udal hauteskundeetan nahikoa boto jaso zituen Lamarainek zinegotzi jarduteko, baina, Arabako Diputazioan Kultura eta Euskara diputatu izateko eskaria jaso ostean, "penaz" utzi zion Arrasateko zinegotzi zion izateari. PPK ez zuen ordezkorik jarri eta 2015ean ez zuten ordezkartzarik lortu. Joera horri buelta emateko aurkeztuko da Noeli Gavilan arrasatearra; egun, Gasteizen bizi da.

Itziar Lamarain izan zen PPK Arrasaten izan zuen azken ordezkaria. Pozik zaudete haren lanarekin?

Itziar Lamarainek lan handia egin zuen Arrasateren alde eta hari erreleboa hartzeko asmoa

daukat. Horretarako, arrasatearrei entzutea izan beharko da egin beharreko lan handiena.

Nork konbentzitu zintuen alkategai aurkezteko?

Aukera eskaini zidaten eta ez nuen bitan pentsatu. Beti bizi izan naiz Arrasaten eta izugarri gustatzen zait. Beraz, onena nahi dut nire herrirako eta helburu horretan laguntzeko nire eskutik jarri eta 2015ean ez zuten ordezkartzarik lortu. Joera horri buelta emateko aurkeztuko da Noeli Gavilan arrasatearra; egun, Gasteizen bizi da.

Zer da Arrasatek gehien gustatzen zaizuna? Baduzu txoko gustukorik?

Arrasatek denetarik du. Komertzioak, igerilekuak, jendea, parkeak... Nire jaioterria izango da betirako. Santa Barbara eta Monterron dira herriko nire txokorik gustukoena.

Kanpotar bati zer erakutsiko zenioke Arrasate ezagutarazteko?

Alde zaharra erakutsiko nioke, eta Herriko Plazara heltzeko dituen kale estuak.

Badakizu euskaraz?

Hobetu egin beharko nuke, baina hitz egiten badakit.

Zure etxean nork egiten ditu etxeko lanak, orokorrean?

Bion artean egiten ditugu. Hala ere, ni enpresaria naizenez, ordu asko egiten ditut etxetik kanpo; askotan, senarrak egiten du lan gehiago etxean.

"EZ NAIZ FEMINISTA, INONDIK INORA; EMAKUME GUZTION IRITZIA ERRESPEATU EGIN BEHAR DA"

Feministatzen duzu zeure burua?

Ez naiz feminista, inondik inora. Ni justua naiz eta aldarrikatzen dudana da ekimenak batarendako zein bestarendako modu berean sustatu behar direla. Autonomia naiz eta Martxoaren 8an lanera joan nintzen. Hori bai, mobilizazioak errespetatzen ditut eta uste dut badirela modua berdintasuna lortzeko eta soldaten arrakala gaitzitzeko. Hori esanda, emakume guztion iritzia errespetatzea da garrantzitsua.

Zure aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Irakurtzea, paseatzea eta naturaz gozatzea.

Nola baloratzen duzu hauteskunde orokorrean izan zenuten emaitza?

Arrasatearren iritzia errespetatzen dut. Arrasatearrek jakin behar dute guztien ongizatea hobetzeko egingo dudala lan.

Arrasateko alkate izango bazina, zer egingo zenuke lehendabizi?

Hasteko eta behin, oposizioarekin jarriko nintzateke harremanetan akordio zabalak lortu ahal izateko. Nire helburua da arrasatear guztiendako lan egitea.

"Alkate izango banintz, nire soldata jaitziko nuke lehenik"

RAMON UGALDE GOROZTIZA ARRASATE AURRERA! PLATAFORMAKO ALKATEGAIA

Eneko Azurmendi ARRASATE

Erretiratuta dago, baina 38 urtez Geografia eta Historiako irakaslea izan da EAEn hainbat institututan, azkeneko 25ak Arrasateko Institutuan.

Zer dela eta erabaki zenuten zerrenda berri hau aurkeztea?

Arrasateko Udalaren urteetako politika ikusi ondoren, konturatu ginen jende askok bat egiten zuela guk egiten genuen diagnostikoarekin, eta proiektu hau gauzatzen hasi ginenean berehala konturatu ginen jendea ilusionatzen hasi zela, gutxien espero genuen esparruetatik, gainera. Askok gara pentsatzen dugunok Arrasateko Udalean dauden alderdiek ez gaituztela ordezkatzeko eta, halaber, ikusten dugu herria gainbehera prozesu batean erortzeko arriskuan da-

goela. Ideia berriekin funtzionatzeko proposamen berriekin gatz, gure helburua ekarpen positiboak egitea da, Arrasatek aurrera egin dezan.

Zer da zure herritik gehien gustatzen zaizuna?

Arrasatek gehien gustatzen zaidana errebeldia grina da, oraindik, zorionez, bizirik dagoena, nahiz eta batzuk saiatu espiritu hori itzaltzen edo debideratzen.

Alkate izango bazina egingo zenukeen lehen hiru gauzak?

Lehenik eta behin, nire soldata jaitzi. Bigarrenik, arau absurdoen zerrenda egin eta prozesu bat abian jarri neurri horiek kentzeko. Azkenik, bizilagunak defendatzeko figura sortu.

Zure alderdiak zein alorretan, eragin nahi du, bereziki, lau urteotan?

Arrasate Aurrera! ez da alderdi politiko bat, bizilagun batzuek sortutako plataforma bat baizik, eta, bereziki, ondoko alorretan azpimarratuko du bere jarduna, besteak beste: hirigintza, irisgarritasuna, mugikortasuna elkarbizitzarako espazioak, estetika eta patrimonioaren defentsa; herritarren parte hartzea gehitzeko neurriak; herritarrei ahalik eta informazio gehien eta modu ulergarrian ematen saiatuko gara, eta gastatzen den dirua kontrolatzen saiatuko gara.

"GURE HELBURUA EKARPEN POSITIBOAK EGITEA DA, ARRASATEK AURRERA EGIN DEZAN"

Euskarari lehenetsua ematen diozue? Sustatuko duzue?

Bai. Gure zerrendan aurreneko laurak elebidunak gara. Oro har, 13 elebidun eta zortzi erdaldun gara. Gure programan Arrasateko identitatearen defentsa daukagu, eta, beraz, euskara berreskuratzeko eta erabilera handitzeko AEDren eta Txatxilipurdiren lana oso ondo ikusten dugu.

Ingurumena garrantzitsua al da zuentzat?

Oraindik, etxe askotako ur zikinak errekaratzen doaz zuzenean, eta arazo hori konpondu egin behar da, eta ur zikin horiek saneamendu sarera bideratu. Bestalde, herriko lorategietan daukagun landareak eta zuhaitzak ondo zaindu behar ditugu, izurriteak eta gaixotasunak identifikatu eta sendatzeko neurriak hartu. Inausketa zakarrak, ahal bada, ekidin.

Mugikortasuna nola landuko duzue?

Mugikortasuna eta irisgarritasuna oso garrantzitsuak dira. Auzoak erdigunearekin modu egokian lotzea eta mugikortasun murrizteko pertsonen leku gehiagotara iristeko aukera eman behar zaiela uste dugu.



**ARRASATE
AURRERA!**

**RAMON
UGALDE GOROZTIZA**

- Arrasate. • 61 urte.
- Irakasle ohia, erretiratua.

"Inportantea da gure herria nola aurkeztu"

"Gure esku badago, berehala kenduko dugu Arrasateko Udaleko webgunean dagoen Arrasateko aurkezpena. Modu askotan aurkeztu daiteke Arrasate, baina gure asmoa da idazte lehiaketa bat zabaltea herritarren artean. Izan ere, oso idazle onak daude, bai euskaraz eta bai erdaraz. Guztien artean hobereana aukeratzea da gure asmoa, eta, ondoren, Arrasaten ditugun hizkuntza ezberdinetara itzultzea".



Jokin Bereziartua BERGARA

Esan gabe doa asko dagoela joan maiztaren 26ko udal hauteskundeetan. Kanpaina erdialdera heldu da dagoeneko eta hamaika izan dira Bergaran aurkeztuko diren bost indarrek egin dituzten ekitaldiak.

Agintaldi berrirako zenbait gako

2019tik 2023ra arteko agintaldirako badira bergararrei zuzenean eragingo dieten proiektu esanguratsu batzuk. Lehena, zalan-tza barik, EAJk eta PSE-EEK osatu duten Gobernuarentzat "proiektu izarra" den seminario lur azpiko parkinga.

Irabazik hasieratik esan zuen proiektu horren kontra zegoela, mugikortasun ikuspegitik "20 urte atzera" egitea zela iritzita. EH Bilduk uste du Bergarak behar duela erdigunean aparkaleku bat, baina "behin eta berriz" eskatu dute mugikortasun aldetik "azterketa sakon bat" aparkaleku berriak non egin erabakitzeke. Era berean, kolektorera lanak hasi eta berehala proiektuaren kontra agertu zen Aranzadi Ikastolako guraso talde bat, *Patixuan apar-*

EAJ eta EH Bildu oso estu, eta alkategai bakarrak errepikatu

Lehia oso estua espero da EAJren eta EH Bilduren artean; 2015eko foru eta udal hauteskundeetatik apirilaren 28koetara arte EH Bildu izan da nagusi, 2016ko Espainiako hauteskundeetan izan ezik. Aiert Lizarralde izango errepikatuko duen alkategai bakarra

kalekurik ez! izenarekin. Egun-go Gobernuak argi dauka euren esku badago parkinga egingo dutela; ikusteke dago Gobernu aldaketarik balego proiektuak aurrera egingo duen edo ez.

Mugikortasunarekin estuki lotuta doan beste proiektu bat da Mugertza, Zubieta eta Masterrera ardatzarena. Hiru kale horietako bizilagunek proiektu integral bat eskatzen dute au-

EAJ-K EDO EH BILDUK IRABAZIKO DU, BAINA EZBERDINEN ARTEKO AKORDIOAK BEHARKO DIRA GOBERNURAKO

zoaren irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko; finean, hiru kale horiek urbanistikoki XXI. mendea ezagutzea eskatzen dute. Gaur-gaurkoz, ez dago finantziatorik lotuta ardatz horretarako.

Beste proiektu esanguratsu bat izango da Agorrosin Berriarena. Gutxienez 30 urte behar izan dute Bergara Kirol Elkartek eta Udalak Agorrosin udalekotezko akordio batera iristeko: BKEk 26 urterako dohaintza emango dio Udalari Agorrosin eta Udalak konpromisoa hartzen du, beranduenez, 2023rako berdegunea artifiziala egiteko. Azkenik, Labegaraieta kiroldegia berritzeko agintaldia ere izango da hurrengo. Lanak hastear daude.

Bakarrak errepikatuko du

2015eko udal hauteskundeekin alderatuz gero, Irabaziko Aiert Lizarralde izango da alkategai moduan errepikatuko duen bakarra. Elena Lete alkatea lehenengoz aurkeztuko da EAJko alkategai bezala; EH Bilduk Gorka Artola proposatu du, Bergarak izan dezakeen inoizko alkaterik gazteena; PSE-EEren aukera Alberto Alonso oñatiarra da eta

IRABAZI ETA PODEMOS EZ DIRA BATERA AURKEZTEN, ETA EMAITZETAN EZ DIE MESEDERIK EGINGO

Ahal Dugu-Podemosek Jose Maria Sasieta proposatzen du; Bergara izango da eskualdeko herri bakarra Irabazi eta Podemos batera aurkeztzen ez direna. Barne liskarrak izan dituzte, eta aurreikustekoa da horrek ez diela batera mesederik egingo.

Sorpresa duela lau urte

2015eko udal hauteskundeetan EAJk sorpresa eman eta irabazi egin zuen: 3.145 boto eta zortzi zinegotzi. EH Bildu izan zen gau hartako galtzaile nabarmena: 2.835 boto eta zazpi zinegotzi. Irabazi izan zen hirugarrena, eta 670 boto jasota zinegotzi bat lortu zuten. PSE-EEK 379 boto jaso zituen, Mari Carmen Barrenetxea zinegotzi izan ahal izateko nahikoa boto. PPK, 83 boto jasota, ez zuen ordekaritarik lortu. Orain PP ez da aurkeztzen baina Ahal Dugu-Podemos bai, lehenengoz.

Maiatzaren 26ra begira lehia ezin estuagoa espero da EAJren eta EH Bilduren artean. 2015eko udal eta foru hauteskundeetatik egunera arteko hauteskunde guztietan, 2016ko Espainiakoetan izan ezik, EH Bildu izan da nagusi, betiere, oso boto gutxigatik.

GAKOAK BERGARAN

MUGIKORTASUNA

SEMINARIOKO PARKINGAK ZERESANA EMANGO DU ORAINDIK ERE

KIROLDEGIA

HASTEAR DAUDE LABEGARAIETA BERRITZEKO LANAK, 2021ERA BITARTEAN

KULTURA

ARRIZURIAGAREKIN ZER EGIN ZEHAZTU BEHARKO DU GOBERNU BERRIAK


AUZOAK

INBERTSIO HANDIAK BEHAR DIRA XX. MENDEAN GERATU ZIREN AUZOETAN

KIROLA

UDALEKOTU OSTEAN, AGORROSIN BERRIA EGITEKO AGINTALDIA DA HURRENGOA





ELENA
LETE GARCIA

- Bergara. • 54 urte.
- Arkitekto teknikoa.

"Agintaldi oparoa izan da, hitza bete dugu"

"Oso agintaldi oparoa izan da, eta eman genuen hitza bete dugulako harro nago. Zabor bilketaren sistema, Boluko frontoia, Seminarixoa aretoa, Larramendiko industrialdea, Agorrosingo harmaila... Ausartak izan gara eta herritarrekin konpartitu ditugu erabaki horiek; hogeitik gora izan dira partaidetza prozesuak eta bi herri galdeketa egin ditugu, lotesleak izan direnak. Eta hori guztia egin dugu oposizioaren aurkako jarrera iraunkor batekin".

"Eztabaida antzuetan erori barik erantzun diegu beharrei"

ELENA LETE GARCIA EAJ-KO ALKATEGAIA

Jokin Bereziartua BERGARA
2016ko urtarriletik alkate izan arren, lehenengoz aurkeztu da Elena Lete alkategai. "Esperientzia ikaragarri oparoa eta bizia" izan da alkate izatea, eta gogotsu dago beste lau urtez zeregin horretan jarraitzeko.

Zergatik botoa eman EAJri?

Bergararren beharrak ulertu egin ditugulako lau urte hauetan, eta egoki erantzun diegulako, zalaparta eta eztabaida antzuetan galdu barik. Erabaki eraginkorrak hartu ditugu proiektuak egingarri bihurtzeko.

Lehen indarra izanez gero, norekin osatuko duzue Gobernua?

Lehen indarra izateko esperantza dugu talde eta programa oso onak aurkezten ditugulako. Ezin badugu Gobernua guk bakarrik osatu, programa bozka-

tuenetik gertuen dagoen beste edozein alderdirekin gobernatzeko prest gaude. Ez da gure nahia garrantzitsuena, baizik eta herriarena.

Lehia estua izango da EH Bildurekin...
Hala dirudi. Azken 40 urteetan EAJko edo ezker abertzaleko alkateak egon dira, bakarka edo koalizioan. Ez dago Bergaran hirugarren alderdi indartsurik.

Ze proiektu duzue esku artean?

Orokorrean, herriaren aktibitatea suspertzen duten proiektuak gauzatu beharko genituzke; hau da, proiektu traktoreak. Izaera horretako proiektua izango da San Martin plaza berriro urbanizatzea. Honekin guztiz lotuta dago seminarioko lur azpiko parkinga; ziur gaude hori ere proiektu traktorea eta bizitasun suspertzailea izango dela.

Bergara hobetzeko ze hiru neurri proposatzen dituzu?

Gizarte arloan hirugarren adinak izan behar du lehenetasuna. Haiendako zerbitzuak hobetu eta aberastu behar ditugu, premiak gero eta handiagoak direlako. Bigarrenik, aktibitatea sortzeko, indartzeko eta egonkortzeko, gune industrialak berpizteko urratsak egingo ditugu, Candy-rekin egin dugun moduan; agian, hurrengo agintaldian, Tavex zaharra berrera-biltzeko aukera izango dugu.

"ZIUR GAUDE LUR AZPIKO PARKINGAREN PROIEKTUA BIZITASUN SUSPERTZAILEA IZANGO DELA"

hobetu daitezke; kale garbiketa indartu, irisgarritasunean eta kirol eremuetan hobekuntza txikiak egin, herritarren eta Udalen arteko harremanak erraztu...
Denbora librean zer egiten duzu?

Etxean, bizikletan edo autoan konponketa txikiak egin, bizikletan mendi buelta bat eman edo motorrean kostaldera joan.

Feministatzat duzu zeure burua?

Zalantzarik gabe, gizon bezala lanketa pertsonal sakonagoa egin, jarrera batzuk aldatu eta pribilegio batzuei uko egitea egiteke dudak zerbait bada ere.
Zuenean zeinek egiten ditu lanak?
Ez diet beldurrik plantxari, garbigailuari eta garbitzeko produktuei; robot xurgagailua inbertsio ona izan zela aitortu behar dut...
Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Umeak kalean lasai jolasean ikusi nahi ditugunok, helduek zerbitzu eraginkorrak izatea nahi dugunok, aisialdiaz gozatu nahi dugunok, gazteek euren aukeraz baliatzeko aukera izan dezaten, Bergara anitza eta zabal nahi dugunok lan handia dugula aurretik. Baina gustuko tokian aldaparik ez, eta gure onena ematera gatoz.

Eta hirugarrena da –edo lehenengoa, ez dakit zehazten– 30 urtez zain egon garen aparkalekua egitea, erdigunean egitea eta hori izatea inguru guztiko aktibitatearen bultzatzailea.

Zer esango zenioke kanpotar bati zure herriaz?

Etor dadila ikustera, Deskargako errepidea bukatu denetik gertuago gaudela. Harro gaude gure herriaz, baina harrokeriarik gabe. Asko jaso dugu iragantetik, baina ez gara konformatzen jasotakoari eustearrekin. Ekintzaileak gara, gehiago nahi dugu, herri honek merezi du.

Feminista zara?

Noski. Ezberdintasunak iraun artean feminista izango naiz.

Nork egiten ditu etxeko lanak zurean?

Etxeko lanak eta heziketa orekan oinarritu dira gurean. Hori bai, alkate naizenetik, nire senarrak ardura gehiago hartu ditu.

Ezer gaineratu nahi?

Edozein zerrendatan aurkezten diren herritarrei eman gura dizkiet eskerrak; horrenbeste aukera eta pertsona lanerako prest ikustea poztekoa da. Gaur egungo gizarte honetan ez da erraza pauso hori ematea.

"Lana argiago eta hobeto egiteko onena ematera gatoz"

GORKA ARTOLA ALBERDI EH BILDUKO ALKATEGAIA

Jokin Bereziartua BERGARA

Alkate irtengo balitz Bergarak inoiz izan duen alkaterik gazteena izango litzateke Gorka Artola.
Lehen indarra izango zarete?

Apirilaren 28ko emaitzak indartzera gatoz. Oso hautagaitza prestatua eta indarrez beteta datorrena daukagu. Bergaran gauzak efizienteago, argiago, parte-hartzaileago eta hobeto egin daitezke, eta bide horretan bidelagun izan nahi duenak atearak zabalik izango ditu.

Nola baloratzen dituzu zinegotzi moduan egin dituzun lau urte hauek?
Emankorreragoak izatea esperonuen, baina EAJren gobernatze-

ko moduak ez du horretarako aukera handirik eman. Proposamen ia guztiak landu gabe baztertzeko direla ikustea tristeza izan da. Ez diot beste inori opa

eta Gobernuan egonez gero ez dugu berdin jokatu.

Agintaldiko ze gauzagarrik zaude bereziki gustura edo harro?

Aurreko oposizio ereduak apurtu dugu. EAJren jarrera baztertzaitzailearen aurrean oposizio eraikitzaileak egiten saiatu gara, ideiak eta proposamenak egiten, gure helburua bergarar guztien ongizatean sakontzea delako. Elena Letek gehiengoak ematen duen agintea modu zatarrean erabili du, EH Bilduren proposamen onak baztertu ditu EH Bildurenak zirelako soilik. Hori ezin du alkate batek egin.

Alkate bazina egingo zenituzkeen lehen hiru gauzak?


Hasteko, herritarrei esan Udaleko atearak zabalik dituztela eta eurekin kontaktatzen dugula etorkizuneko Bergara eraikitzeko.

Bigarrenik, udal langileekin bilduko nintzateke gure egitasmo orokorrak azaltzeko, eta euren iritzia entzuteko. Hirugarrenik, gobernu programa osatzeko zereginen murgilduko nintzateke talde osoarekin batera.

Ze proiektu zehatz garatuko zenuke?

Egunero tristuraz begiratzen diot Arrizuriagako jauregiari; irtenbide duina eman behar zaio, proiektu kultural indartsua landuta. Hirugarren adineko bergararrekin ere badago zeregina... Egunerokoan ere gauza asko

"EAJ-REN JARRERA BAZTERTZAILEAREN AURREAN, OPOSIZIO ERAIKITZAILEA EGITEN SAIATU GARA"



GORKA
ARTOLA ALBERDI

- Bergara. • 30 urte.
- Irakaslea Lanbide Heziketan.

"Atzera begira bizi da Bergara, gelditu egin da"

"Kanpotar bati esango nioke ezagutu dugula Bergara dinamikoago eta alaiagoa. Gaur egun, atzera begira bizi da Bergara, izan zen horretara; gelditu egin da, indarra galdu du herri gisa Debagoienean. Baina, baikorra naizenez, kanpotar horri esango nioke beste Bergara bat eraikiko dugula; bizia, ederra, anitza, feminista, elkartzasunean oinarritua, bertako komertzio biziberritua izango duena, denok lan egiteko aukera izango duguna..."



ALBERTO ALONSO MARTIN

- Oñati. • 42 urte.
- Osalan-eko zuzendaria

"Herritar guztientzat gobernatu behar da"

"Ezberdin pentsatzen dutenak desagerraraztea helburu zuen talde terroristaren aurrean ideia sozialistak duintasun osoz defendatzen eta balore handiz aurrera eramaten jakin dute Mari Carmen bezalako pertsonak. Azken agintaldiari dagokionez, alderdi sozialista oinarritzko pieza izan da Udal Gobernuaren barruan egonkortasuna eta politika sozialak bermatzeko".

"Gure lehentasuna da behar handien dutenei laguntzea"

ALBERTO ALONSO MARTIN PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Amaia Zabala BERGARA

Alberto Alonso oñatiarrak 42 urte ditu eta Bergarako PSE-EEren alkategaia da. UGT sindikatura afiliatuta dago 17 urte zituenetik eta 2008an alderdi sozialistan afiliatu zen. Historian lizentziaduna, irakurle amorrata eta langileen eskubideen defendatzaile sutua da. Egun, Osalan-eko zuzendari orokorra da. Argi du bazterkeria egoeran dauden bergararrak babesteko politikak izango direla bere lehentasuna.

Zeinek eta zelan konbentzitu zintuen Bergarako alkategai izateko?

Ni neroni aurkeztu nintzen alderdian Gipuzkoako udal hauteskundeetako zerrendetan joateko, eta Bergaratik deitu zidatenean ez nuen bi aldiz pentsatu.

Zer da Bergaratik gehien gustatzen zaizuna?

Bergaratik gehien gustatzen zaidana bere historia da. Zentzu honetan, Oñatiren antz handia du. Kaleetatik paseatzean, mende askotako historia duen ondare baten parte sentitzen zara. **Ze proiektu egin nahiko zenituzke Bergaran alkate izango bazina edo erabakiak hartzeko aukerarik izango bazenu?**

Dudarik gabe, alkate bezala nire lehen neurria Udalean ordezkari izan dauden alderdi politikoko guztiak batzea eta herriarentzat lehentasuna duen programa bat adostea izango litzateke. Hauteskundeak irabaztea baino garrantzitsuagoa baita guztientzat gobernatzen jakitea. Izan ere, alderdi sozialistaren helburua da behar handien duten eta

bereziki gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonak babesteko politikak bultzatzea. Proiektu zehatz bat aipatzearen, jantoki sozial bat irekitzea gutatuko litzaziguke.

Bergara nolakoa dela azalduko zenioke kanpoko bati?

Bergara bizikidetzaren adibide argia dela esango nioke: nekazari mundua eta industria mundua alboan, tradizioa eta modernitate, etorri direnekiko eta bertan bizitzen jarraitzen dutenekiko hospitalitatea...

"SOZIALISTON HELBURUETAKO BAT DA LABEGARIAIETA ETA OZAETA AUZOAK HOBETZEA"

Nola deskribatuko zenioke Bergara kanpotik datorren bati?

Gure historian oinarrituta izatera burgesa duen herria izatearen adibide gisa Bergara monumentala erakutsiko nioke. Bestalde, inguruak ere erakutsiko nitzioke; adibidez, San Martzial-Goiauzo inguruak, goiko trenbidea eta Gorla ingurua. Eta amaitzeko, bertako jatetxeren batean edota elkarte gastronomiko batean bazkari edota afari-pasada bat egitera ere gonbidatuko nuke.

Zuen etxean norik egiten dituzte lanak? Etxeko guztion artean egiten.

Feministatzen duzue zeure burua? Egunero feminizatzen ari den pertsona bat naiz, eta oraindik badaukat bidea egiteko.

Nola ikusten dituzte Martxoaren 8aren bueltako mobilizazio handiak?

Oso ondo egon dira, kontzientzia pizten lagundu dute. Hala ere, arazoa erakundeetan dago; gai hau politikoki hipokrisia osoz erabiltzen da. Gizarte matriarkala egitean dago oinarria, eta hor lan asko dago egiteko, batez ere, hezkuntzan eta politikan. **Irabazik ze alorretan eragingo du bereziki datozen lau urteotan?** Ingurumenean eta ongizatean.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak zuzendaria zara (Osalan); bertako jakintza zure politikan aplikatuko duzu?

Bai, noski. Osalaneko zuzendari moduan, lan-istripu hilgarri edo larri guztien inguruan teknikariek egindako txostenak irakurtzea tokatzen zait, guztiak ikertzen baititugu. Istripu hauek guztiak saihestu zitezkeela ikusita, langile sektorearen alde lan egiteko nire barruko kontzientzia handituz doa. Bestalde, kargu honetan sekulako esperientzia lortu dut ardura handiko organismoak kudeatzen eta gobernatzen; aurrekontu itxiak, 170 langileren kudeaketa...

Feministatzen duzue zeure burua? Absolutuki.

Eta Euskaraldian parte hartu zenuen?

Bai, parte hartu nuen. Kontzientziazatzen datza, bide luze batean pauso bat gehiago ematea da.

Trump, Bolsonaro, Vox, eskuin muturrekoen gorakada... Ze iritzi duzu?

Behartsuen mehatxurik handiena atzeritarren direla diotenen aurrean porrot egin dugu. Ez gara gai izan bat egin eta etsaia ez dela kanpotik datorrena dioten kontzientzia klase bat sortzeko.

"Alderdi irabazleak ezin du Udalarekin gura duena egin"

AIERT LIZARRALDE ORTIZ DE ZARATE IRABAZIKO ALKATEGAIA

Jokin Bereziartua BERGARA

Bi seme-alabaren aita eta metaleko langilea ofizioz, duela zortzi urte sartu zen politikan. Equo Berdeak alderdian, Aiert Lizarralde Ortiz de Zarate.

Zergatik ez zarete Elkarrekin Podemos gisa aurkeztuko Bergaran?

Podemosen zerrendaburua aurreko agintaldian gure zerrendetan etorri zen eta herritarren partetik sekulako kritikak jaso genituen; gure baldintza bakarra pertsona hori zerrendan ez joatea zen. Horrela eskatu genion Euskadiko Podemosi, baina garbi esan ziguten euren estatutuen arabera herrietako zirkuluen gainetik ezin zutela ezer egin.

Nola eragingo du ezkerria inoiz baino zatikatuago aurkezteak Bergaran? Gauzak zaildu egiten dira; Podemosen boto gutxi jasotzea eta

Irabazik eta EH Bilduk EAJri eta PSE-EEri botoak kentzea espero dugu.

Ze proiektu zehatz gauzatuko zenituzte alkate izango bazina?

Udal politika demokratizatuko nuke. Ez da posible hauteskundeak irabazten dituen alderdiak Udalarekin nahi duen guztia egitea. Boterea herriak izan behar du, eta ez alderdi politikoen. Bestetik, Bergararen ekonomia erregai fosilekiko dependentzian oinarritzen da, eta, baliabide horiek agortzen hasi direla ikusita, Bergararen etorkizuna kolokan dago; gure bizitzak ekologizatu behar ditugu lehenbailehen. **Bergara hobetzeko ze hiru neurri hartuko zenituzte?**

Basogintza eredu berri batekin bioaniztasuna hobetzea, etxebizitza gehiago ez egin eta alo-

kairu sozialari bultzada ematea eta herriko mugikortasuna jasagarri bihurtzeko plana garatzea.

Zer da Bergaratik gehien gustatzen zaizuna?

Nahiz eta herri bezala asko hobetzeko izan, Bergara herri txiki baten eta hiri handi baten tarteko aukera bat da, eta horrek egiten du bizitzeko eroso. Ez da lasaiegia eta ez da azkarregia. **Bergarako txokorik gustukoena?** Goiauzo-San Martzial ingurua da herriko txoko kutuna.

"PODEMOSEKIN JOATEKO, EUREN ZERRENDABURUA EZ EGOTEA IZAN DA GURE BALDINTZA BAKARRA"



AIERT LIZARRALDE ORTIZ DE ZARATE

- Bergara. • 44 urte.
- Metaleko langilea.

"Gobernuak oso jarrera biolentoa izan du gurekin"

"Gobernuak ez digu ezer egiten utzi eta Udalarekin nahi izan duen guztia egin du; gurekin oso jarrera biolentoa izan dute. Ez da posible hauteskundeak irabazten dituen taldeak Udalarekin nahi duen guztia egitea. Boterea herriak izan behar du, eta ez alderdi politikoen. Gobernuaren jarrera autoritarioari aurre ondo egin diogula esango nuke, eta ikuspegi ezkeriar eta ekologista udaletxera eramateaz nago harro, bereziki".



JOSE MARIA SASIETA CORTA

- Bergara. • 55 urte.
- Aseguratuak ohia.

"Enpresa eraikitzaileei begira ez gara egongo"

"Uste dugu badaudela auzoak berriro urbanizatzeko beharra dutenak: Zubieta, Osintxu eta Martokoa, esate baterako. Horrez gain, auzo periferikoak eta erdialdea lotuko dituen garraio publiko eraginkorragoa behar dugu, eta baita gazteendako eta erretiratuendako lokal gehiago ere. Gu ez gara enpresa eraikitzaileei begira egongo, guk herritarren beharrei erantzuteko egingo dugu lan".

"Bi edo hiru zinegotzi lortuta, herritarren alde egingo dugu"

JOSE MARIA SASIETA CORTA AHAL DUGU-PODEMOSEKO ALKATEGAIA

Jokin Bereziartua BERGARA

Sukaldari eta aseguru-etxe bateko langile moduan lan egin ostean, Podemos sortu zenean politikan sartzea erabaki zuen Jose Maria Sasietak. Orain, udal hauteskunde batzuetara aurkezten den lehen aldia izan arren, bi edo hiru zinegotzi lortzea espero du.

Zergatik ez zarete irabazirekin batera aurkeztu? Nola eragingo du horrek emaitzetan?

Bergararako proiektuan ezberdintasunak izategatik ez gara batera aurkezten. Ikusiko da bergararrek zer erabakitzen duten, baina uste dugu ezkerreko gehiago bat egongo dela. **Lehenengoz aurkezten zarete Bergaran. Zenbat zinegotzi ateratzea espero duzue?**

Bi edo hiru zinegotzi lortuko ditugu eta gure asmoa da herri-

tarren alde gobernatuko duen programa sozial bat duten alderdiekin ituna egitea.

Euskaraz ez jakitea eragozpen handia al da zinegotzi izateko?

Ez dut uste eragozpen handia izango denik. Hala ere, ikasteko asmoa daukat.

Udal Gobernuaren lana jarraitu duzu? Zer iruditu zaizu?

Enpresa eraikitzaileei begira egon dira, herritarren beharrei erantzun beharrean.

Alkate izango bazina, ze hiru neurri hartuko zenituzke?

Hasteko eta behin, Udalean auditoria bat egingo genuke; ondoren, herritarrei begirako aurrekontu bat onartuko genuke; eta, hirugarrenik, Zubieta, Osintxu eta Martoko auzoak berriro urbanizatzeko proiektuak garatuko nituzke.

Kanpotar batek Bergara nolakoa den galdetuz gero, zer erantzungo zenioke?

Bergara historia handia duen herria dela esango nioke, eta hori bertako arkitekturan oso ondo antzeman daitekeela. Ez da herri handia eta horrek herritarren arteko harremanak errazten ditu. **Zer da Bergaratik gehien gustatzen zaizuna? Txokorik gustukoena?**

Bergaratik gehien gustatzen zaidana bergararrak dira, jendea. Usondo parkea da nire txoko gustukoena.

"FEMINISMOAK EZINBESTEKO ALDAKETAK EKARRIKO DITU GURE GIZARTERA, GELDIEZINA DA"

Zer egiten duzu aisialdian?

Azkenaldian, apenas daukat denbora librerik; dudan apurra lagunekin eta senitartekoekin partekatzea gustatzen zait.

Feminista zara? Zer egin zenuen Martxoaren 8an? Eta nola baloratzen dituzu egun horretako azken mobilizazio jendetsuak?

Bai, feminista naiz. Martxoaren 8an etxeko lanak egin nituen -gurean, amak, anaiak eta hirurok egiten ditugu etxeko lanak- eta arratsaldean manifestazioa joan nintzen. Feminismoak ezinbesteko aldaketak ekarriko ditu gure gizartera, geldiezia da.

Trump, Bolsonaro, Vox... zer ari da gertatzen?

Ultraeskuina hazten dabil, gezurra, beldurra eta krisi ekonomikoaren ondorioak oinarri hartuta. Gezurrak, behin eta berriz errepikatu ostean, jendearengan sartzen joan dira. Baina hori dira, gezurrak.

Azken mezurik helarazi nahi?

Nire asmoa da gaizki pasatzen ari diren bergararrentzat lan egitea. Udala izan behar da lan hori gidatu behar duena, eta horretarako aurkezten naiz.

José María Sasieta Korta
BERGARAKO ALKATEGAIA

**BERGARA
Zuekin
prest!**

**BERGARA
Zuekin prest!**
Biztanle agurgarria:

Begararako alkatetzarako hautagai gisa aurkezten natzaizu **Ahal dugu Podemosen** izenean. Konpromiso handiko talde batekin batera lan egingo dugu Udalean, Bergara bizitzeko leku aproposa izan dadin. Izan ere, bizitzeko leku bateko egoiliar izatea baino gehiago da; lan egitea da, erlazionatzea, zaintzea, zaindua izatea, gozatzea, parte hartzea. Horregatik, maiatzaren 26an Elkarrekin Podemosen-gan konfiantza izatera animatzen zaitut. Bergara bizitzaz betetzeko, feminismoan eta jasangarritasunean oinarrituta eta aukera-berdintasuna bermatuta.

José María Sasieta Korta

**BOZKATU AHAL DUGU
PODEMOS.**

Oihana Elortza OÑATI

Hiru alderdi aurkeztu dira maiatzaren 26an egingo diren Oñatiko udal hauteskundeetara: EH Bildu, EAJ eta PSE-EE. Hiru alderdietako zerrendaburuak, alkategaiak, emakumeak dira eta hirurak dira oñatiarrak: Iزارo Elorza Arregi, Ainhoa Galdos Olazar eta Aitziber Fernandez Azurmendi. Herriko alkate berria, beraz, emakumea eta oñatiarra izango da.

Esperientzia

Hiruren artean deigarriena, akaso, alderdi sozialistarena da, azken 24 urteetan ez baita hautagai oñatiarrik aurkeztu zerrenda horretan. Alderdia bera urtero aurkeztu da, baina azken alkategai sozialista oñatiarra Andres Arlanzon izan zen: bi agintalditan izan zen zinegotzi: 1991-1995 eta 1995-1999. Sozialistek, bestela, 2007-2011 agintaldian izan zuten azken ordezkaria udalbatzan, Blanca Roncal nafarra. Alderdi popularra ere joan den agintaldia arte aurkeztu izan da udal hauteskundeetara Oñatin, baina ez aurten. Azken zinegotzi po-

Hiru alderdi, hiru emakume eta hiru oñatiar alkatetzarako

Emakumea eta oñatiarra izango da herriko alkate berria eta herritarren botoak zenbatu ostean jakingo da nor: Iزارo Elorza Arregi (EH Bildu), Ainhoa Galdos Olazar (EAJ) edo Aitziber Fernandez Azurmendi (PSE-EE)

pularra Julio Perez de Arrilucea gasteiztarra izan zen 2007-2011 agintaldian.

Fernandez hautagai sozialistarendako lehen esperientzia izango da politikan, eserlekua lortuz gero. Elorzak ere ez du aurretik politikan jardun; bai, ordea, Galdos. Azken bi horien alderdiek, baina, EH Bilduk eta EAJk, ondo baino hobeto dakite herrigintza zer den eta ondo ezagutzen dute udal jarduna, alderdi biak urte luzez izan baitira udalbatzako kide; Udal Gobernua egotea eta oposizioan egotea, egoera biak bizi izan dituzte bi alderdi horiek.

Maiatzaren 26an jakingo da udalbatza berriaren eraketa.

**GAKOAK OÑATIN****HAUTESLEAK**

8.858 HERRITARREK IZANGO DUTE BOTO ESKUBIDEA

HAUTESLEKUAK

BOST GUNE EGONGO DIRA; HAMABOST MAHAI, GUZTIRA

KONTAKETA

UDALEKO BOTOEN KONTAKETA AZKENA IZANGO DA

O.E.

**IZARO ELORZA ARREGI**

- Oñati • 35 urte
- Ingeniarria

"Garraio publikoan hobekuntzak"

"Oñatiar askok herritik irteteko beti autoa hartzeko ohitura du, baina badira, baita ere, helmugako herrian aparkatu ahal izatea zaila dela ikusita, garraio publikoa gero eta gehiago erabiltzen dutenak. Lotura onak-eta sarri egongo balira, gehiago erabiliko genituzke autobusak. Eta proposamenen edo konpromisoen artean dugu lineak, maiztasuna eta Elorregiko geltokiko zerbitzuak hobetzea".

"Zeharkako politika feministak jarriko ditugu martxan"

IZARO ELORZA ARREGI EH BILDUKO ALKATEGAIA**Txomin Madina OÑATI**

Arrasateko MVE enpresan zuzendari teknikoa eta 6 eta 3 urteko bi alabaren ama; alkategai izatea da politikarekin duen lehen hartu-eman ofiziala.

Zenbat kostatu zitzaizun alkategai izateko proposamena onartzea?

Sorpresaz harrapatu ninduen, eta proposamena jaso eta denboratxo bat behar izan nuen hausnartzeko. Aurretik ere egin zidaten beste planteamendu bat, lan kontuengatik ezetz esan nio. Etxean egin nuen kontsulta, horrelako lan batek etxekoan babesa ere eskatzen duelako. Zergatik baietza? Banuelako gogo horrelako zerbaitetan inplikatzeko, eta etxean eta lanean ere animatu nautelako.

Zertan igarri beharko litzateke hurrengo alkatea emakumea izatea?

Berdintasunaren esparruan lehenengo pausoak ematen hasi gara, baina nik uste dut hori herrian arlo guztietan igarri beharko litzatekeela. Gure asmoa da politika feministak zeharka txertatu eta aplikatzea esparru guztietan. Espero dut hurrengo alkateak, emakumea izanda, izango duela sentsibilitate hori. **Zeintzuk dira momentu honetan Oñatik herri bezala dituen behar nagusiak?**

Gure programan lau zutabek dute garrantzia. Batetik, pertsonak erdigunean jarri gura ditugu: pertsonen duintasuna bermatu behar dugu; denok bizi behar dugu ondo. Horretan, hiru taldetan jarriko dugu fokua: gazteengan, helduengan eta aniztasun funtzionala dutenengan. Esaterako, laguntzak emango

dira etxebizitza eskubidea bermatzeko, eta irisgarritasun planarekin ere jarraituko dugu. Lan baldintzak hobetu; bertako merkataritza sustatu; eta zaintza duinak eta kalitatezkoak bermatu gura ditugu. Pertsonen askatasuna da bigarren zutabea, eta hor, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean bila, zeharkako politika feministak jarriko ditugu martxan; ezberdinen arteko elkarbizitzaren alde ere egingo dugu. Hirugarren zutabea kultura dugu: herritar

"PERTSONEN DUINTASUNA BERMATU BEHAR DUGU; DENOK BIZI BEHAR DUGU ONDO"

guztien eskura jarri nahi dugu, unibertsala izatea, eta euskara bultzatzen jarraituko dugu. Lagarren eta azken zutabea ingurumena dugu. Esparru horretan, mugikortasun jasangarriaren eta energia berriztagarrien alde egingo dugu eta landa eremuko beharrei erantzuteko gune bat sortuko da.

Gehiago osoa izan du EH Bilduk zortzi urtez. Horri eustea da zeuen buruari jarri diozuen helburua?

Ahal den heinean, bai! Badugu hori horrela izango den itxaropena, azken urteetan jendea gustura ikusi dugulako. Azken hauteskundeetan ikusi dugu jendeak EH Bildurekin jarraitzen duela; eta Espainiako Gorteetarakoak ziren. Udalekoetan ere hala izatea espero dugu, baina ezin gara erlaxatu eta lan egin beharko da maiatzaren 26rako jendea animatzeko.

Eta alkatea beharrezko oposizio berririk izateko bazez?

Lanean jarraitu beharko da: oposizio ona egin eta gure ideiak besteei ikustarazten saiatu. Beti izan dut buruan bi aukerak daukela, dena ez dugula eginda edo irabazita.



**AINHOA
GALDOS OLAZAR**

- Oñati. • 53 urte.
- Musika irakaslea.

"Berdintasunean asko dago egiteko oraindik"

"Feminismoan dudak konpromisoa handia da oso. Berdintasunean asko dago egiteko oraindik, eta hor egin behar da lan. Herri mailan berdintasun plana eguneratu gura dugu eta udal proiektuetan txertatu. Kontziliaziarako planak ere egin behar dira, langileekin, sindikatuekin eta enprekin batera elkarlanean. Emakumeen kontseilua indartu behar da eta lan munduan, adibidez, eskubideak berdinak izatea lortu behar dugu".

"Etorkizuneko Oñati eraikiko dugu elkarlanean"

AINHOA GALDOS OLAZAR EAJ-KO ALKATEGAIA

Oihana Elortza OÑATI

Musika eskolako irakaslea da Ainhoa Galdos (Oñati, 1966) 1989a ezkerro, baina badaki politikan jardutea zer den. Dio "arduraz" hartzen duela alkate izateko erronka. Herrigintza gustatzen zaiola aitortu du, eta lantalde sendo bat duela ondoan. Bi alaba ditu.

Asko kosta zitzaizun proposamenari erantzutea?

Azken lau urteak buru-belarri ibili naiz musika alorrean lanean eta ikasten, nire lanbidean. Politikara bueltatzea ez nuen baztertua, baina ez nuen espero proiektu berria hain jarraian etorriko zenik; gainera, alkate izateko erronka handiarekin. Txipa aldatu, eta baiezkota ematea erabaki nuen.

Zer esan dizute etxeok?

Asko animatu naute; alaba gazteenak, batez ere. Etxekoen babesa garrantzitsua da, indar handia ematen du horrek, ezinbestekoa da. Lagunen aldetik denetarik iritziak jaso ditut: batzuek ez dute ulertzen nola edo zergatik gustatzen zaidan herrigintza eta beste batzuek, ordea, aurrera egiteko animoak eman dizkidate.

Politika gertutik jarraitu duzue familian. Zeu ere ibilitakoa zara. Lagungarria izango zaizu esperientzia hori?

Bai, uste dut asko lagunduko didala. Oso harro nago orain arte politikan egin ditudan urteekin. Gustukoa dut herrigintza. **Zer behar ikusten dizkiozu Oñatiri?** Kudeatzeko eredua da EAJren zigilua, eta azken 30 urte hauetan alderdi jeltzaleak hartutako

erabakiek eta buruzagitzak lan handia egin dute Oñatiren alde. Lan horren emaitza da egungo Oñati: Turismo Bulegoa, Olaburu, parketxea, Arrikruz kobak, Santa Ana, gaztelekua, gizarte zerbitzuak, pisu tutelatuak eta Udal Euskaltegia, adibidez. Ekonomia aldetik, bai industrian, baita lurretan, lan handia egin da eta gizarte kohesionatua eta ekonomia indartsu lortu da, herritarren ongizatea bermatzen duena. Egia da egun Oñatin bizi kalitatea ona dugula, baina eko-

"EKONOMIARI LAGUNDU EGIN BEHAR ZAIO ETA HORI INGURUGIROAREKIN LOTU BEHAR DA"

nomiari lagundu egin behar zaio eta hori ingurugiroarekin lotu behar da. Eta kudeaketa aldetik herria nahiko geldo dagoela iruditzen zaigu, harago joan behar dugula. Herria biziberritu egin behar dugu eta etorkizuneko Oñati elkarrekin eraiki. Proiektu konkretuagoak aipatuz gero, uste dut kultura etxea txiki gelditu dela, eta Jose de Aspiazua musika eskolak ere badu berri-tu beharra. 450 ikasle daude, gutxi gorabehera, eta eraikina ez dago egoera onean. Datorren agintaldian, azterketa bat egin beharko genuke, etorkizuneko musika eskolak nolako eta non kokatuta egon beharko lukeen ikusteko. Egunko zentroan ere plaza gehiago behar dira.

Nolako gizartea gurako zenuke zure alabendako?

Errespetuan eta aniztasunean oinarritzen dena; bizikidetzara hori berreskuratzea ezinbestekoa da. Parte-hartzaileagoak izan behar dugu denok, geuk egin ekarpenak eta besteak entzun eta adostu. Pasatakoa ezin dugu ahaztu, memoria historikoa garrantzitsua da. Eta gure kultura eta euskara ahaztuko ez dituen.

"Bailara mailako tranbia bat egingo nuke, epe luzera"

AITZIBER FERNANDEZ AZURMENDI ALDERDI SOZIALISTAKO ALKATEGAIA

Eneko Azurmendi OÑATI

Michelin enpresan egiten du lan, kalitate arloan, eta lehen esperientzia izango du politika munduan. Oñatiarra izan arren, Mendozan (Araba) bizi da. **Zeinek eta zelan konbentzitu zintuen zerrendan joateko?**

Alderdi sozialistako hainbat kide ezagutzen ditut, eta komentatu zidaten ea Oñatin PSE-EE-ren alkategai izango ote nintzen. Hasieran, lekuz kanpo harrapatu ninduen proposamenak. Izan ere, politika munduan ez naiz sekula aritu. Denbora bat hartu nuen erabakitzeke, eta, azkenean, animatu egin nintzen.

Kosta egin zitzaizun alkategai izateko aukera onartzea?

Asko ez, baina ondo pentsatu behar izan nuen honek zer ekarriko duen niretzat, nolako

izango den... Hasieran, zalantza batzuk eduki nituen, baina aurrera egitea erabaki nuen.

Ze proiektu egin nahiko zenuke zure herrian, alkate izango bazina edo erabakiak hartzeko aukerarik izango bazenu?

Batetik, haurrendako jolastoki estali eta itxi bat sumatzen dut faltan. Ume asko dago herrian, eta ez dute non jolastu euria egiten duenean. Bestetik, alokairuko etxebizitza gutxi ditugu herrian. Gazteak ikastera etortzen dira, eta ez dute etxebizitzarik aurkitzen. Gabezia handia da hori. Babes ofizialeko etxebizitzari dagokionez, gutxi daude, eta prezioak oso garesti. Arlo hori hobetzeko proiektuak jarriko nituzke martxan. Horrez gain, mugikortasun arazoak ere azpimarratuko nituzke. Auto

gehiegi ditugu herrian, eta apartatzeko arazo handiak. Bizikletak sustatuko nituzke nik, eta alokatzeko aukera eman, Amsterdamen edo beste zenbait lekutan egiten duten moduan. Ibilaldi motzak egiteko, autoa etxean utzi, eta bizikletan mugitu batetik bestera. Modu horretan, gutxiago kutsatuko genuke. Azkenik, enplegua sustatuko nuke, eta lan-baldintza duinak bermatu.

Euskarari lehentasuna emango diozue? Sustatuko duzue?

"HAURRENDAKO JOLASTOKI ESTALI BAT SUMATZEN DUT FALTAN; UME ASKO DITUGU HERRIAN"

Oñati oso herri euskalduna da, eta euskara asko entzuten da. Ez daukagu euskararen gabeziarik, beste hainbat lekutan daukatena. Euskara indartsu dago hemen, eta guk lehentasuna arlo sozialari emango genioke, lehen aipatu dudan moduan. **Mugikortasunari dagokionez, zer dago hobetzeko Oñatin?**

Bidegorri aldetik, Oñati ondo dago. Gaizki daukaguna, nire ustez, San Prudentzioko autobus geltokia da -Elorregi auzokoa-. Oso isolatuta gaude, eta geltoki horrekiko dependentsia handia daukagu. Epe luzera begira, tranbia bat jarriko nuke nik, Debagoieneko herriak lotuko lituzkeena. Autobusak baino gutxiago kutsatuko luke, energia garbiagoa delako elektrizitatea, eta inguruko herriekiko komunikazioa asko hobetuko luke. **Udaletxean ikusiko zaitugu aurreantzean?**

Gustatuko litzaidake, baina ea hauteskundeetan herriak zer dioen. Oñatin sozialistak ez dira egon aspaldiko urteetan, Arlanzonon garaitik, baina esperantza ez da sekula galdu behar. Ikusiko dugu.



**AITZIBER
FERNANDEZ AZURMENDI**

- Oñati. • 44 urte.
- Kalitate arloko langilea.

"Diskriminazioak bukatu egin behar du"

"Gure herria ez da salbuespena. Matxismoarena eta indarkeria matxistarena arazo globala da, eta arlo horretan bide luzea daukagu egiteko oraindik. Lan asko egiten ari gara, baina gehiago egin beharra dugu. Adibidez, lan arloan, gizon gehiago daude lanean emakumeak baino, estatistikoki, eta lan bera egiteagatik emakumeek gutxiago kobratzen dute askotan. Diskriminazio hori bukatu egin behar da".



UNAI ELKORO
OIANGUREN

- Aretxabaleta. • 45 urte.
- Ingeniarria.

"Agintaldi polita izango da aurrez aurre duguna"

"Bukatzeran doan agintaldia lasaia izan da; horren aurrekoa nahiko iskanbilatsua, edo, behintzat, gorabeheratsua izan zen, eta oraingoan, lasaia izan dira lau urteak. Samurragoa da hala lan egitea, eta jendea gerturatzea ere bai. Egoera ekonomikoak, gainera, poliki-poliki hobera egin du lau urteotan; hortaz, bigarrenez errepikatuz gero agintaldi benetan polita izango dela ziur nago".

"Lehen arreta soziosanitarioan zentro aitzindaria egingo dugu"

UNAI ELKORO OIANGUREN EAJ-KO ALKATEGAIA

Mirari Altube ARETXABALETA

Alkate lanetan lehenengo agintaldia bukatzeaz duela, bigarreneko gertu eta gogotsu dago. **Bigarren agintaldirako aurkeztuko zara; gustura egon zaren seinale?** Bai, bai. Hasieran, nobedadea izan zen, guztia berria eta polita. Eta lehenengo hiru urteak ere oso onak izan ziren; azken hau, ostera, gogorragoa izaten dabil, hainbat konturengatik: kontratazio legearen aldaketa, hirigintza arloan hainbat baja... **Zein proiektu nahiko zenuke aurrera eramanez berriro alkate izanez gero?** Gure programan hainbat daude jasota. Hirigintzari dagokionez, esaterako, Santa Kurtz kaleko saneamendu eta ur-horniketaren lanei heltzeko garaia da. Eta horren beharra duen beste kale bat Lausitta da. Bestetik, Iturri-

gorri pilotalekua handitzeko asmoa dugu. Gero eta erabilera handiagoa du, eskola ere bertan dago, eta, Herriko Plazatik gertu egotera, aukera polita eskaintzen du eguraldi txarra egiten duenerako. Hirugarrenik, hor daude komentuen, zaharren egoitza ohiaren eta osasun etxearen eraikinak. Lehen arreta soziosanitarioan zentro aitzindaria egin gura dugu. Komentuen beheko solairuan Basotxo; eta gero, eguneko zentroa. Lehenengo solairuan hirugarren adinekoendako etxebizitzak, eta azpian zer egin oraindik ez dugu erabaki, Kurtzabarri eskolak adierazi digulako horren beharra izango duela. Osasun etxea, ostera, zaharren egoitza ohira eramango genuke, Osasun Sailak ere aproposa ikusten du eta;

beheko eta lehenengo solairuak izango lirake horrendako, eta bigarrena, Gizarte Zerbitzuen dako. Eta oraingo osasun etxearen gunea udal zerbitzuendako izango litzateke.

Bizitza duen herria da Aretxabaleta?

Nik uste dut baietz, baina garai batetik hona aldatu egin da bizitza hori. Lehen, eguerdi partean beteta egoten ziren kaleak bazkaltzera zetozenekin; orain, askoz enpresa gutxiago daude eta lo egiteko herri bihurtu da. Aretxabaletan bizi bai, baina

"GERO ETA ERABILERA GEHIAGO DUEN PILOTALEKUA HANDITZEKO ASMOA DAUKAGU"

gehienek kanpoan egiten dute lan; horrek ohitura aldaketa ekarri du.

Gero eta merkataritza gutxiago... Komertzioek gerra zaila dute Interneten aurka. Baina horiek falta izanez gero, bai hilko dela herria. Merkataritza biziberritzeke plan berezia (PERCO) jarriko dugu oraintxe abian merkataritza sustatze aldera.

Kiroldegia eta Ibarra futbol zelai leku barik... Herri kirolaria da?

Hala dirudi. Kiroldegian gune batzuk lepo daude, eta gimnasioa handitu egin gura dugu. Futbol zelaira ere jende mordo da, bai jokatzera, bai ikustera. Eta horregatik egin da futbol zelai berriaren eta pilotalekua handitzearen alde; hori bultzatzea ez dut uste txarra denik.

Zein kultur behar ditu herriak?

Saiatu gara kultura ekintza kopurua hazten, baita kalera ateratzen ere ekintzok, baina tentsazio gazi-gozoa dugu. Gure helburua zen herri giroa bultzatzea, bereziki, aste bukaeretan, baina badirudi korrontearen aurka gabiltzala askotan. Hala ere, horretan jarraituko dugu, asmatzea zaila izan arren.

"Herritarrentzako gune bat sortu nahi dugu komentuan"

ION ALBIZU GONZALEZ EH BILDUKO ALKATEGAIA

Mirari Altube ARETXABALETA

"Betidanik" sentitu izan du ingurua hobetzeko zerbait egin beharra, eta gaztetxo zela hasi zen lanean hainbat gizarte mugimendutan –gazteak, antimilitaristak, LGTB...-. Zinegotzia izan da lau urteotan, eta EH Bilduren bozeramailea; gertutik ezagutu du udal jarduna.

Alkatetzan lortuz gero zein alorretan eragin gura zenuke, bereziki?

Ni, formakuntzaz, familia terapeuta eta delineaatzailea naiz; beraz, hirigintza humanoagoa –jendearen beharretatik gertu dagoena– eta ongizate eraginkorragoa –jende gehiagoren egoeraz arduratzen duena– egin nahiko nuke. Udaletzeko makineriak aldaketa batzuk eskatzen ditu eraginkorrago izan eta herritarrak hobeto artatzeko.

Ze proiektu egin nahiko zenituzke?

Zaintza-gune bat sortu nahi dugu. Bertan, osasun etxea –Basotxo eraikineko beheko solairuan–, hirugarren adinerako etxebizitzak –eraikin berdineko lehenengo eta bigarren solairuan– eta eguneko zentroa –gaur egungo osasun etxe lokaletan– kokatu genituzke. Bestetik, komentuko proiektua dugu. Han, herritarrentzako gune bat sortu nahiko genuke. Sotoan, musika taldeendako entsegu lokalak eta tailerrak egongo lirake; beheko solairuan, Basotxo elkarte lokaletan, taberna, erabilera asko izango dituen gela eta areto nagusia –kontzertuak, erakusketak, ezkontzak, hileta zibilak...-. Goiko solairuan, elkarte ezberdientzako bulegoak, dantza eta gimnasiarako aretoak eta bilera

gelak egingo genituzke; eta lorategian, 1.000 metro koadroko gune estali bat eta ibairaino jaitsiko den parke bat. Beste proiektu sorta bat ere nabarmenduko nuke: mugikortasun seguruaren arloan ideia mordoak, energia berriztagarrien ingurukoak... Eta gure apustu sendoa izango dena, etxebizitzarena: gazteen emantzipaziorako, alokairu publikokoak...

Aretxabaletak badu bizitarik?

Bai, horixe. Herria bizitzeko era oso ezberdinak daude. Hobetze-

"OSASUN ETXEA ETA EGUNeko ZENTROA IZANGO DITUEN ZAINZA-GUNE BAT ERE GURA DUGU"

ko zer egin? Saiatu aniztasun hori ondo ulertzen eta gauza berriak egiten: betikoa eginez ezin dugu espero emaitza ezberdinik. Ildo horretatik, merkatariek laguntza behar dute. Guk proposamenak egin ditugu, baina ezer ez da egin.

Kirol beharrak aseta dituzte aretxabaletarrek?

Datozen hamar urteetan beharko genituzkeen azpiegiturak izendatu, kuantifikatu eta programatu nahi ditugu; hala, behar ekonomikoak antola ditzakegu: pilotalekua, Arlutzeko kantxa, Urkulu kirol-gunea, futbol zelaiak... Gauza asko daude hobetzeko eta konpontzeko. Eta berriak bultzatzea ez legoke txarto: padela, bolatokia, parkour-a...

Eta kultura beharrak beteta daude Arkuperekin eta Loramendirekin?

Bi eredu ezberdinak dira, biak ala biak beharrezkoak. Guk uste dugu jendeari eskaini behar dizkiogula baliabideak talde edo bakarka haien nahiak eta proiektuak aurrera eramateko. Hor dago gakoak, nire ustez. Jendeari protagonismoa eman behar zaio: eta gai honetan proiektu ezberdinak ditugu EAJK eta guk.




ION ALBIZU
GONZALEZ

- Lizarra. • 41 urte.
- Gizarte hezitzailea.

"Beste taldeei deituko diet Gobernu osatzeko"

"Alkatetzan lortuz gero egingo nukeen lehenengotako gauza da gainerako udal talde politikoei deitu, eta guztiok lekua edukiko genukeen Gobernu bat osatzeko ahalegina egin. Nire apustua oso sendoa da ildo horretan jarduteko; izan ere, hori da nik dudan estila. Uste dut, gainera, hori posible izan dadin lan egin dugula azken lau urteotan. Eta posible izango da".



elkarrekin
PODEMOS

**RAFA
BERNAL GATO**

- Aretxabaeta. • 42 urte.
- Geologoa.

"Herriaren inplikazioan egingo dugu lan"

"Aretxabaletako Elkarrekin Ahal Duguk herri jasangarri, solidario eta bidezko baten alde egingo du lan hasieratik. Horretarako, aldaketa klimatikoaren aurkako plana jarriko dugu martxan eta bertako merkataritza, ekonomia eta gertutasuna bultzatzea izango da helburua. Horrez gain, garraioak hobetu nahi ditugu, baina hau guztia aurrera eramateko ezinbestekoa izango da herritarren inplikazioa".

"Herritarren inplikazioan eragiten saiatuko gara"

RAFA BERNAL GATO ELKARREKIN AHAL DUGUKO ALKATEGAIA

Maialen Regueiro ARETXABAETA

Equo Berdeak taldeko militantea da eta azken agintaldian Eskoriatzako zinegotzia izan da. Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan Aretxabaletako Elkarrekin Ahal Duguko alkategaia izango da.

Asko kosta zitzaizun erabakia hartzea?

Ez da erabaki erraza. Horrelako kargu bat hartzeak konpromisoa, lana eta denbora libre arriskatzeari esan nahi duelako.

Zein da Aretxabaletako txoko gus-tukoena?

Erreka alboan dagoen pasealekua dut gustuko. Urte askoren ostean, bertara itzultzen ari den fauna aztertzea gustatzen zait. Izan ere, aretxabaletarrok badakigu erreka horren egoera nolakoa zela lehen.

Aretxabaletako alkate izango bazina, zein proiektu egingo zenituzke?

Lehenengo egunetik Aretxabaleta jasangarri, solidario eta bidezko baten alde egingo nuke lan. Esate baterako, aldaketa klimatikoaren aurkako plan bat jarriko nuke martxan. Horrez gain, bertako merkataritza, ekonomia eta gertutasuna bultzatuko nuke. Gure baliabide naturalak babestuko nituzke, eta garraioa hobetu. Baina, batez ere, herritarrek honetan guztian inplika daitezen saiatuko nintzateke.

Zein da alkatea izatearen gauzarik onena eta okerrena?

Onena merezi duen proiektu batengatik lan egitea dela esango nuke. Okerrena, aldiz, pertsonaia mediatiko bat izatea.

Alkate izango bazina, zer hiru gauza egingo zenituzke lehenik?

Lehenik, emaitzarenegatik harrituko nintzateke. Behin emaitzak onartuta, Udaleko langileekin hitz egingo nuke elkar eza-gutzeko. Ondoren, gure ideiak eta proposamenak mahai gainean jarriko nituzke eta teknikariek zein gainontzeko taldearekin lanean hasiko ginateteke.

Feministatzat duzu zeure burua?

Urteak igaro ahala, biztanleria erdiak jasaten duen injustiziaz ohartu naiz. Umea zarenan

"HASIERATIK, HERRI JASANGARRI, SOLIDARIO ETA BIDEZKO BATEN ALDE EGINGO DUGU LAN"

erakusten dizuten mundua ikusten duzu; gero, urteak igarotzen diren heinean, errealtatea ikusten duzu.

Eskuin muturrekoen gorakada zer iruditzen zaizu?

Egoera hauek historikoki eta testuinguruan irudikatu behar dira. European eta munduko beste hainbat tokitan aurretik ere horrelako ideologiak izan dira. Egoera honen arrazoia honako hau dela esango nuke: indarrean dagoen sistemak mundu hobe bat eskatzen duten mugimenduei erantzuna ematen die, sistemak ez duelakoa berarentzat proposak ez diren aldaketak onartzen.

Nola baloratzen dituzu apirilaren 28ko hauteskundearen emaitzak?

Bipartidismoa atzean gelditu dela argi dago, baina egia da, era berean, lehian dauden bi bloke daudela, eta badirudi botoak espazio hermetikoetan mugitzen direla. Beraz, orain, alderdiek elkar ulertu beharko dute. Aitortu behar dut ultraeskuinaren sarrerak arduratzen nauela. Honen arazoa da alderdi honen ideiek gainontzeko taldeen artean distantzia areagotu dezaketela.

"Gobernu plurala osatzea izango da erronka nagusia"

MIREN LOREA LANA JAUREGI PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Eneko Azurmendi ARETXABAETA

Izatez arrasatearra da Mikelen eta Marinaren ama, eta Arartekoan egiten du lan, zuzendaritza laguntzaile. Lau urte egin ditu zinegotzi.

Zer moduz joan dira lau urte hauek?

Oro har, balorazioa positiboa da. Agintaldi hasieran finkatutako helburuak, nagusiki, bete ditugu. Talde sozialistatik beti izan ditugu eskuak zabalik edonorekin hitz egiteko, eta Aretxabaletaren eta aretxabaletarren onerako diren akordioak lortzea izan da gure helburua.

Zergatik erabaki duzu errepikatzea?

Oso gustura nago udal honetan, bai arlo politikoan, bai arlo instituzionalean, eta baita arlo pertsonalean ere. Beste talde politikoekiko harremana eroso eta dinamikoa izan da.

Zein proiektu egingo zenuke alkate izanez gero edo erabakiak hartzeko aukera izanez gero?

Adin nagusiko jendeari dago-kionez, adibidez, monitorea bat kontratatuko nuke, goizetan aktibitate ezberdinak antolatuta dituzan kolektibo horri zuzenduta, eta, era horretan, haien familiarak ere liberatzea. Bestalde, berdintasun planarekin jarraituko nuke. Kostu handirik ez duten bi aspektu dira, eta zaintza lanetan ari direnen liberazioa ekarriko lukete —emakumezkoak direlako gehienak—.

Alkate izango bazina egingo zenituzkeen hiru gauza nagusiak.

Erronka nagusia izango da ahalik eta kontsentsu handieneko Gobernu osatzea, plurala, egonkorra eta zeinaren kudeaketa agenda sozialean oinarritzen

den. Horregatik, anbizio handiko programa bat proposatuko dut, langabeziak herritar eta familia askoren arazo izateari utz diezaion. Horretarako, enfasi berezia jarriko dut gazteei, emakumeei, epe luzeko langabeei, 45 urtetik gorako langabeei eta halako kolektiboek laguntzeko ekimenak gauzatzen. Politika sozialei lehentasuna emango diegu, eta gure zerbitzu sozialek azkar artatu beharko dituzte adin nagusiko herritarrek, gazteak, nerabeak eta bazterkeria

"FEMINISMOAN, EKOLOGISMOAN ETA MODERNITATEAN ETA AURRERABIDEAN ERAGIN GURA DUGU"

sozialeko arriskuan daudenak, zerbitzu osoa eskaini. Bultzada ekonomikorako neurriak sustatuko ditut.

Zein arlotan gura du eragin PSE-EEK lau urte hauetan?

Feminismoan, ekologismoan eta modernitatean eta aurrerabidean. Orain duzuen zinegotzia berretsiko duzue maiatzaren 26an?

Boto-emaelekiko errespetuagatik, itxaron egin beharko dugu hauek botoa eman arte eta erabaki arte zein Udal Gobernu gura duten datorren agintaldian. Gu haien zerbitzura gaude, eta, haiek kokatzen gaituzten lekua edozein dela ere, gure jarrera bera izango da. Hau da, gehien-goaren interesak defendatzea bilatzen duen ezker posibilista bat ordezkatzen dut, sigla politikoez harago. Beti egongo naiz egiten didaten edozein proposamenekin laguntzeko prest, betiere, Aretxabaletako zerbitzu publikoak hobetzeko laguntzen badute. Espero dut aretxabaletarrek berriro ere konfiantza izango dutela alderdi sozialistarengan. Zinegotzi bakar bat baino gehiago izatea ere gustatuko litzaidake, noski.



PSE-EE
PSOE

**MIREN LOREA
LANA JAUREGI**

- Arrasate. • 53 urte.
- Zuzendaritza laguntzaile.

"Hilaren 26an asko dago jokoan"

"Zerbitzu publiko gehiago eta hobeak dituen herri bat eraiki behar dugu. Agintaldi honetan erakutsi dugu instituzio ezberdinetan eragin dugula, herriarentzako hobeak izan diren iniziatibak lortzeko. Herriaren baliabideak optimizatzen jarriko dugu arreta guztia, eta aretxabaletarren bizikaltatea hobetzen lagunduko duten proiektuetan inbertitzea izango da lehentasuna".



Imanol Beloki ESKORIATZA

Datorren domekako udal hauteskundera begira, 3.168 pertsonak dute botoa emateko eskubidea Eskoriatzan. Zaila da jakitea zer gertatuko den, eta alderdikideen urduritasuna handia izango da egun horretan. Kultura etxeke lehenengo solairuan egongo dira hauteslekuak, urtero moduan.

2015eko datuak

Datuei erreparatu, 2015ean, esaterako, alderdi jeltzaleak irabazi zituen udal hauteskundeak; 867 botorekin, bost zinegotzi lortu zituen, EH Bilduk 640 botorekin lau zinegotzi, Eskoriatzako Elizateen Elkarrekin 246 botorekin zinegotzi bakar, Irabazi Eskoriatzako 183 botorekin ere zinegotzi bat eta PSE-EEk 139 botorekin ez zuen eserlekurik lortu. Aurtengo hauteskundera begira, berriz, bost alderdi berak aurkeztu dira, baina, Irabazik eta Podemosek Espainia mailan egindako akordioaren ondorioz, Elkarrekin Podemos moduan aurkeztuko dira –Podemosek,

Ahalik eta emaitza onenak lortzeko lehiatuko dira

EAJ, EH Bildu, Eskoriatzako Elizateen Elkarrekin, Elkarrekin Podemos eta PSE-EE alderdiak aurkeztuko dira maiatzaren 26ko udal hauteskundeetara. Aurreko agintalditik bi hautagai errepikatuko dute eta besteak berriak izango dira

Ezker Anitzak, Equok eta Independententek osatuta–.

Hautagai batzuek, errepikatu

Alkategaiei dagokien, guztiak berriak dira, Udal Gobernuan izan diren EAJko Joserra Zubizarreta egungo alkatea eta Eskoriatzako Elizateen Elkarrekin alkategai Iñaki Kerexeta izan ezik. Honako hauek bigarren aldia izango dute beraien alderdiko zerrendan lehenak moduan joaten. Berriei dagokien, bestalde, EH Bildutik Eluska Irazu da zerrendaburua, Elkarrekin Podemosek Salva Gonzalez eta PSE-EEtik Anabel Legaz.



GAKOAK KANPAINAN

ALKATEGAIK

HAUTAGAITZA ERREPIKATUKO DUTE ALDERDI JELTZALEAK ETA ELIZATEEK

HAUTESKUNDEAK

BOST ALDERDI AURKEZTUKO DIRA ESKORIATZAKO UDALERAKO

ZINEGOTZIAK

HAMAIKA ZINEGOTZIK OSATZEN DUTE HERRIKO UDALBATZA

IMANOL BELOKI

HAUTESKUNDEAK M26 GOIENAN UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

GOIENA TELEBISTA

DEBATEAK ALKATEGAIEKIN HERRIRIK HERRI

- MAIATZAK 17, EGUBAKOITZA: OÑATI.
- MAIATZAK 20, ASTELEHENA: ESKORIATZA.
- MAIATZAK 21, MARTITZENA: BERGARA.
- MAIATZAK 22, EGUAZTENA: ELGETA.
- MAIATZAK 23, EGUENA: ARAMAIO.

22:00ETAN, GOIENA TELEBISTAN. ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA.

goiena[“]
Zu hemen zaude.





JOSERRA ZUBIZARRETA ALEGRIA

- Eskoriatza. • 63 urte.
- Irakaslea.

"Gure programa partaidetzakoa da"

"Gu izan ginen Eskoriatzan lehenengo herri-kontsulta egin genuenak, zabor biltzaile sistema erabakitzekeko garaian, hain zuzen ere. Hiritarrek erabakitzen zutena errespetatuko genuela esan genuen, eta hala egin genuen. Eta horrela jarraitu dugu agintaldi osoan: Hiri Berritze Plana, *Eskoriatzak merezi du* ekimena... Guretzat, herri-partaidetza ezinbestekoa da herria eraikitzeke, eta horrela jarraituko dugu".

"Agintaldi honek erakutsi digu nondik nora jo behar dugun"

JOSERRA ZUBIZARRETA ALEGRIA EAJ-KO ALKATEGAIA

Imanol Beloki ESKORIATZA

Agintaldia bukatzeaz dela, prest dago Joserra Zubizarreta Alegria (Eskoriatza, 1955) bigarrenenako (Lanbidez Arizmendi Ikastolako Almen guneko irakaslea izan da urte askoan, eta lau urte hauetan alkate moduan izandako esperientzia "positiboa eta aberasgarria" izan dela adierazi du.

Alkate lau urte hauetan. Nolako esperientzia izan da?

Oso esperientzia positiboa izan dela aitortu behar dut, asko ikasi dut eta nire onena ematen saiatu naiz. Zehaztekoan, herritarrekin izan ditudan harreman zuzenak azpimarratuko nituzke, oso aberasgarria da gure herri-proiektua partekatuta eta kontrastatu ahal izatea. Era horretako prozesuetan norberak asko ikasten du.

Bigarren agintaldirako aurkeztuko zara; gustura egon zaren seinale...?

Bai, halaxe da. Esan dudana moduan, esperientzia ikaragarri polita izan da. Ohorea izan da eskoriatzarren zerbitzura egotea. Alderdiak eskatu zidan, eta hemen nago berriro. Baina esan beharra daukat azkeneko hilabete hauetan jende askok kalean gelditu eta ea errepikatu behar nuen galdetu izan didala euren animoak emateko.

Zein proiektu eraman nahiko zenuke aurrera berriro ere alkate bazina?

Lau urte hauek erakutsi digute nondik nora jo behar dugun. Herritarrek eta herriko taldeek eman dizkigute nondik norakoak. Hortik aurrera, hausnarketa egin eta lehentasunak markatzea izan da bidea. Herriak dituen

baliabideak eta azpiegiturak hobetzen eta berritzen jarraituko dugu. Horrekin batera, oso garrantzitsutzat jotzen ditugu parte-hartze eta elkarbizitzarako ekimenak. Eskoriatza guztion artean egin beharra daukagu. Bide horretan, guztion iritzia kontuan izan behar dira, norberaren ikuspuntuak inposatu gabe. Beste arlo bat jasagarritasuna da. Esate baterako, agintaldi honetan landu dugun Ur Agentziarekin elkarlana martxan jarri nahi dugu, gure erreka

"PROPOSAMEN GUZTIAK ETA IRITZI ANITZAK ONGIETORRIAK IZANGO DIRA"

ondo kudeatzeko, eta erosketak berdeari bultzada eman nahi diogu. Azkenik, gizarte zerbitzuetako arloa kontuan izatekoa da. Bai Foru Aldunditik, bai Udaletik berdintasun eta integrazio proiektuak sendotzen jarraitu behar dugu. Ez dugu inor atzean utzi nahi. Eta bukatzeko, lau urte hauetan egin dugun moduan, Elizateetakoekin elkarlana bultzatzea. Esperientzia aberasgarria izan delako.

Partxis parkea, Santa Ana eta Santa Marina arteko gunea... horiek egiteko daude, baina proiektu berriak baduzue buruan?

Bai; asko, gainera. Aipatzekotan, kiroldegian egin nahi dugun kanpoko igerileku berria eta San Pedro auzoko goiko parkearen birmoldaketa izango dira ikusgarrienak. Baita Dorletako haur jolas berria ere. Martxan jarri nahi dugu beste proiektu bat kirol eta osasun aholkularitza programa da. Bertan, adituak ibiliko dira, pertsona bakoitzari zein kirol edo aktibitate mota den egokiena erakusten. Agintaldi honetan abiatzeko asmoa geneukan, baina ez da astirik izan.

"Balioan jarri behar da herri honek duen ondare zoragarria"

ELUSKA IRAZU HERNANDEZ EH BILDUKO ALKATEGAIA

Imanol Beloki ESKORIATZA

Jaiotzez eibartarra bada ere, urteak daramatza Eskoriatzan bizi izaten. Lanbidez irakaslea da, Historian lizentziaduna, eta ondare kulturallean espezializatuta. Irakasle lanetan 20 urte daramatza, eta, horrez gain, ikerketa historiko-artistikoak ere egin ditu, besteak beste.

Zeinek eta zelan konbentzitu zintuen zerrendan joateko?

Herriko hainbat eragilek beste herritar batzuen izenen artean nirea aipatu zuten. Hurrengo pausoa, zerrendak osatzeko ardura zutenek pertsona horiekin banaka berba egin ostean, eta neure txanda iritsita, pentsatuko nuela esan nuen, ardur handia iruditzen zitzaidala. Noski, horrek sortzen zizkidan eta sortzen dizkit zalantzak,

baina argi neukan eta daukat baiezkorekin gogoz erantzungo didala erronkari.

Hautagai berria zara Eskoriatzan. Zein izango da zure helburua Eskoriatzako Udalean?

Herria, eta, horretarako, herritarren arteko komunikazioa eta batasuna lantzea. Gatazken aurrean zubiak eraiki. Herritarrek izan daitezela protagonistak, ahal den neurrian, beraien eskuetan utzita erabakiak. Funtzionamendu berri bat: 11 zinegotzi herriaren alde eta herriaren aurrean lan egiten, guztion artean ardurak banatuz eta etorkizuneko erabakiak eskoriatzar guztien artean erabakiz, aurrera ateraz auzolanaren bidez. **Herriko txoko gustukoena?**

Zaila da txoko bakar bat aukeratzea. Eskoriatzak txoko polit

pila dauzka, eta, nire kasuan, egunaren, umorearen arabera batera edo bestearen alde egiten dut; adibidez: Lete auzoko Santa Lucia baseliza; Alberjazarra; San Pedro auzoko goiko parkea; Atxorrotx bera; eta Bidebarrietako ibilbidea.

Zein proiektu zehatz egingo zenuke alkate izango bazina edo erabakiak hartzeko aukerarik izango bazenu?


Herri bizitza indartu nahi badugu, norbanakoak erdigunean jarri behar ditugu. Aukerak

"GATAZKEN AURREAN ZUBIAK ERAIKI BEHAR DITUGU, HERRITARREN ESKU UTZIZ ERABAKIAK HARTZEA"

sortu behar ditugu herrian bizitza egin nahi duten gazteek, nerabeek eta helduek bizi izateko aukera duina izan dezaten; gustura egon daitezten herri-proiektuaren eragile izaten. Horretarako, etxebizitza duina izateko aukerak martxan jarri behar ditugu. Hori horrela, etxebizitza modu berriak aztertu beharko dira. Etxebizitza duina izateak eskubide bat izan behar du, eta ez luxuzko artikulu bat. Eta, horrekin batera, nire amets pertsonala honako hau izango litzateke: balioan jarri herri honek duen ondare zoragarria. Zehazki, Pedro Lasagabaster alkate izandako garaian landu zen ideietako bat gauzatzea: San Pedro auzoa Kuartuenarekin lotzea, Bidebarrietatik, eta, bide batez, herriko ibaiaren ezker aldeari merezitako garrantzia ematea.

Zer egin beharko litzateke herria hobetzeko?

Eskoriatza hobetu nahi badugu, ezinbestekoa izango da herri akordioak lortzea; guztiok erabaki eta guztion artean ardurak banatzea. Herritarren batzea izango da gure asmoa!



ELUSKA IRAZU HERNANDEZ

- Eibar. • 43 urte.
- Irakaslea.

"Herritarrengan eragin nahi du EH Bilduk"

"Eskoriatza EH Bilduk eragin nahi du, orokorrean, jendearengan eta, bereziki, Eskoriatzako herritarrengan. Pertsona jarri behar dira bizitzaren erdigunean; aldaketa ekarri dezaketen proiektuen parte-hartzaile aktibo egin, bai ekarpenak egiten, bai zuzenean proiektu horiek martxan jartzen. Baina ez soilik datozen lau urteotan; baizik eta, etorkizunari begira, baita datozen urteetan ere".



elkarrekin
PODEMOS

**SALVA
GONZALEZ SANTIAGO**

- Posadas. • 63 urte.
- Erretiratua.

"Gardentasun handiagoa sortu behar dugu"

"Erabakiak hartzeko aukerarik izango banu, beste udalekin batera zerbitzu publikoak partekatzearen alde egingo nuke, hiritarrei zerbitzu hobek emateko. Uste dut garrantzitsua dela hiritarrekiko komunikazioari eta informazioari lehentasuna ematea, horrela, gardentasun handiagoa sortzeko. Berdintasunaren gaineko zinegotzi espezifiko baten figura sortuko nuke".

"Enpleguan, etxebizitzan eta ingurugiroan eragin nahi dugu"

SALVA GONZALEZ SANTIAGO ELKARREKIN AHAL DUGUKO ALKATEGAIA

Imanol Beloki ESKORIATZA Bergarako Udalean aritu da, brigadan, mantentze-lanetan, eta erretiro aurreratua hartuta dago. Politika munduan urte asko daramatzen arren, Eskoriatzan aurkezten den lehenengo aldia da.

Zeinek eta zelan konbentzitu zintuen zerrendan joateko?

Alderdiko kide batek konbentzitu ninduen, Eskoriatzako zinegotzia izandako batek. Ez da samurra izaten halako erabaki bat hartzea, eta bi edo hiru aste behar izan nituen erabakia hartzeko. Hala ere, lanerako prest nago.

Zer gustatzen zaizu gehien Eskoriatzatik?

Eskoriatzarra ez izan arren, herrian dagoen lasaitasuna eta bertako inguru naturala dut

gustukoan. Askotan joaten naiz, lagun batzuekin elkartzera, baina ez daukat leku berezirik, herriko edozein tokitan egon naiteke gustura.

Hautagai berria Eskoriatzan, baina esperientziaduna, ezta?

Azken lau urteotan, esaterako, Bergarako Irabazi alderdiko zinegotziari laguntzen ibili naiz. Hala ere, herri bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta Deba-goienean herri batetik bestera asko aldatzen dira gauzak. Hori horrela, gure helburu nagusia herri solidarioa izatearen aldeko apustua egitea izango da, justizia soziala lortzeko eta elkarbizitza ona izan dezagun.

Zure alderdiak zein alorretan eragin nahi du, bereziki, lau urteotan?

Hiru arlotan eragin nahi dugu, bereziki, datozen lau urteotan:

enpleguan, etxebizitzan eta ingurugiroan. Etxebizitza eskubi-dea bermatuta izatea lehentasunezkoa da guretzat, hiritar guztiak beraien bizitza-proiektua eraman ahal izateko baldintza duinetan. Horretarako, hitzarmen baten bitartez, Intxaurtxueta etxebizitzak bukatzea bultzatuko dugu, baita etxebizitzak birgaitzeko beste neurri batzuk martxan jartzea ere, eta helburu hau bete dezaketen lokalak balioan jarri nahi ditugu. Herriko enpresa guztiakin elkar-

"GURE HELBURU NAGUSIA HERRI SOLIDARIOA IZATEAREN ALDEKO APUSTUA EGITEA IZANGO DA"

lanerako hitzarmenak bultzatzea ere bada gure asmoa, hala, enpleguaren sarbidea sustatzeko. Ingurugiroari dagokionez, berriz, ahal diren neurri guztiak bultzatuko ditugu gure seme-alabei ingurugiro bizigarri, jasangarri eta osasuntsuena lagatzeko.

Feministatzen duzu zeure burua?

Bai, nahiz eta perfektua ez izan. Martxoaren 8an, etxeko lanak egin nituen eta Mugimendu Feministak antolatu zuen manifestaziora joan nintzen. Gainera, azkenaldian egin diren mobilizazioak handiak izan dira, eta beharrezkoak iruditzen zaizkit. Batez ere, emakumeek pairatzen dituzten diskriminazioak azaleratzeko eta, ahal den neurrian, hauek bukatu ahal izateko. Espero dut mobilizazioek jarraipena izatea.

Zer da alkate izatearen gauzarik onena eta okerrena?

Ez naiz sekula alkate izan, baina zinegotzi moduan ere asko egin dezakezu. Gauzarik onena jendearen zerbitzura egoteko erantzukizuna sentitzea dela esango nuke. Txarrena, berriz, zure pribatutasuna galtzen duzula.

"Eskoriatzarrei zerbitzu gehiago eskaini behar zaizkie"

ANABEL LEGAZ CANFLANCA PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Maialen Regueiro ESKORIATZA

Anabel Legaz Arrasateko PSE-EEko zinegotzia izan da azken agintaldian eta Eskoriatzako sozialisten alkategaia izango da.

Zeinek eta zelan konbentzitu zintuen zerrendan joateko?

Familiako tradizioagatik eta nire aitonagatik, Euskadiko Alderdi Sozialistako kide naiz, eta Eskoriatzako hautagaitza sozialistako buru izatea proposatu zidan alderdiak. Beti egon naiz alderdiaren esanetara, laguntzeko eta jendearen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako ideia eta proposamen aurrerakoiak praktikan jartzeko.

Alkategai izateko erabakia hartzea asko kostatu zaizu?

Ez. Hasiere-hasieratik hartu dut konpromiso etiko eta politikoa, Eskoriatzan herritarrei eskain-

itzen dizkiegun zerbitzuak hobetzera bideratutako udal-politika publikoak ezartzeko. Eskoriatzako Udala gardentasunaren, bizikidetzaren, berdintasunaren eta konpromiso sozialaren printzipioei jarraituz kudeatu nahi dugu, eta lehentasuna agenda sozialari eta zerbitzu publikoaren hobekuntzari eman nahi diegu. **Eskoriatzako alkate izango bazina edo erabakiak hartzeko aukerarik izango bazenu, zer proiektu egingo zenituzke?**

Euskal sozialistok uste dugu Eskoriatzako herritarrei zerbitzu gehiago eskaini behar zaizkiela eta ondoren azpiegiturretan pentsatu behar dela. Erakundeen arteko jarduera sustatu behar dugu, herritarrentzat onuragarriak diren proiektuak egin ahal izan daitezten. Eta, jakina, Es-

koriatzako aurrekontu-partidak igoko nituzke bereziki kezkarriari iruditzen zaizkidan bi esparrutan; alegia, enpleguaren esparruan eta integrazioaren eta gizarte-zerbitzuen esparruan, gaur egun esparru horietako aurrekontua aurrekontu osoaren % 3,8 eta % 9 baita, hurrenez hurren. Hau da, aurrekontu osoaren bi gastu kantitatetik txikiak dira.

Alkate izango bazina, zer hiru gauza egingo zenituzke lehenengo?

"ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERA SUSTATU BEHAR DUGU PROIEKTUAK EGIN AHAL IZATEKO"


Lehenik eta behin, Udal Gobernu egonkor eta plurala osatzen saiatuko nintzateke, udal kudeaketari hertsiki lotu gabeko edozein gairen ordez Eskoriatzan bizi diren eta bertan lan egiten duten pertsonen beharren agenda soziala lehenetsiko lukeen lau urterako gobernu programa bat kudeatzeko konpromisoan oinarrituta. Halaber, gure herriaren diagnostiko ekonomiko eta soziala egiteko eskatuko nuke, enpleguaren eta gizarte zerbitzuen arloko inbertsio publikoa efizientziarik handienarekin errentagarri egiten saiatzeko, eta Eskoriatzako garapen ekonomikoa sustatuko nuke.

Martxoaren 8an zer egin zenuen?

Donostian deituta zeuden kontzentrazio eta manifestazioetan parte hartu nuen, bertan egon behar genuela iruditzen zaidalako.

Zein da Eskoriatzako txoko gustukoena?

Asko gustatzen zait ibiltzea, eta Atxorrotx gazteluak eta baseliazak xarma berezia dutela uste dut, inguruko biodibertsitatearen kontserbazioa kontuan hartuta.



PSE-EE
PSOE

**ANABEL
LEGAZ CANFLANCA**

- Donostia. • 33 urte.
- Langabezian.

"Zerbitzu gehiago eskaini behar ditugu"

"Eskoriatzan bizi direnen eta bertan lan egiten dutenen beharren agenda soziala izango da lehentasuna. Horrez gain, herriaren diagnostiko ekonomiko eta soziala egiteko beharra ikusten dut, enpleguaren eta gizarte zerbitzuen arloko inbertsio publikoa efizientziarik handienarekin errentagarri egiteko. Azkenik, Eskoriatzako garapen ekonomikoa sustatzea gure helburuetako bat da".



IÑAKI KEREXETA GOROSTIZA

- Eskoriatza. • 60 urte.
- Erretiratua.

"Eskoriatza elizatez inguratuta dago"

"Gure historia aspaldikoa da, eta, herria bera nolakoa den ondo begiratzen badugu, zazpi elizatek eta Lete auzoak inguratuta dagoela ikusi dezakegu. Bakoitzak dituen ezaugarriekin, berezitasunekin eta paisaia ikusgarriekin. Eta guztien gainetik Atxorrotx dugu, beti zaindari dagoena. Hala, bertara joatea ezinbestekoa dela esango nioke kanpoko bati gure herria nolakoa den azaldu beharko banio".

"Elizateetan beharrak ditugu eta horien alde egiten dugu"

IÑAKI KEREXETA GOROSTIZA ESKORIATZA ELIZATEEN ELKARTEKO ALKATEGAIA

Imanol Beloki ESKORIATZA
Zarimutz elizateko bizilaguna da Kerexeta. Eskoriatzako Elizateen Elkarte (EEE) ordezkaria izan da Udalean azken agintaldi honetan, eta, maiatzeko hauteskunderi begira, berriz aurkeztu da alkategai.

Agintaldi berriari begira, berriz izango zara EEEko alkategaia? Zer dela eta?

Hilero batzen gara elizate guztietako ordezkariak, eta hurrengo agintaldirako taldea osatzeko pentsatzen hasi beharra zegoen. Berritua ere aurkezteko prest egongo nintzatekeen galdetu zidaten, eta baietz esan nuen. Egia esanda, lau urte hauek konturatu barik pasatu dira, eta, hain zuzen ere, talde oso ona izanda, esan dezaket gustura egon naizela.

Talde berria aurkeztu duzue maiatzeko hauteskunderi begira. Zaila izan da hautagaiak batzea?

Egia esan, lan horretan ez dut parterik hartu. Zazpi elizateetako ordezkariak eta Leteko auzo-alkateak oso talde ona osatu dute lau urte hauetan, eta beraiek izan dira talde berria osatzeko lagunak bilatzeko lana egin dutenak. Gainera, talde orekatua osatu dute; alde batetik, genero aldetik, eta, bestetik, kontuan izanda elizate guztietako bizilagunen presentzia. Udalean elizateetako bizilagunak egotea oso barneratuta dugu, gainera, elkarteak kide guztiok, eta hori argi eta garbi ikusi daiteke: 36 urte hauetan beti izan da jendea prest lana egiteko eta zerrenda-kide moduan joateko.

Zeintzuk dira zuen beharrak?

Aurten, eta oker ez banabil, hamargarren agintaldia izango da Eskoriatzako Elizateen Elkarte (EEE) aurkeztzen dena Udalera, eta, nahiz eta denbora honetan lan asko egin diren, beti daude beharrak elizate guztietan. Behar berriak sortzen direlako, edota egindakoak mantendu behar direlako. Batzuk aipatzekotan: kalitatezko ura bermatzea etxebizitza guztiei; mugikortasunari dagokionez, pertsona helduek, ezinduek edo

**"36 URTEAN BETI
IZAN DA JENDEA
PREST LAN EGITEKO
ETA ZERRENDA-KIDE
MODUAN JOATEKO"**

nerabeek garraio zerbitzu publiko bat erabiltzeko aukera izatea; komunikazio azpiegiturari dagokionez, Internetera konektatzeko abiadura duina etxe guztietara iristea; eta etxebizitzetako bideak egoera onean mantendu beharra izatea....

Nolakoa da Elizateen Elkartearen funtzionamendua?

Taldea zortzi auzo-alkatek eta nik osatzen dugu, eta, urte bukaera baino lehenago, Udalaren aurrekontuei begira gure hausera eragiten dugu: zer egin den urtean zehar, zer falta den bukatzeko eta zer behar ikusten ditugun aurrera begira. Horiekin zerrenda bat osatzen dugu, beharren arabera lehenetsiz. Noski, ustekabeak ere sortzen dira...

Aurtengo agintaldian, EAJrekin hitzarmena sinatu zenuten eta Udal Gobernuan egon zarete. Horrekin eragin du elizateetan egin beharreko proiektuak aurrera eramatea?

Betidaniak, gure taldeak alderdi bozkatuenari eman dio laguntza, eta oraingoan ere horrela izan da. Nire kasuan, esan beharra daukat oso positiboa izan dela agintaldi hau.



ESKORIATZAKO ELIZATEAK
LANDAGUNE-BIZIGUNE

EMAN BOTOA!





Eneko Azkarate ANTZUOLA

Hiru zerrenda aurkezten dira udal eta foru hauteskundeetara Antzuolan eta hirurek errepikatzen dituzte alkategaiak: Beñardo Kortabarría (EH Bildu), Basili Ormazabal (EAJ) eta Miren Gallastegi (PSE-EE). Ez dago beste herririk Debagoienean egoera horretan dagoena. Beste bitxikeria bat: Beñardo Kortabarría da hauteskundeak irabazteko faborito nagusia; irabazte aterako balitz, eta EAJK eta sozialistek baino zinegotzi gehiago lortuko balitu, Kortabarría errepikatuko egingo luke alkatez. Hori ez da inoiz gertatu Antzuolan 1979az geroztik.

Aurpegi berriak eta 'ospetsuak'

EH Bilduk berri egin du zerrenda eta gaur zinegotzi diren batzuek jarraitzen badute ere –Garazi Larrea...–, aurpegi berriak ere badira –Hodei Aranuren...–. EAJK zerrenda berri du eta aipagarria da ikustea laugarren postuan Iñigo Ramirez berriro ere zerrendan. Dena den, bigarren eta hirugarren *kanpoko fitxaketak* doaz: Aitor Urrutia legebiltzarkide eskoria-

Hiru zerrenda eta hiru alkategai, 2015eko berberak

Antzuola da eskualdeko herri bakarra 2015eko hauteskundeetan aurkeztu ziren zerrenda berak eta alkategai berak errepikatzen dituen, eta aurreikuspena da hirurak egotea ordezkaturatua udalbatza berrian

tzarra eta Miren Elkarresta Diputazioko Euskara Berdintasuneko zuzendari oñatiarra. Sozialisten artean ere bada ospetsurik, zerrendaburutik hasita: Miren Gallastegi eibartarrak eskarmentua du zinegotzi moduan Eibarren, Legebiltzarrean eta Jaurlaritzan.

Agintaldi berrian, EH Bilduk nahiko luke "bidegorriak ondoko herriekin lotu eta Basalderako oinezko konexioa lortzea". EAJ, berriz, "etorkizunari aurre egiteko hirigintzako plan orokor berria" egitea. Eta Gallastegi sozialistak, hondakinak jasotzeko "sistema berrikustea", eta eguneko zentroa "handitzea eta hobetzea".



INAXIO

GAKOAK ANTZUOLAN

ASMOAK

EGUNEKO ZENTROA, GIMNASIOA, ONGIZATEA... HELBURU

PROIEKTUAK

BIDEGORRIA, ARAZTEGIA, ESKOLA ETA TORRESOROA BERBAGAI

OBRA HANDIAK

DESKARGAKO OBREK BALDINTZATU DUTE AGINTALDIA

"Plan orokor on bat egin nahi dugu herritarrekin batera"

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA EH BILDUKO ALKATEGAI

Josu Bilbao ANTZUOLA

2015ean alkate aukeratu zuten antzuolarrek Beñardo Kortabarría Olabarría, eta, lau urteko agintaldiaren ostean, berriro izango da EH Bilduren Antzuolako alkategaia.

Asko kosta zitzaizun berriro aurkezteko erabakia hartzea?

Ez. Batetik, errematatu barik geneuzkan gauza batzuk bukatu behar genituela iruditzen zitzaidan: ikastetxeko obra martxan jartzea, gimnasioa berriro irekitzea edo autobideko obrarekin berrikusia daukaten proiektuak bideratzea, adibidez. Bestetik, taldera etorri den jende berriari babesa eta laguntza ematea ere garrantzitsua da niretako. Horrek, jakina, pertsonak jarraitzea eskatzen du, eta, zorionez, gure taldeko zazpi zinego-

tziatetik hiruk jarraitzea erabaki dugu.

Ze proiektu zehatz egin nahiko zenuke berriro alkate izango bazina?

Bat baino gehiago: bidegorriak ondoko herriekin lotzea eta Basalderako oinezko konexioa lortzea, adibidez, eta seguru nago lortuko dugula. Obra handiak bukatzen direnean, errekan bainurako gune txukun bat prestatzea ere ederra izango litzateke, Antzuolako eskolan daukagun hezkuntza-sistemarentzat behin betirako egonkortasuna lotzea ere bai, nolabaiteko autonomia energetikoa lortzeko proiektu bat badugu... baina, batez ere, Antzuola desberdintasun handirik gabeko antzuolarrez osatutako herri bat izatea nahiko nuke. Hain zuzen ere, ondorengo lau urteetan gai

hori berariaz jorratu nahi dugu, herritar guztien ongizateari begirako neurri zehatzak hartuta. **Zure agintaldian egindako ze gauzarekin zaude bereziki pozik?**

Gauza asko izan dira: Udalaren egoera ekonomikoa orekatu dugu, gerora beste hainbat tokitarako eredu izan den ur-parke bat egin dugu, benetako komun publikoak dauzkagu orain, oinezkoen aldeko neurriak hartu ditugu, lehen sektorea lagundu dugu, kirol-ekimen berri arrakastatsuak bultzatu ditugu, aurrera

"OBRA HANDIAK BUKATZEAN, ERREKAN BAINURAKO GUNE BAT EGITEA EDERRA IZANGO LITZATEKE"


begirako plan bat adostu dugu, gizarte zerbitzuetako zergak izoztu ditugu, kultur eta kirol taldeekin hitzarmenak sinatu ditugu... Bat? Larrialdi-laguntzak laukoiztu izana, Elgetarekin eta Gatzagarekin batera.

Zure herria hobetzeko hiru neurri?

Bat esanda dago: ongizatea helburu eta giltzarri Udalaren zerga-politikaren bidez. Bigarrena: herriko plan orokor ona egitea, herritarren parte hartzearekin. Eta hiru: elkarlan-foro bat sortzea herriko eragile ekonomiko eta sozialen artean, etorkizuneko erronkei aurre egiteko ideiak lantzeko.

Feministatzat duzu zeure burua? Ze egin zenuen Martxoaren 8an?

Bai; desberdintasunik gabeko gizarte batean sinisten dut. Gizon edo emakume izan, aberats edo pobre, zuri edo beltz... horrek ez luke inoren bizia hobe edo txarrago bihurtu behar. Martxoaren 8an, greba-lana egin nuen, kontzentrazioan egon nintzen, manifestazioan... eta etxeko lanak ere egin nituen, baina hori ez da egun bakarreko kontua, gure etxean lana banatzen saiatzen gara.



BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA

- Antzuola. • 56 urte.
- Kazetaria.

"Inguruko egoeraz kezkatzen gara herrian"

"Herriko gauza asko ditut gustuko, baina, bat aipatu behar badut, esango nuke pertsonen arteko harremanetan oinarritutako herria dela. Kezkatu egiten gara inguruko egoeraz, eta horrek bihurtzen gaitu solidario eta egiten gaitu herri. Hortik datoz borondatezko lanak, elkartasun-ekimenak, uholdeen aurrean batera lanean jartzea... Zaindu beharreko balioa da hori, azkenaldian badirudi apur bat galtzen ari dela eta".



BASILI ORMAZABAL GALARZA

- Antzuola. • 63 urte.
- Administraria. Aurre-erretiratu.

"Azken 25 urteetan asko aldatu da herria"

"Aspaldi Antzuolara etorri ez den bat herrira etorri gero, asko aldatu dela igarriko luke. Herri benetan polita daukagu eta sentitzen dut parte hartu dudala Antzuolak azken 25 urteetan izan duen eraldaketa horretan. Herri honetan, gainera, EAJk egin du lan gehiena, ilusio handiarekin: Sagastiko lanak, erreka, Torresoroa... Azken agintaldiko Udal Gobernuok bizpahiru gauza besterik ez dute aurrera eramane".

"Badago zer aldatu herrian, lan asko dauzkagu egiteko"

BASILI ORMAZABAL GALARZA EAJ-KO ALKATEGAIA

Amaia Txinturreta ANTZUOLA

Oraingo delako 24 urte izan zen lehen-dabizikoz zinegotzi Antzuolako Udalean Zumarragan jaiotako Basili Ormazabal. Azken agintaldian ere zinegotzi jardun du EAJ ordezkatzeko, eta alkategai aurkeztu da oraingoan.

Ez zen zure asmoa zerrendaburu joatea. Nola hartu duzu erroka?

Etxean, orokorrean, ez zaie gustatu ni alkategai joatea, baina esperientzia badaukat udal jardunean eta nahiko nuke, gutxienez, laugarren zinegotzia ere lortzea; bertako Iñigo Ramirez de Okariz doa laugarren eta herriari ekarpen handia egin diezaiokeela uste dut. Oraingo honetan ere bigarrena eta hirugarrena kanpotik ekarri behar izan ditugu: Aitor Urrutia eta Miren Elgarresta.

Zein proiektu zehatz egingo zenuke alkate irtengo bazina?

Etorkizunari aurre egiteko hirigintzako plan orokor berri bat egitea proposatuko nuke. Antzuolako errepideak asko aldatu dira Deskargako obrekin, eta, hirigintzari dagokionez, Sagasti ibilbidea Antiguaraino luzatzea aztertuko nuke. Karabanentzako leku aproposa bilatzea ere nahiko nuke, Sagastin bertan daukagun beste arazo bat delako, asko pilatzen dira.

Gustura gelditu zara Deskargako obren emaitzarekin?

Oso pozik, herriko bizi-kalitatean igarri egingo dugula uste dut. Gero, ez dakidana da zer gertatuko den bidesariaren kontuarekin; uste dut autoek ez dutela ordaindu beharko, baina kamioiek, berriz, bai.

Zein hiru proiektu eramango zenuke aurrera herrian?

Badago zer aldatu Antzuolan, lan asko dauzkagu egiteko, eta egingo nukeen lehenengo gauza da bukatu azken urtean amaitu ez dutena: Torresoroa. Iazko ekainaren 3ko ur handien ondorioz kaltetutakoa ez da konpondu. Hamaika hilabete pasa dira eta oraindik ez digute esan obretan zergatik ez diren hasi. Garbitasunarekin ere obsesio-natuta nago; araudi bat egingo nuke herrian kartelak jartzeko

"DESKARGAKO OBREN OSTEAN, HERRIKO BIZI-KALITATEAN ASKO IGARRIKO DUGULA USTE DUT"

eta kentzeko. Izan ere, preso kontuak ez du esan nahi herriak zikin egon behar duenik, nik ere nahi dut lehenbailehen etor daitezela, baina orain dela lau urte jarri zituzten preso gaixoen kartelak plastikoekin, hor jarraitzen dute. Pintaketak ere ez dira kentzen... Ekonomia ikuspuntutik, negozio txikien galarari erantzuteko, berriak ireki dituztenendako laguntza plana proposatzen dugu. Eta badaukagu bestelako proposamenak ere: herriko kultur jarduera biziberritzea, itxita daukagun gimnasioa martxan jartzea, gaztetxea berriro irekitzeko eztabaida sustatzea eta erabilpen baldintzak hitzartzea... Programan hainbat puntu dauzkagu jasota.

Alkate izatearen gauzarik onena eta txarrena?

Ona dauka zurea denaren sentazioa dakarrela; herrian alderditik aurrera eramandako proiektu ugari daude eta horrek satisfazioa ematen du. Okerrena, berriz, beti norbaitekin haserretu behar izango duzula; izan ere, beti esan beharko diozu ezetz norbaiti.

"Arazoei ikuspegi aurrerakoia eskainiko diegu"

MIREN GALLASTEGI OYARZABAL PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Amaia Txinturreta ANTZUOLA

Aurreko udal hauteskundeetan ere Miren Gallastegi izan zen sozialisten Antzuolako lehen hautagaia. Azken agintaldian hura izan da Udalean alderdi sozialistaren ordezkari bakarra. **Nola hartu duzu zerrendaburu joatearen erroka?**

Aurreko agintaldian sozialisten ordezkari izateko aukeratu ninduten ilusio eta konpromiso berarekin. Lanean jarraitzeko gogoz nago eta Antzuola hobetzeko ekarpenak egiteko prest. **Antzuolari zein ekarpen egin diezaioketela uste duzu?**

Udalan aurkeztzen diren arazoei ikuspegi aurrerakoia daukan erantzuna eskainiko nieke, beti oraina begiratuz, baina herria etorkizunera begira prestatzen joatea ahaztu gabe; hori ere

kontuan hartzea oso garrantzitsua da, nire ustez.

Zein hiru proiektu eramango zenuke aurrera alkate izango bazina?

Garrantzitsua da herritar guztiendako lan egitea, bozkatu zaituen ala ez albo batera utzita, baina hainbat kontu daude... Hondakinak jasotzeko sistema berrikustea... Beharrezkoa da eguneko zentroaren handitzea eta hobetzea. Errekalde auzoak birgaitze integrala behar du, barrualdeko plazaren hobekuntza bat, ziburuak, garbitasunaren hobekuntza bat... Antigua auzoko argiztapena ere hobetu behar da, futbol zelaiko aldagele eta harmaila estalian birgaitze bat ere egin beharra dago, nire ustean...

Zein hiru neurri hartuko zenuke herria hobetzeko?

Hiru eta bakarra dira, ikusi, entzun eta kasu egin. Laburbilduz, Antzuolako herritarrendako lan egitea.

Zerk erakartzen zaitu gehien Antzuolatik?

Herrien eta hirien gauzarik onena, beti, horietako jendea izaten da. Estetikari begiratuz, berriz, herria oso atsegina da, eraikuntza maitagarriak dauka eta inguru menditsu zoragarria. Mendi horietan ibilaldiak egiten ditut eta segituan Antzuolan zaude, edo Bergaran, Zumarra-

"IKUSI, ENTZUN ETA KASU EGINGO NUKE, ANTZUOLAKO HERRITARRENDAKO LAN EGINEZ"


ga ikusten duzu, Urretxu, Durangaldea, Elgeta... Oso polita, ikuspegi liluragarriekin.

Zure alderdiak zertan lan egin dezake datozen lau urteetan?

PSOEek eta PSE-EEk lan egingo du Espainiagatik eta Euskadigatik herrialde eredu aldatzeko proposamen zehatzekin, bilatuz eta aurkituz akordioa eta oniritzia, eta agenda soziala lehenetsiko du beste edozein konturen gainetik. Politika aurrerakoiekin, inoiz inor ez uzteko albo batera.

Alkate izatearen gauzarik onena eta txarrena?

Onena kalean egindako politika aurrera eramatea da. Bizilagunengandik gertuen dagoen administrazioaren buru zara, eta, ondorioz, beti saiatzen zara egunerokoan ikusten dituzun eta hitz egiten duzun herritarren bizitza hobetzen. Alkate izatearen edo politikan jardutearen okerrera da oso zaila dela des-konektatzea, eta ez dago ordu-tegi bereizirik bizitza publikorako eta pribaturako. Baina karguarekin bat dator hori. Baieztatu dezaket udal politika dela atsegingarria.



MIREN GALLASTEGI OYARZABAL

- Eibar. • 58 urte.
- Abokatua.

"Proposamen positibistak ditugu"

"Antzuolako bizilagunek euren Udalean ordezkari sozialistaren beharra dutela aztertuko duten esperantzarekin nago maiatzaren 26ra begira. Badakigu lana dagoela egiteko, eta sozialistok prest gaude proposamen positibistak eta beharrezkoak egiteko Antzuolan bizi eta lan egiten duten horien alde. Azken lau urteotan irmotasun handiz egin dugu lan eta horretan jarraituko dugu".



Julen Iriondo ARAMAIO

2015ean aurkeztu ziren lau alderdi berberak aurkeztu dira Aramaion aurtengo udal hauteskundeetarako ere: EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta PP.

Hautagaiei dagokienez, EH Bilduren bederatzikoan Lierni Altuna alkategaiak –alkate, orain arte–, Kristina Etxenausiak –aurrekoetan hirugarren, oraingoan seigarren– eta Monika Landaluzek –bietan bederatzigarren– errepikatzen dute.

EAJren zerrendan, Mertxe Mondragon izan ezik –lehen laugarren, orain zazpigarren–, gainerakoak berriak dira; tartean, alkategaia bera, Pedro Elosegi gasteiztarra. Elosegi zinegotzi izandakoa da sorterrian, Jose Angel Cuerdarekin, eta Arabako Batzar Nagusietako presidente izan da agintaldi honetan.

Alderdi sozialistan zerrendako kide guztiak dira berriak, Francisco Javier Nogales alkategaia barne; PPN, oster, 2015eko zerrendako lehen seiak errepikatzen dute aurten –lehen bostek, postu berean–, nahiz eta euren zerrendak batere botorik

Lau alderdi lehian, herrikoa den alkategai bakarrarekin

EH Bilduko Lierni Altuna da zerrendaburu aramaioar bakarra; EAJkoa, PSE-EEkoa eta PPkoa kanpokoak dira. Alkategai moduan errepikatu, berriz, bik egin dute: Altunak berak eta PPko Iñaki Ortegak –duela lau urte boto bakar bat lortu ez zuten arren–

jaso ez 2015eko udal hauteskundeetan.

Duela lau urtekoak

Duela lau urteko hauteskundeetan ostean, agintaldi honetan alkategaia eta beste bost zinegotzi izan ditu EH Bilduk, eta hiru hautetsi EAJk. 2015ean, hamahiru boto lortu zituen alderdi sozialistak, eta horiek ere ez dute ordezkartzarrik izan Aramaio udalbatzan.

Botoen %65 eskuratuta irabazi zuen EH Bilduk; %28 izan ziren EAJrentzat; eta %1, PSE-EErentzat. 842 lagunek bozkatu zuten: %70 izan zen parte-hartzea eta ia %5ek ez zuten aukera bat ere hautatu, zuri bozkatu zuten.



GAKOAK ARAMAION

ALDERDIAK

SENTSIBILITATE 'KLASIKO' NAGUSIAK AUKERAN HILAREN 26AN


ZERRENDAK

ZERRENDAKO LEHEN SEIEK ERREPIKATZEN DUTE ALDERDI POPULARREAN

PARTE-HARTZEA

%70 IZAN ZEN 2015EAN ETA IA %5EK ZURI BOZKATU ZUTEN

J.I.



eh bildu

LIERNI ALTUNA UGARTE

- Aramaio. • 36 urte.
- Irakaslea.

"Hiriek pentsatuz egiten dira legeak"

"Herri txiki bat gara, eta legeak egiten dira bulego batean herri handiekin edo hiriek pentsatuz; lege guztiak, hirigintzakoak... Oletan dugu, adibidez, arazoa. Definitzen dute zer den landa-gune bat, baina Oletan ez du zentzurik, eta kontua ataskatuta dago. Nekazaritzan ere, hau landa-gune bat da, baina legeak daude handiei begira eginda, eta txikietan, ekimen berriak martxan jartzeko, arazo handiak izaten ditugu".

"Oraindik indarrarekin eta ilusioz ikusten dut nire burua"

LIERNI ALTUNA UGARTE EH BILDUKO ALKATEGAIA

Julen Iriondo ARAMAIO

Orain arteko alkatea berriz aurkeztu da EH Bilduren zerrendako buru.

Berriz ere alkategai izango zara; zalantzarik izan duzu?

Bai, zalantzak izan ditut, eta ondo pentsatu dut, bai; ardura askoko lan bat delako eta pisu asko duelako. Baina oraindik indarrarekin eta ilusioz ikusten dut nire burua, eta datozenei transmisioa egiteko eta jarraipen bat emateko, gauza batzuk borobiltzeko, animatu egin naiz. **Agintaldiaren ze balantze egiten duzu?**

Orokorrean, oso balantze positiboa egiten dut. Berdintasun mailan, talde feminista sortu da, eta herri mailan mugimendu handia dago, eta hori mantentzea komeni da. Euskara

erabileran edo euskaltzale mugimenduan, euskara elkartearekin batera lan handia egin da eta jendeak hartu ditu ohitura batzuk, eta badago lanean jarraitzeko bidea. Ingurumenean ere bai, hondakinetan nahikotxo murriztu dugu kontua, kanpaina desberdinak egin ditugu, uste dut jendea kontzientziatuago dagoela; oraindik badago lana egiteko, baina beno. Zerbitzuak hobetzen ere ari gara politopolito. Azpiegiturak ere... dirulaguntzak jaso ahala, egin dira obra handiak. Matxinkale ere paseatzeko jarri da. Uste dut gauza desberdin asko egin direla, ur parkea, parkeko prozesua... Gauza asko falta dira oraindik egiteko. Honek ez du etenik, eten gabe joan behar dugu hobetzen, eta eten gabe erabaki

behar du herriak ze behar duen; duela hamar urteko beharrak edo gogoak eta gaur egungoak ere ez dira berak. Eten gabeko mugimendua da bizitza, eten gabeko mugimendua izan behar du herriak, eta Udalak horri erantzun behar dio.

Eta agintaldi berrira begira, erronka nagusiak?

Ur-zikloaren kontuarekin jarraitzea, etxeko edateko uraren sistemarena; herri zabala da hau, eta hainbat iturburu ditugu. Lortu dugu Foru Aldundiak

"AUZOETAKO JENDE ASKO DUGU, ETA HORREK ERE ABERASTU EGITEN DU ZERRENDA"


ikerketak bat egitea, eta iraunkortasunera eta ahalik eta ur gutxien gastatzeko bidean inbertsioak egin beharko dira. Eta gero, saneamenduaren arazoa dago, ea Arrasatera eramaten dugun, edo hemen araztegi bat... Hor ari gara Foru Aldundiarekin gaia aztertzen, gaurkotu beharra dago eta. Orain dela gutxira arte, dena ziren hobiak; azken urte nahikotxotan sare orokorra sortzen ari da Udala, baina hori borobiltzeko gauza asko falta dira oraindik.

Nolakoa da EH Bilduren hauteskundeetarako taldea?

Soslai desberdinetako jendea gaude. Emaizak ikusi, eta egingo dugu lan banaketa. Auzoetako jende asko dugu, gainera, eta horrek ere aberastu egiten du zerrenda, soslai profesional desberdinetakoak izateaz gain.

Zer gustatzen zaizu gehien Aramaiotik?

Gustatzen zait oso bizia dela, eta jende oso langilea. Herrigintzan, kultur gintzan dagoen mugimendua; gauzak antolatze orduan jende pila bat inplikatu da. Elkarrekin topera dabilta, bizi dago herria.



PEDRO ELOSEGI GONZALEZ DE GAMARRA

- Gasteiz. • 59 urte.
- Musika irakaslea.

"Musikaren bidez erlaxatzen naiz"

"Astialdian familiarekin egon eta bidaiatzea gustuko dut. Bestalde, musika da nire lanbidea. Orain, politika lanetan murgilduta nagoenez, musikaren bidez erlaxatzen naiz astialdi denboran. Bide batez, Aramaioko hautagaia izateko ez da profil txarra musikaria izatea. Hor dauzkagu hainbat aramaioar musikari handi eta ospetsu: Bizente Goikoetxea, Sabin Salaberri, Rafael Mendialdua...".

"Nire konpromisoa da lanerako prestutasun osoa"

PEDRO ELOSEGI GONZALEZ DE GAMARRA EAJ-KO ALKATEGAIA

Eneko Azkarate ARAMAIO

Goi mailako musika irakaslea da ofizioz, baina politikan eta herrigintzan urteetan aritua: Jose Angel Cuerdarekin Gasteizko Udalean aritu zen eta Arabako Batzar Nagusietako presidentea izan da.

Ze egiten du gasteiztar batek Aramaio alkategai?

Aramaio EAJren zerrendaburu aurkezten naiz lan egiteko asmoz, laguntzeko asmoz eta Arabako herri baten aurrerapeneraren alde egiteko asmoz.

Zer dakizu Aramaio buruz?

2003. urteaz geroztik Arabako Batzak Nagusietako prokuradorea naiz, baita azken lau urteetan presidente ere. Arabako herri guztietako gaiak aztertzen ditugu. Askok ikasten da, Araba-ri buruz eta arabarrei buruz.

Nork proposatu zintuen Aramaio alkategai izateko?

Aramaio EAJko kideen eta lagunaren artean osatu zen lantalde bat Udal hauteskundeak aurrean zirela eta. Aramaio arazoak eta beharrak aztertu eta gero, udal hauteskundeetarako zerrendarako pertsonak proposatu zituzten talde horretan.

Jose Angel Cuerdarekin izan zinen zinegotzi Gasteizko Udalean. Ze ikasi zenuen harengandik?

Cuerda izan da politikari handi bat, guztien errekonozimendua jaso izan zuen Gasteizko alkate izan egon zen 20 urte haietan. Gasteiz berri bat sortu zuen, planteamendu berriekin: elkartasuna eta giza eskubideak izan ziren bere hiri ereduaren ardatz nagusiak. Iraunkortasuna eta ongizate soziala helburu nagusiak.

siak. Politika egiteko modu berri bat sortu zuen eta ni harro nago Cuerdaren ikaslea izateagatik.

Gaur egun, hiru zinegotzi ditu EAJk Aramaio; EH Bilduk, sei. Ze helbururekin aurkezten zarete?

Gure helburua da bost zinegotzi edukitzea. Hori baino gehiago ere izan du EAJk Aramaio. Emaizta haiek errepikatzea da helburua.

Zer behar du, bereziki, Aramaio? Etorkizun hobea, eta biztanle guztien bizi-kalitatea gero eta

"JOSE ANGEL CUERDAREKIN GASTEIZKO UDALEAN ARITU IZANAGATIK OSO HARRO NAGO"

handiagoa izatea. Gauden ingurumen fisikoa onartu eta garatu.

Eta zer eman diezaiok EAJk?

Lan esperientzia. Politika egiteko eredu bat, non elkarriketa tresna ezinbestekoa den akordioak lortzeko.

Zure herria hobetzeko hiru neurri? Parte hartzea hobetu. Biztanle guztien arteko komunikazioa zuzena eta azkarra izan dadin sistema bat antolatu.

Ze ekimen edo proiektu zehatz egin nahiko zenuke Aramaio?

Programan hamar helburu orokor agertzen dira, eta bakoitzak hiru ekintza konkretu ditu: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra burutu eta onartu agintaldiko lehen urtean; nekazaritza ingurua berpiztu; gazteentzako aisialdi eskaintza hobetu; garraio publikoa hobetu; parte hartze programa martxan jarri; ur zikinen problematika konpondu.

Ze maiztasunez etorriko zara Aramaio, udaletxera, hurrengo lau urteetan?

Nire konpromisoa da lanerako gertutasun osoa. Beharrezkoa izango balitz, egunero etorriko nintzateke.

"Adinekoak eta gazteak izango dira gure lehentasuna"

JAVIER NOGALES RODRIGUEZ PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Maialen Regueiro ARAMAIO

Elgoibartarra den arren, 1968a ezker Gasteizen bizi da Javier Nogales eta PSE-EEren Aramaio alkategaia izango da datorren maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan. Bigarren Hezkuntza irakaslea izan da hogeita hamar urtez eta gaur egun erretiratu dago.

Zer da Aramaio gehien gustatzen zaizuna?

Aramaio oso herri lasaia dela iruditzen zait eta duen paisaia izugarria da.

Zein hiru gauza egingo zenituzke alkate izanez gero?

Aurrekontua aztertuko nuke, eta, horren arabera, herriak behar dituen lehentasunezko hiru proiektuak gauzatuko nituzke. **Zer hobetuko zenuke Aramaio alkate izango bazina?**

Herritarren bizi-kalitatea hobetuko nuke, adineko herritarrei arreta berezia eskainita. Baina gazteen beharrei ere erantzun bat emango nieke, herriaren gertatzeko neurriak sustatuz eta zerbitzu publikoak bermatuz.

Alkate izanik deskonektatzea lortzen da?

Oraindik ez dakit zer den alkate izatea, baina edozein postutan deskonektatzea beharrezkoa dela uste dut, eta horretarako hainbat aukera daude: lagunak, familia, irakurtzea, futbola edota beste zaletasun batzuk.

Zuen etxean lanak banatuta dituzue?

Gurean etxeko lanak beti egon dira banatuta. Ez dakidana da zein den bazkaria egitearen, plantatzearen edota komuna garbitzearen asetzeko maila, besteak beste. Ez gara perfektuak, eta,

denborarekin, lan horiek egiten ikasi dugu. Hala, gure etxean guztien artean egiten ditugu lanak, baina otorduen ardura, esate baterako, nirena da.

Zeintzuk dira Aramaio behar dituen neurriak?

Bizilagunen arteko bizikidetzaren alde lan egitea, gizarte-zerbitzuetara dagoen sarbidea indartzea, herritarren mantentzeko aukerak sortzea eta gazteentzat ingurua erakargarriagoa egitea.

Zer iritzi duzu eskuin alderdiek izan duten hazkundeaz?

"ARAMAIOARREN BIZIKIDETZAREN ALDE EGINGO DUGU LAN, UDALEAN SARTZEA LORTUZ GERO"

Eskuineko alderdiak kolpista potentzialak dira eta diktadura oroitzen duen eta genero-indarkeria ukatzen duen eskuin frankista bat eratu nahi dute. Ekonomia ultraliberalak dira, eta, diktadorea lurpetik ateratzen duten egunean, hor daudela ekarriko digute gogora. Beraz, demokraziaren alde egiten dugunon lana da beraiekin elkarlanean aritzea.

Apirilaren 28ko hauteskundeetako emaitzekin pozik zaude.

Bai. Sozialismoak irabazi du eta alderdi politiko garrantzitsu bilakatu da. Emaizta hauei esker, Kolon plazan elkartu ziren alderdi eskuindarrak gelditu egin dira, eta, nahiz eta oposiziotik gobernatu, krisian sartu dira. Euskal Herrira etorrita, badakigu alderdi horiek ez dutela ordezkariarik lortu. Katalunian, berriz, Ciudadanos behar egin du, PPK ordezkari bakarra lortu du eta VOXek ez du ordezkariarik izango.

Zure denbora librean zer egiten duzu?

Aisialdian, paseatzeko, irakurtzeko eta idazteko aprobetxatzen dut.



JAVIER NOGALES RODRIGUEZ

- Elgoibar. • 67 urte.
- Irakasle ohia.

"Gizarte-zerbitzuak indartu nahi ditugu"

"Lehenik Aramaio aurrekontuak zeintzuk diren aztertu beharko ditugu eta ondoren, lehentasunezko proiektuak gauzatu. Adineko herritarrei arreta berezia eskaini nahi diet, baina baita gazteei ere. Herritarren bizi-kalitatea hobetzea da helburua eta baita bizilagunen arteko bizikidetzaren alde lan egitea ere. Gainera, gizarte-zerbitzuetara dagoen sarbidea indartzen saiatuko gara".



Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Maiatzeko azken domekan hizordu garrantzitsua dute herritarrek. Udal hauteskondeekin batera, foru eta Europako hauteskundeak ere izango dira.

Udal hauteskondeei dagokionez, hiru hautagaitza daude lehian Elgetan: Iraitz Lazkano (EH Bildu), Aintzane Oiarbide (EAJ) eta Elias de Castro (PSE-EE).

Nabarmena da alderdi politikoek gero eta zailtasun handiagoak dituztela hautagaitzak osatzeko. Ikusteko dago uneko gauza den eta etorkizuneara arazo bihurtzeraino errepikatuko den kontua den. Agintaldi honetan oposizio lanak egin dituen Gu Geu Elgeta plataforma desagertu egin da, eta luzaroan egon da jakinkizun zenbat hautagaitza izango ziren Elgetan eta zein alkategairekin.

EH Bilduko alkategai Iraitz Lazkano Elgetako alkate izan da azken lau urteotan. Etorkezunera begirako beste proiektu batzuk izan arren, karguan errepikatze erabakia hartu du, eta aurreikusten du alor ekonomikoari dagokionez agintaldi

Udalaren gobernantza nori eman herritarren esku dago

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan 919 lagunek izango dute boto eskubidea Elgetan. Hiru alderdik aurkeztu dute hautagaitza: EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK. Emaizak direnak direlarik ere, agintaldi 'beroa' aurreikusten da

erosoagoa izango dela honako hau.

EAJko alkategai Aintzane Oiarbide Errenteriakoa da sortzez, eta 24 urte daramatza Bergaran. Maila askotariko ardura politikoak izan ditu erakunde publikoetan. Kasu horretan, ikusteko dago zerrendako lehen hiru kideak elgetarrak ez izateak eraginik izango duen.

Elias de Castro hirugarren aldiz aurkezten da alkategai. Aurreko bi deialdietan ez du ordezkartzarik lortu.

Alkategaien debata antolatuta du Goiena telebistak. Lazkanok eta Oiarbidek baieztatu dute parte hartzea. Eguaztenean izango da ikusgai, 22:00etan.



L.Z.L.

GAKOAK ELGETAN

HIRU HAUTAGAITZA


AZKENERA ARTE EGON DIRA HAUTAGAITZAK JAKINKIZUN

ALKATEGAIEN DEBATEA

GOIENA TELEBISTAN IZANGO DA IKUSGAI EGUAZTENEAN

2015EKO EMAITZAK

EH BILDUK 360 BOTO, GU GEU ELGETAK 259 ETA PSE-EE-K 15



eh bildu

IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA

- Elgeta. • 31 urte.
- Turismo gidaria.

"Ezkerrekoa, abertzalea eta feminista naiz"

"Ezkerrekoa, abertzalea eta feminista naiz. Justizia soziala lortzeko tresnak falta zaizkigu eta euskal estatu bat sortzea ezinbestekoa da. Gaztetatik izan dut horretarako lan egiteko konpromisoa. Nire beste zaletasun handia mendia da. Garrantzitsua da bozkatzera joatea. Askok dago jokoan eta herriarentzako aukera onena EH Bilduk aurkeztu duen lantaldea bozkatzera da!"

"Gure hautagaitza elgetarra da, bertan bizi gara"

IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA EH BILDUKO ALKATEGAIA

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Iraitz Lazkano Garitaonandia (Elgeta, 1987) Elgetako alkate izan da amaitzear den agintaldian. Bigarren udal hauteskundeak ditu alkategai.

Herrian zabaldu zen ez zenuela berriz aurkezteko asmorik.

Beste proiektu batzuk nituen buruan, baina herri honekiko konpromisoak eta osatzea lortu dugun taldeak eta egitasmoak proiektu pertsonalek baino pisu handiagoa izan dute.

Nolakoa izan da agintaldi hau?

Korapilatsua, eta kalte-ordainek goitik behera baldintzatutakoa. Egoera oso larria izan da eta lortu dugu buelta ematea, zerbitzuak zabaltea eta beharrezkoak ziren lan ugari egitea. Pertsonalean asko ikasi dut, eta jende pila bat ezagutu. Dedika-

zio handia eskatzen du eta denbora hori beste zaletasun batzuei edo ingurukoekin egoteari kentzen zaio.

Aurkeztu diren beste bi hautagaitzak zer iruditzen zaizkizu?

Gero eta zailagoa da jendeak herrigintzarekiko konpromisoa hartzea, eta beste zerrendak horren isla dira. Espero dut alderdikeriagatik baino gehiago, Elgetaren eta elgetarren alde jarduteko aurkeztu izana.

Zer du EH Bilduren hautagaitzak beste biek ez dutenik?

Gure hautagaitza elgetarra da. Bertan bizi gara, eta ondo eza gutzen ditugu Elgeta eta elgetarrak. Esperientzia dugu udal kudeaketan, herriko taldeetan eta elkarteetan parte hartzen dugu, eta, batez ere, herri honekiko konpromiso handia dugu.

Zeintzuk dira Elgetaren indargune eta ahulgune nabarmenenak?

Elgeta norabide onean da, aurrera egiten ari gara. Populazio gaztea dugu, industrialdean pabiloi handiak okupatzen ari dira eta Udalaren egoera ekonomikoa eta kudeaketa asko hobetu dira. Ahulguneak baino gehiago, erronkak ikusten ditut nik: errepideak eta garraio publikoa, herri bizitzaren apaltzea, gazteek herrian etxeak alokatzeko dituzten zailtasunak...

"ELGETA NORABIDE ONEAN DA; PROIEKTU ASKO DITUGU ETA PROGRAMA ZEHATZA OSATU DUGU"

Ze proiektu duzue Elgetarako? Lehentasunezko hiru aipatu.

Gure proiektu nagusia herrigintza da. Era irekian hauteskunde programa zehatza osatu dugu, eta proiektu asko ditugu buruan. Hiru esateko, kiroldegia hobetzea, San Roke kaleko zorua hobetzea, etxebizitza komunitario bat egitea gazteentzako...

Agintaldi berrian alkate bazina, ze lehen hiru neurri hartuko zenituzke?


Apajadorearen auziko kalte-ordain baten azkeneko kuota ordaintzea, kaleak garbitzeko makina bat erostea eta hilerrian kolunbario bat egitea.

Herritarren eskaerei beti egin behar zaie kasu?

Herritarren eskaerak beti entzun behar dira. Kasu egin behar zaie. Herritarrek zentzuzkoak dira, eta eskaerak egingarriak izaten dira, normalean.

Espainiako hauteskundeetako emaitzak zer iruditu zaizkizu?

Emaitza onak izan ditugu Elgetan eta Euskal Herrian, abiapuntu egokia da udal hauteskundeetarako. Garrantzitsua da, ordea, herriaren alde bozkak elkartu eta emaitza horiek hobetzea.



AINTZANE OIARBIDE IRURETAGOIENA

- Orereta. • 55 urte.
- Komunikazioan aditua.

"Konprometitia eta langilea naiz"

"Ideologikoki abertzalea, Xabier Arzalluzek esaten zuen bezala, lehenengo abertzalea eta ondoren gainontzekoak. Euskal Herri libre baten aldeko helburua izan dut 13 urte nituenetik, baina, herrigintzaren bitartez, gizartearen eta ekonomiaren garapenaren bitartez eta pauso sendoak emanez. Bidezidorretan ez dut sinesten. Lana eta elkarriketa dira tresnak, indarkeriari zirrikiturik utzi gabe".

"Sektarismorik gabeko gobernantza sustatuko dugu"

AINTZANE OIARBIDE IRURETAGOIENA EAJ-KO ALKATEGAIA

Arantzazu Ezkibel Galdos ELGETA Euskal filologoa da Oiarbide. Ibilbide profesionala komunikazioari lotuta egin du, 1992an GBBn sartu zen arte. Azken lau urteetan Bide Azpiegituretako diputatua izan da.

EAJk herrikoak ez diren hiru lagun jarri ditu lehen postuetan. Zergatik?

Egunotan, politikagintza eta udalgintza ez dira erakargarriak jende gehienarentzat. Baina nabarmendu nahi dut gure zerrendan gehienak elgetarrak direla; esperientzia handiko jendea, batetik, ilusio berriak, bestetik, eta, batez ere, esango nuke Elgeta eta Elgetako Udala ondo eza gutzen duen jendea daukagula. **Azken agintaldiko Udal Gobernuaren jarduna jarraitu duzu?**

Oso agintaldi pobrea izan da, Elgetako Udal Gobernuak ez du

herri proiektu bat landu herriarentzat.

Nola irudikatzen dituzu hurrengo lau urte hauek?

Horretarako, hauteskondeen emaitzak jakin behar ditugu. Edozein kasutan, Gobernuan edo oposizioan egon, lana gogoz egingo dut.

Lehian izango diren beste bi hautagaitzak zer iruditzen zaizkizu?

Bakoitzak bere planteamenduak ditu; errespetagarriak dira, noski. Baina Elgetak behar duena etorkizuneko proiektu sendoa da eta hori EAJk eman diezaike.

Zer du zuen hautagaitzak?

Ekonomian, Pagatzako industrialdeak eta gainontzeko enpresek konplizitatea eta babesa behar dute Udaletik herrian aberastasuna sortu eta zerbitzuak hobetzeko. Erakunde guztiek

norabide berean lan egiteko bermea EAJ da.

Zeintzuk dira indargune eta ahulgune esanguratsuenak Elgetan?

Elgeta lasaitasunez bizi izateko herria da, landa-gune ederra dauka, zaindu eta babestu beharrek; gainera, sinbolo edo ikur garrantzitsua da faxismoaren aurka. Eta indargune handiena elgetarrak dira, pertsonak. Ahultasunen artean aipatuko nituzke, bereziki, garraio publiko urria eta herritarren benetako partaidetza aukera urriak.

"PROIEKTUEN ARTEAN PAGATZAKO INDUSTRIALDEA SUSTATZEA DAGO, AURRERA EGITEKO"

Ze proiektu duzue Elgetarendako? Ekonomia sustapena, Pagatzako industrialdea sustatuta. Horretan aurrera egiten ez bada, Elgeta atzean geratuko da, eta hori da gertatzen ari dena. Bestalde, pertsona dugu helburu, inor ez dadin bazterkerian geratu. Eta hirugarrenik, sektarismorik gabeko gobernantza.

Eta alkate bazina, ze lehen hiru neurri hartuko zenituzke?

Etorkizuneko proiekturik garrantzitsuenak martxan jarriko nituzke; herriko eragile guztiekin bildu eta elkarlanerako tresnak eta ibilbidea zehaztu; eta beste erakundeekin harremanetan jarri.

Herritarren eskaerei beti egin behar zaie kasu?

Bai; beste kontu bat da eskaerak ez direla beti egingarriak.

Espainiako hauteskundeetako emaitzak zer irudituko zaizkizu?

Gure emaitzak oso onak izan dira, uste baino hobek.

Hauteskunde atarian, zein mezu helarazi nahiko zenuke?

Elgeta atzera ez geratzea eta sektarismorik gabeko Gobernu nahi baduzu, aukera bakarra dago, EAJ-PNV.

"Herri integratzaileagoa eta pluralagoa izatea nahi dut"

ELIAS DE CASTRO APARICIO PSOE-EE-KO ALKATEGAIA

Amaia Zabala ELGETA

Elias De Castro Valladolideko Mota del Marques herrian jaioa da, baina urteak daramatza Sorluzen bizitzen eta bertako zinegotzi sozialista ere izan zen bi agintalditan, 1983tik 1991ra. Bergarako Tornilleria Deba enpresan tresna-gelako buru izana da eta bi seme ditu. Elgetan sozialisten alkategai aurkezten den bigarren aldia da, 2015ean ez zuten ordezkariarik lortu, baina horrek ez du atzera bota De Castro eta "lanerako gogotsu eta proiektu ugariarekin" datorrela aitortu du.

Zer da Elgetatik gehien gustatzen zaizuna?

Zalantzarik gabe, Intxorta ingurura joatea gustatzen zait. Natura izugarri maite dut eta leku hori ikusgarria da. Berta-

tik Elgetako ibar osoa eta Udalatx mendia ikus daitezke. Baina ingurune hori ere gustukoa dut ekartzen dizkidan oroitza-penengatik. Nire bilobekin bertara joaten naiz gerraren izugarrikeria eta horrek izan zituen ondorioak haiei azaltzeko. Valladoliden errepresaliak jasan zituen familia bateko kide naiz. Nire amona eta nire osabak preso egon ziren, sozialistak eta komunistak zirelako. Oso garrantzitsua iruditzen zait belaunaldi berriek iragana eza gutzea, orduan gertatutakoa berriro ez gertatzeko, eta askatasunaren alde borrokatu ziren ausart horiei esker ona erakusteko.

Zein ekarpen egingo zenizkioke Elgetako Udalarri zinegotzi izatea lortuko bazenu?

Edozer gauzaren gainetik, Alderdi Sozialistak Elgetako Udalean ordezkari bat edukitzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Gehiengoaren interesak —adibidez, bizikidetzak, enplegua eta ongizatearen arloetan— defendatzea bilatzen duen indar aurrerakoi ezkeriar bat egotea garrantzitsua iruditzen zait. Enplegua sortzen lagunduko duten neurriak bultzatzen eta kolektibo ahulenei begira kalitatezko udal-zerbitzu publikoak bermatzen lan egingo dut, eta

"HERRITARREN HARREMANETARAKO LORATEGI ETA PLAZA ATSEGINAK BULTZATUKO NITUZKE"

Udalan burututako lana behar handienak dituztenei zuzenduta egongo da.

Esan dezakegu Sorluzen izan duzun esperientziak Elgetarako balio dizula?

Sorluzen egon izanaren esperientzia politikoa oso ezagutza garrantzitsua da jendearengandik hain hurbil dagoen udaleko ordezkari izatea zer den eta zertarako balio duen jakiteko. Kontuan hartu behar da Sorluzeko biztanle kopuruak Elgetakoa hirukoizten duela, baina gaur egun arazoak hautemanda eduki behar dira eta garai hartako espirtu eta jarrera berberarekin landu behar dira. Gaur egun, hainbat arazo nagusi ditugu: gizartea gero eta zaharra da, kalitatezko enplegua eta enplegu egonkorra behar dira, etxetik kanpo bizitzeko gazteek arazoak dituzte, familia-eredu gehiago daude... Eta arazo horiei soluzioa emateko, euskal sozialistok praktikan jartzeko, Elgetako herritarren botoak jasotzen baditugu eta ordezkari bat garrantzitsua lortzen badugu, Udalan eragiteko hainbat proposamen ditugu.



ELIAS DE CASTRO APARICIO

- Sorluzen. • 71 urte.
- Fresatzailea.

"Indar aurrerakoi ezkeriar bat behar da"

"Udal Gobernutik hartzen diren erabakiek herrian bizi diren eta lan egiten duten pertsonen lehentasun nagusiei erantzun behar diete. Funtsezkoa iruditzen zait, bereziki, gazteen, emakumeen eta 45 urtetik gorakoen artean enplegurako toki eta eskualde mailako programak sustatzea. Bestalde, hiri-garapen iraunkorra proposatzen dugu, gazteentzako etxebizitza publikoa sortu ahal izateko".



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2019

INFORMAZIO OSOA GOIENAN

DEBAGOIENeko ALKATEGAIEI ELKARRIZKETAK

GOIENA.EUS-EN, MAIATZAREN 1ETIK 23RA BITARTEAN; ETA GOIENA ALDIZKARIAN, MAIATZAREN 17AN.

DEBAGOIENeko ALKATEGAIEKIN DEBATEAK HERRIRIK HERRI

GOIENA TELEBISTAN ETA GOIENA.EUS-EN, MAIATZAREN 14TIK 23RA BITARTEAN.

HAUTESKUNDE EGUNAREN JARRAIPENA

GOIENA.EUS-EN UNE ORO, GOIZETIK HASITA, HAUTESKUNDE EGUNAREN JARRAIPENA
ETA GOIENA TELEBISTAN, ZUZEN-ZUZENEAN, 19:45EAN HASITA, MAIATZAREN 26AN.

HAUTESKUNDE EGUNAREN KRONIKA

GOIENA ALDIZKARIAREN ZENBAKI BEREZIA, HAUTESKUNDEETAKO EMAITZEKIN,
BALORAZIOEKIN, ANALISIEKIN... MAIATZAREN 27AN.

goiena

Zu hemen zaude.

Asteburuan jokatu dira finalerdiak eta finalak

Maiatzaren 4an hasi zen frontenis txapelketa, hogeita hiru bikoterekin –hamar emakumezkoetan eta hamahiru gizonezkoetan–. Bihar, gizonezkoen kanporaketak jokatu dira, baina finalerdiak eta finalak igandean jokatu dira herri pilotalekuan

Maialen Regueiro ELGETA

Badira urte batzuk frontenis txapelketa antolatzen ez zela Elgetan. Izan ere, azken bi urteetan txapelketa antolatzeak saiakera egon da antolatzailen aldetik, baina apenas eman du jendeak izena parte hartzeko. Maiatzaren 4an hasi zen txapelketa, eta, guztira, 23 bikotek hartu dute parte, horietatik hamar emakumezkoetan eta hamahiru gizonezkoetan. Hala, asteburu honetan jakingo dira txapelketako irabazleen izenak. Parte-hartzailetako batzuk elgetarrak dira, baina Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Alegia, Asteasu, Ormaiztegi eta Urretxuko bikoteak ere izan dira.



Emakumeak frontenis txapelketa jokatzen. IDOIA SERNA

Emakumezkoak

Aurtengo txapelketan emakumezkoek eman dute sorpresa; izan ere, hamar bikotek eman dute izena. Idoia Sernak, antolakuntzako kideak, hau adierazi du: "Oso pozik gaude parte-hartzaile kopuruarekin eta, bereziki, txapelketan parte hartzen ari diren emakumezkoekin. Ez dakigu nondik izan duten txapelketa honen berri, baina gu pozik gaude parte hartu izanagatik". Hala, igandean jokatu dira emakumezkoen finalerdiak eta bikote hauek arituko dira: Beatriz-Rakel, Mireia-Maitena, Iratxe-Idoia.S eta Irune-Idoia.E. Igandean baita ere finala jokatu dute emakumeek. Mireiak eta Maitenak osatzen duten bikotea, esate baterako, elgetarra da eta urte osoan aritzen dira frontenisa jokatzen eta txapelketetan parte hartzen. Aretxabaletan jokatu zen txapelketan, besteak beste, parte hartzen aritu zen bikotea.

Gizonezkoak

Emakumezkoen finalerdietako bikoteak zeintzuk diren jakina bada ere, gizonezkoetan dena dago jokatzeke oraindik. Bihar,

Sailkapena

EMAKUMEZKOAK

A multzoa	JOKALARIAK	PUNTUAK
	Beatriz-Rakel	4
	Iratxe-Idoia	3
	Esti-Lierni	1
	Maialen-Udan	1
	Naiara-Uxue	1

B multzoa	JOKALARIAK	PUNTUAK
	Irune-Elkoro	4
	Mireia-Maitena	3
	Miren Argi-Jasone	2
	Lore-Rosa	1
	Olatz-Ibane	0

GIZONEZKOAK

A multzoa	JOKALARIAK	PUNTUAK
	Etxaniz-Amoros	5
	Medina-Gallastegi	4
	Gorosabel-Unzetabarrenet.	1
	Markiegi-Mañarikua	1
	Fidalgo-Garcia	2
	Fajaro-Kortabarria	0

B multzoa	JOKALARIAK	PUNTUAK
	Elorza-Maguregi	5
	Azkarraga-Bikuña	2
	Azkarraga-Hernaltes	2
	Mañarikua-Arabaolaza	2
	Arkarazo-Andres	1
	Ibra-Mikel	0
	Asula-Ayastui	0

kanporaketak jokatu dira, eta, guztira, hamaika norgehiagoka izango dira. A multzoan, dagoeneko bi bikote hurrengo faserako sailkatuta daude, aurretik jokatutako partiduetan lortutako puntuazioa dela eta: Etxaniz-Amoros eta Medina-Gallastegi. Gainontzekoek bihar jokatu dituzte dagozkien kanporaketak eta igandean izango dira finalerdiak eta finala.

Asula-Ayastui bikotea

Gizonezkoen B multzoan dagoen bikote horrek ez du txapelketako partidurik jokatu oraindik; beraz, bihar, zapatua, sei norgehiagoka izango ditu aurretik. Sernak, horren harira, honako hau esan du: "Sei norgehiagoka asko dira egun berean jokatzeke eta ez dakit bikote honek jokatutako beharreko partidu guztiak jokatu dituen. Gu baikorrak gara eta baiezkoan gaude".

Luntxa igandean

Igandean jakingo dira txapelketa horretako irabazleen izenak, eta, partidu guztiak jokatu ostean, parte-hartzaile guztientzat luntxa egongo dela adierazi du Sernak.

Lau urteren ostean, bueltan da Ozkarbi elkartearen eguna

Ozkarbi eguna antolatzearekin batera, elkarteak berrikuntza lanak egin ditu egoitzako hainbat gunetan

M.R. ELGETA

2015ean egin zen azkenengo aldiz Ozkarbi eguna, eta aurtun, lau urte igaro ostean, elkarteak bere eguna ospatuko du, hilaren 25ean, hain zuzen ere. Elkarte-ko lehendakari Oxel Erostarbek hauxe adierazi du: "Elkarte barruan hausnarketa prozesu bati hasiera eman genion elkarte biziberritzeko asmoz. Duela hamar kada batzuk, gure elkarte herriko erreferentetako bat zen, mendi eta dantza taldea barruan zeudelako, besteak beste". Era horretan, lehengo izaera berres-

kuratzeko asmoz, elkarteak hainbat ekintza egin ditu; taberna berritu eta gazteendako gunea sortu, adibidez. Horrez gain, hainbat ekintza kultural eraman ditu aurrera Ozkarbi, eta, azken egunetan, duela urte batzuetatik galduta zuten Ozkarbi eguna antolatzen ari direla azaldu du Erostarbek.

Hilaren 25eko egitaraua osatu dute eta hainbat ekintza egingo dira; besteak beste, erromeria eta bazkaria. Azken horretarako, izena eman daiteke elkartearen, 25 euro ordainduta.

Jaiak iragarriko dituen kartela

Ferixa Nagusiko jaietako III. kartel lehiaketara aurkeztutako zortzi lanetatik, Izar Han Xue Irazabal Gillegiren kartela izango da ekainaren 27tik 30ra bitartean ospatuko diren jaiak iragarriko dituen. *Suzko zezena* lanak botoen %40 jaso ditu eta 100 euroko saria jasoko du Izar Han Xuek.



IZAR HAN XUE IRAZABAL GILLEGI

EH Bilduk hainbat ekintza antolatu ditu kanpainaren baitan


EH Bilduk antolatuta, 35 bat lagun batu ziren martitzenean udaletxeko areto nagusian, Aritz Saidi antzuolarraren hitzaldia entzuteko. Siriaz eta bertako erresistentziak jardun zuen Saidi, besteak beste.

Horrez gain, Elgetako EH Bilduk gaur egingo du hauteskundeetara begirako ekitaldi nagusia eta herri argazkia, plazan, 19:30ean hasita. Bestalde, maiatzaren 21erako, pentsioen inguruko hitzaldia antolatu du udaletxean; 19:00etan hasiko da. Hizlariak Xabier Isasa Pentsionistak Martxaneko kidea eta Nerea Kortajarena EH Bilduko legebiltzar-kidea izango dira.

Kantuak eta dantzak izango dira igandean protagonista

Herrixa Dantzan eta Elgeta Kantuan elkarteek elkarlanean antolatu dute igandeko V. Kantu eta dantza eguna.

Kantu-jira izango da eguneko lehen ekintza eta 12:30ean abiatuko da herriko plazatik, gonbidapena onartu duten taldeekin –Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Eibarko taldeak daude gonbidatuta–. Ondoren, kiroldegian hainbat herritar elkartuko dira bazkalondoren etorriko dira, eta, eguna behar bezala borobiltzeko, 18:00etan Herrixa Dantzan elkar-teko kideek dantzaldia eskainiko dute, Jainagaren eta Narbaizaren zuzeneko musikarekin eta Patxi Monterok gidatuta.



Agorrosingo berdegunea artifiziala izango da, beranduenez, 2023rako

Bigarren zelai baterako behar gorriak eraginda, BKEk dohaintzan emango dio Udalari Agorrosin; Udalak konpromisoa hartzen du belar artifiziala jartzeko lehen faserako milioi bat euro gordeko duela 2023ra bitartean, 2021eko udal aurrekontutik hasita

Jokin Bereziartua BERGARA

Hurrengo agintaldia izango da Agorrosin Berria errealitate bihurtzeko agintaldia; belar naturala kendu eta artifiziala jartzeko lehen fasea, behintzat. Hala jasotzen du asteleheneko osoko bilkuran onartu eta eguaztenean Udalaren eta Bergara Kirol Elkartearen artean sinatu zen hitzarmenak: BKEk 26 urterako dohaintzan emango dio Udalari Agorrosin, eta, trukean, kanpoko finantzaketa barik eta udal aurrekontuetatik gordeta, beranduenez, 2023ko ekainerako artifiziala izango da Agorrosingo berdegunea. 2017an Izaskun Larzabalek eta Realak egindako aurreproiektua hartzen du oinarri moduan BKEk. Behin betiko proiektuak idatzita egon beharko du 2020ko maiatzetako.

Lehen faserako, milioi bat euro

Gogora ekarri behar da Agorrosin Berrirako lehen fase horretan belar artifiziala jartzea dela lanik handiena, argiteria, hesi peri-

metrala eta atezainendako eremua egokitzeaz gain. Lehen fase horretarako aurrekontua milioi bat eurokoa da; kanpoko finantzaketa barik, Udalak konpromisoa hartzen du 2021eko ekitaldian 80.000 euro bideratzeko, 2022koan 100.000 euro eta 2023koan 100.000 euro. Aurrerago, bigarren fase batean, aldagela eta harmaila berriak izango lirarteke lan handienak; hirugarren fasean, eraikin eta kantina berriak aurreproiektuan.

Akordioa balioan jarri "beharra"


Aldi berean, ezin da ahaztu gutxienez azken 30 urteetan ez dela posible izan Udalaren eta BKEren artean akordio batera iristea Agorrosin udalekotezko. Negoziazioak "zailak eta luzeak" izan dira, Udal Gobernuak eta BKEko zuzendaritzak onartu dutenez, baina pozik daude akordioa egiteko gai izan direlako. "Horrenbeste agintaldiren ostean adostasun batera heldu izana pozgarria da, egoera benetan

onean gaude", dio Elena Letek. BKEko presidente Iosu Elorzak ere akordioa balioan jarri eta Agorrosin Berria egiteko duten beharra azpimarratu dio GOIENARI: "Klubeko jokalariek eta futbol eskolako neska-mutikoei beharrezko instalazioak izango dituzte, azkenean".

"Harridura", orain datorrelako

EH Bilduk alde bozkatu zuen osoko bilkuran, Agorrosin udalekotezaren alde dagoelako, BKEren beharrak asetzeko eta eremuari beste kirol erabilera batzuk emateko bideak irekitzen dituela iritzita. Hori bai, prozesua salatu dute, baita harridura erakutsi ere horretarako ezohiko bilkura bat deitu izanagatik.

Irabaziren ustez, hitzarmena orain sinatzea "gutziz elektoralista" da. Horrez gain, hitzarmenaren kontra bozkatu zuen beste lanketa bat eskatzen duela uste duelako eta "asko" erabiltzen diren atletismo pistak desagertzeko arriskua dagoelako.



ELENA LETE

EAJ

"Akordioa balioan jarri behar da. Bestalde, argi dago arazoak daudela espazioari dagokionez. Gure harrobia indartuta irtengo da eta BKEk bere plan estrategikoa garatu ahaliko du. Oposizioak leporatu digu elektoralista dela; ez da hala, hiru urteko lan nekezaren eta zailaren emaitza da hitzarmena".



GORKA ARTOLA

EH BILDU

"BKEren beharrei erantzun behar zaie eta beste kirol erabilera batzuetarako ateak irekitzen ditu, eta alde gaude. Baina prozesua oso iluna izan da, Gobernuak ez digu inolako informaziorik eman eta ez digu lanketarik egin elkarrekin. Hitzarmen hau bera hamabost egun barri berdin onar daiteke".



AIERT LIZARRALDE

IRABAZI

"Seme-alabak futboleant ditut, badakit ze errealitate dagoen. Ez gaude BKEren helburuen kontra, atletismo pistak mantentzea eskatzen digu, asko erabiltzen dira eta. Gobernuak dio lanketa handiak egin dituela gaiarekin, baina duela lau urte berdin onar zitekeen. Elektoralista da, erabat".



J.B.

"Elkarlanean diseinatuko dugu proiektua"

IOSU ELORZA

BKE-KO PRESIDENTEA

Pozik Udalak bat egin duelako hitzarmenarekin?

Oso balorazio positiboa egiten dugu, azken 30 urteetan ez da-eta posible izan. Gure lehen tasuna da instalakuntza arazoari irtenbidea ematea, eta azken urteetako lanari esker Agorrosin Berria martxan jarriko dugu. Jokalariek eta futbol eskolako neska-mutikoei beharrezko instalazioak izan ahaliko dituzte. Gainera, eremua ondo aprobetxatuta, bestelako aukerak ere sortuko dira. **Hemendik aurrera zer?** Proiektua diseinatzeari ekingo diogu elkarlanean. Belar artifizialaz gain, instalazioak hobetu egingo dira, zerbitzu berriak sortu, aparkalekuak gehitu daitezke... Hainbat aukera irekitzen dira; helburua da ahalik eta etekin handiena ateratzea.

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Bide segurua nahi, oinez edo bizikletaz mugitzeko

San Juango eta Uberako auzotar talde batek "aspaldiko eskaera" baten berri eman dio GOIENARI asteon; herrirako joan-etorriak oinez edo bizikletaz egiteko bide segurua bat eskatzen dute: "Berdin zaigu gorria, berdea edo beltza, baina bide segurua bat behar dugu"

Jokin Bereziartua BERGARA

Auzobide izeneko plataformak Uberan eta San Juanen bizi diren bergararrak kalerako joan-etorriak oinez edo bizikletaz era seguruan egiteko eskubidea aldarrikatu du asteon. "Aspaldiko eskaera" izan arren, diote ez dutela Diputazioaren eta Udalaren erantzun eraginkorrik jaso, eta plataformarekin "lehenbailehen" biltzeko eskatu die bi erakunde horiei: "Ez genuke manifestazioekin, errepide mozketekin eta antzeko dinamikekin hasi nahi".

Gogora ekarri dute 2014an oinez edo bizikletaz Uberaraino egin zen "martxa jendetsua". Orduan ere, gogoratu dutenez, bide segurua bat eskatu zuten: "Bide gorria, bide berdea, edo bide beltza; kolorea berdin zaigu, baina bide segurua". Adierazi dutenez, bost urte hauetan jarraitu dute euren eskaera Udalera eta Diputazioa bideratzen, baina ez omen dute erantzun eraginkorrik jaso orain arte.

"Beharrezkoa" etorkizunari begira Etorkizuneko mugikortasunari begira "beharrezkoa" da, Auzobideren ustez, errepidearen bazterrean bide segurua bat egitea: "Etorkizuneko mugikortasuna ezin da autobus zerbitzuan



Noiz arte autoak toreatzean? dioen pankarta, aldarrikapen gisara. AUZOBIDE

edo auzo-taxian oinarritu. Bi edo hiru kilometro besterik ez daude Bergararik San Juango poligono industrialera eta lau edo bost kilometro Uberara; distantzia aproposak dira oinez edo bizikletaz egiteko".

"Baztertuak sentitzen gara"

Auzobideren arabera, 400 auzotar eta 700 langile inguru dira bi auzo horietan eta inguruetan bizi direnak edo lan egiten dutenak: "Jende askok esaten digu bizikletaz mugituko litzatekeela baldin eta bide seguruagoa

balu. Ez dezagun ahaztu bizikleta normalaz aparte indarra hartzen ari dela asmazio berri bat: bizikleta elektrikoa". Horrekin batera, Debagoienera bidegorri sarean eman diren abantailak nabarmendu dituzte: "Zorionez, asko aurreratu da gure eskualdean gai honetan. Eskoriatza, Oñati eta Soraluez lotzen dituen bidegorria egin dago, Antzuolako ere ematen du egingo dela, baina gurea eta Angiozarko ez dira aipatu ere egiten. Diskriminatuak, ahaztuak eta baztertuak sentitzen gara".



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Hauteskunde kanpainak berri

Bi hilabeteko entretenimendua. Alderdi batzuek gora, behera egin dutenak ere badira eta lurpera egin duenik ere bada. Hainbeste jardun, etorkizunari begiratu ordez aurkariak dituen ahuleziak eta akatsak aurpegiratzen. Zein dotorea, atsegina, aberatsa eta gizartearentzat benetan onuragarria zatekeen helburu orokorrak, funtsezkoak, justizia eta berdintasun bide eraikitzaileak aurkitzen ahaleginduko bagina. Ezker abertzaleak badu zer eginik tentazio horietan erortzeke. Baina aurkariaren planteamenduak zorrotz aireratuta, ulergarri ipintzeko ezinbestekoa da norberak dituen planteamenduak argi eta kartsu gizartearen aurrean jartzea. Adibide bat erabiliko dut, pittin bat behartua. Arbolaren enborra sustraiari ongi itsatsia egon dadila; adar, hosto, kimu eta lorez hornitua. Jarraian fruituak eta haziak erneko dira hirietan eta herrietan. Baina, enborretik hasita, prozesu osoa bermatu behar da. Egokia litzateke liburuxka bat ateratzea, arbolaren zati guztiak laburki, gozoki, eta pedagogikoki bilduko dituen. Egiten diren debate, tertulia, eta abarretan azalkeriatan eta berba potoloetan artifizialki ibili gabe.

OHARRAK

Pentekosteetako herri bazkarirako sarrerak

Maiatzaren 23an jarriko dira salgai, Seminarixoko txarteldegian. Ondorengo egunetan Udaleko Kultura Zerbitzuan eskuratu ahalko dira, 18:00etatik 20:00etara. Pertsona bakoitzak gehienez sei sarrera erosi ahal izango ditu. 690 pertsonarentzat lekua egongo da.

Udaleku irekietarako azken eguna da gaur

Uztailaren 1etik 26ra izango dira eta hiru modu daude izena emateko: Bergararren Arreta Zerbitzuan, liburutegian edo Udalaren webgunean (www.bergara.eus/eu/node/11630).

San Joxepe: omenaldia 87 urte egiten dutenei

Etzi izango da: meza Santa Marinan (10:30) eta gero aureskua Alkabetako elizpean. Omenduei opari bana emango diete eta luntxa egongo da; elkarteko ateak irekiko dizkiete gura dutenei.

Bergarako Errealzaleak: Errioxara irteera

Maiatzaren 25ean Errioxako upategi batera joango dira bazkideak; izena eman behar da hilaren 21a baino lehen. Prezioa: 40 euro.

1952an jaiotako urteroko bazkaria

Ekainaren lehen batzokian batuko dira: ES17 3035 0009 1800090098783.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira

ile-apaindegia edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Maderas Irizar enpresako arduradunak EAJko ordezkariekin. EAJ

Berrikuntza, erantzukizuna eta talentua sustatu nahi ditu EAJk

Erakundeen arteko lankidetzak ikusten dute jeltzaleek aberastasuna eta enplegua sortzeko oinarri moduan

Jokin Bereziartua BERGARA

1885ean ireki zuten Bergarako Maderas Irizar zerrategi ezaguna bisitatu zuten astelehenean EAJren alkategai Elena Letek eta foru diputatu Ainhoa Aizpuruak. Leteren ustez, "txalotzekoa" da Maderas Irizarren ibilbidea: "EAJ gure enpresen eta ekintzaileen bidelagun izango da teknologia berrietara eta prozesu berritzaileetara iristeko, langileen formakuntzan eta garapenean sakontzeko eta Bergara eta inguruarekiko lotura eta erantzukizunari eutsi ahal izateko. Maderas Irizarrek garbi erakusten ditu sustatu nahi ditugun balioak: berrikuntza, talentua eta erantzukizuna".

"Gure ekonomiaren oinarria"

Alkategaiaren arabera, Maderas Irizar negozio familiar bat da, herrian "sakon sustraitutakoa" eta hainbat hamarkadatan he-

rrian "abertasuna eta enplegua" sortu duena: "Eragile aktiboa izan da baso-masaren kudeaketa jasangarrian. Horregatik, halako jarduerak babesteko ahalgin guztiak egin behar ditugu".

Era berean, Sustapen Ekonomikorako diputatu Ainhoa Aizpuruak erakundeen arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu zuen, eta gaineratu Euskadiko enpresen %84k izatera familiarra dutela: "Horregatik, gure ekonomiaren oinarri ukazina dira eta eragile oso garrantzitsua enplegua sortu eta bultzatzerako orduan".

Ekitaldia berezia etzi, Urkullurekin

Domekan, azken 40 urteetan udal hauteskundeetako zerrendetan joan diren kideei aitortza egin die EAJk San Martin plazan (11:00); parte hartuko dute Elena Letek, Markel Olanok, Joseba Egibarrek eta Iñigo Urkulluk.



Zubietako bizilagun batzuk EH Bilduko ordezkariekin, zubi eraberrituan. EH BILDU

Bergararrak erdigunean jarrita gobernatzea du EH Bilduk helburu

Herritarren ongizatean sakonduta, herri "feminista, anitza, solidarioa, gaztea eta jasangarria" dute helburu

Jokin Bereziartua BERGARA

Apirilaren 28ko emaitzek ilusioa berreskuratzeko eta duten indarra erakusteko balio izan zutela adierazita, maiatzaren 26ko hauteskundeetan "jokaldia errematatu" egin behar dela uste du EH Bilduk. Gorka Artola alkategaiaren arabera, herriko beharrak identifikatu ostean zehaztu dute programa; besteak beste, liburutegi baten beharra, hirugarren adinekoen arloa indartzea, aisialdi-guneen beharra, gazteekin lanketa egitea eta auzoetara zabaltzea. "Baina, batez ere, pertsona jarri gura dugu erdigunean, eta udal politiken helburu bihurtu. Guztiondako bizitza duinak nahi ditugulako eta helburu nagusia herritarren ongizatean sakontzea delako. Bergara feminista, anitza, solidarioa, gaztea eta jasangarria gura dugu", gaineratu zuen domekan Fraiskozur in egindako kanpainako eki-

taldi nagusian. Bertan izan ziren, Bergarako zerrenda osatzen duten herritarrekin batera, diputatu nagusi izateko hautagai Juan Karlos Izagirre eta Espainiako Kongresuko diputatu izendatu berri Mertxe Aizpuru.

Mizpirualden eta Zubietan

Hain zuzen, Izagirre, Aizpuru eta Artola Mizpirualdeko egoitzan eta Zubietan kalean izan ziren ekitaldi politikoaren aurretik. "Mizpirualdeko langileak greban daudela jakinda, euren egoeratik ere interesatu ginen. Zubietan, berriz, errepidea Diputazioarena denez, Izagirrek irtenbideak aurkitzeko borondate osoa azaldu zien bizilagunei".

Matuteren bisita hilaren 22an

Kanpainako hurrengo ekitaldien artean, EH Bilduk iragarri du Oskar Matute izango dela maiatzaren 22an Irala kalean (19:00).



"Behar gehien dutenei" begira aurkeztuko da alderdi sozialista

PSE-EEren alkategai Alberto Alonso, Diputaziorako PSE-EEren hautagai Denis Itxaso eta alderdi sozialistako beste zenbait aurpegi ezagun eskuorriak bantzen aritu ziren atzo arratsaldean. Alonsok dio "behar gehien dutenei" begira aurkeztuko dela hauteskundeetara: "Irabaztea baino garrantzitsuagoa da guztientzat gobernatzen jakitea. PSE-EEren helburua da gehien behar dutenak eta bereziki gizarte bazterkeria egoeran daudenak babesteko politikak bultzatzea. Proiektu zehatz bat ipintzearen, jantoki sozial bat irekitzea gustatuko litzaiguke".



Ahal Dugu-Podemosen aurkezpena gaur Munibe plazan (19:00)

Begarako Ahal Dugu-Podemosek udal hauteskundeetarako programa aurkeztuko du gaur Munibe plazan (19:00). Talde morea lehen aldiz aurkeztuko da udal hauteskundeetara eta Jose Maria Sasieta alkategaiak espero du bi edo hiru zinegotzi lortzea: "Herritarren alde gobernatuko duen programa sozial bat duten alderdiekin egingo ditugu itunak, ez enpresa erakitzaileei begira dauden alderdiekin". Ahal Dugu-Podemosen lehentasuna berriro urbanizatze beharra duten auzoak dira, Sasietaen arabera; tartean, Zubietan, Osintxu eta Martokoa.



Irabazik Udalaren jarduna "demokratizatzea" nahi du

Udaleko "autoritarismoa" alboratu behar dela diote: "XX. mendeko jarrerak ikusten ari gara udal politikan"

Jokin Bereziartua BERGARA

Udaleko funtzionamendua "demokratizatzea" nahi du Irabazik. Aiert Lizarralde zerrendaburuen arabera, Udalak azken lau

urteetan erakutsi duen "autoritarismoa" albo batera utzi behar da: "XX. mendeko jarrera batzuk ikusten ari gara udal politikan". Igerilekuak eta auzoak ere izan

zituenez Lizarralde martitzenean zerrenda aurkezteko egindako agerraldian: "Hainbat aukera ikusten ditugu igerilekuen egoera hobetzeko; adibidez, batzen den estalkia jar daiteke, igerilekua neguan eta udan erabilgarri egon dadin. Bestalde, oso zaharrituta dauden auzoak berritzen joan behar da eta landa eremuko auzoei diru partidak bideratu behar zaizkie, euren beharrei erantzuteko gai izan daitezten".



Irabaziko hautagaiak martitzenean, San Martin plazan. AMAIA TXINTXURRETA



Musika eskolako ikasleak: abesbatzako haurrak eta musikariak. M.E.

350 ikasle izango dira Udaberriko kontzertuan

30. urtez egingo dute ekitaldia. Kontzerturako sarrerak Musika Eskolako idazkaritzan eros daitezke 4 euroren truke –12 urtetik beherakoek, 2 euro–; eta egunean bertan, ordubete lehenago zabalduko dute pilotalekuko leihatila. Ondoren, afaria egongo da

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Musika Eskolako ikasleek Udaberriko kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan. Aurtengoa urteurren borobila izango da: 30. jai-kontzertua eskainiko dute musikariak eta taula gainera igoko dira 350 bat ikasle.

19:00etan hasiko da ekitaldia, eta Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek azaldu du "denarik" entzuteko aukera egongo dela.

Ekitaldirako sortutako abestia

Kontzertua eskolako txikienek hasiko dute, eta horiek biolina joko dute. Jarraian, perkusionistak, txistulariak, trikitilariak eta dantzariak igoko dira taulara. Dantza herrikoiak eskainiko dituzte.

Marije Udaldetik aurtengo Udaberri kontzerturako propio sortu duen *Udaberriko jai*a abestia interpretatuko dute ondoren Hasiberrien abesbatzak eta akordeoi taldeak. "Aurtengo ekital-

dirako sortutako abestia izango da hori", dio Ugaldek.

Musika Eskolako Gazte Bandak ere izango du protagonismoa bihar. Hiru obra eskainiko dituzte, eta azkenengo obran, haurren abesbatzaren, hasiberrien abesbatzaren, ahots teknika ikasleen, musika tailerreko ikasleen, koraleko ikasleen, hizkuntza musikaleko ikasleen eta kantu ikasleen laguntza izango dute.

Ondoren, *Ostadar zuria* abestuko du harren abesbatzak, pianoak eta perkusioak lagunduta.

Obra berezia gitarrarekin

Ekitaldiak amaieran izango du puntu gorena. Maria Borislavova gitarra joleak orkestrarekin

**MARIA BORISLAVOVA
GITARRA IKASLEAK
BACARISSEREN
'ROMANZA' OBRA
ESKAINIKO DU**

batera joko du. Salvador Bacarisse musikariaren *Romanza* pieza ezaguna eskainiko dute.

Doinu ezagun batetik beste batera pasako dira jarraian. Izan ere, *Piratas del Caribe* filmeko soinu banda eskainiko dute. Amaitzeko, hasiberri eta haurren abesbatzek eta kantu ikasleek John Rutter musikariaren *Look at the world* eskainiko dute.

Amaitzeko, ohikoa den moduan, Musika Eskolako ereserkia eskainiko dute. Kontzerturako sarrerak musika eskolan eros daitezke, edo egunean bertan ordubete lehenago, leihatilan.

III. Talde Lehiaketa

Kontzertuaren ondoren, afaria egingo dute Seminarioko karpan 100 bat lagunek –txartelak eskuratze azken eguna eguaztena zen–. Afalostean, III. Talde Lehiaketa egingo dute. Sei taldek eman dute izena lehiaketan parte hartzeko: talde irabazleak 200 euroko saria jasoko du eta bigarrenak, 100 eurokoa.

Emakumezko futbolaren aldeko apustua, irudi eta guzti

Maiatzaren 25eko jardunaldian, emakumezkoen futbolerako diseinatutako panpina aurkeztuko dute

A.E. BERGARA

Emakume futbolarien topaleku izango da Agorrosin maiatzaren 25ean. Futboleant jokatzea nahi duten neskek elkartzeko da Bergara Kirol Elkartearen asmoa; gainera, Usoa Mendikute ilustratzaileak emakumezkoen futbolerako propio diseinatutako panpina aurkeztuko dute.

Maiatzaren 25ean 11:00etan hasiko dute topaketa.

Adina: ez dago mugarik

Topaketa edozein adinetako neskei zuzenduta dago; bai bergararrei eta baita inguruko herrietako ere. "Futbol talde baten funtzionamendua ezagutu eta kirola egitera animatzeko asmoz daudenei", azaldu dute antolatzaileak. BKEko emakumezkoen taldeetako entrenatzaileak eta senior mailako jokariak gidatuko dute jardunaldia. Ho-



Usoa Mendikute, ilustrazioarekin. BKE

rez gain, gizonezkoen lehen taldeko jokalariek ere egongo dira.

Askotariko ekintzak egingo dituzte jardunaldian: jokatzeo aukera izateaz gain, hitzaldi txikiak ere izango dituzte. Amaitzeko, luntxa izango dute.

'Napardeath' filma domekan

Dynamo zineklubak antolatuta, *Napardeath* filma eskainiko dute kartzela zaharrea domekan. Hiru emanaldi izango dira: 16:00etan eta 17:30ean –18 pertsonako edukiera. Izena eman behar da, gaur, 22:15ean, kartzela zaharrea. Emanaldi nagusia 19:00etan izango da, izena eman gabe, eta ondoren solasaldia egingo dute zuzendariak.



NAPARDEATH

Udaberri txapelketa eta lau eta erdikoa, gaur, Udal Pilotalekuan

Bi partidu jokatuko dituzte, gaur, barikua, Udal Pilotalekuan. 19:30ean hasiko da lehena: infantil mailakoa izango da, Udaberri txapelketakoa. Aloña Mendi 3 taldeak Bergararen aurka jokatuko du. Bigarren partidua lau eta erdian jokatuko dute, neskek: Plaza Emakumeak Bergararen aurka lehiatuko da. Nagusien mailako lehia izango da.

Bira amaierako kontzertua eskainiko du Lenaok Buleren

Oñatiko Lenaok taldeak bira amaierako kontzertua eskainiko du gaur, 23:00etan, Buleren. Oñatiarrek 2018ko irailean *Iparaldeko argiak* diskoa argitaratu zuten eta ordutik hainbat kontzertu eskaini dituzte. Taldeak nabarmendu nahi izan du Egoitz Olalde bateria-jotzailearen azken emanaldia izango dela gaur eskainiko duena.

Jai integratzailea ospatuko dute bihar

Aurtengo San Isidro jai berezia izango da. Izan ere, Debagoieneko Atzegi Eguna eta Artzainen Eguna ere ospatuko dira bihar Antzuolan. Hala, baserriarren egun handia integratzailea ere izango da; askotariko ekintzez gozatzeko aukera egongo da

Maidar Arregi ANTZUOLA

San Isidro jaiak esanguratsiak izan dira antzuolarrendako. "Saso batean, ikaragarriko indarra zuen eta egunean bertan ospatzen zen, maiatzaren 15ean, alegia", gogorarazi du Beñardo Kortabarría alkateak. Orain, jai asteburura pasata dago, eta bihar, zapatua, egingo dira baserriarren eguneko ospakizunak.

Aurtengoa, baina, berezia izango da, baserriarren jaiari Debagoieneko Artzainen Eguna eta Atzegi Eguna ere batuko zaizkio eta. Hala, artzaintzarekin zerikusia duten ekintza ugari antolatuko dituzte elkarrekin Antzuolako Udalak eta Debagoieneko Artzainen Eguneko antolatzaileek.

Atzegizaleak ere batu dira ospakizunera, eta festa integratzailea izango dela aurtengoa aurreratu du Kortabarría: "Antzuolan euren bazkaria eta bazarra egin izan dute, eta aurten elkarrekin bazkaldu eta dantza egitea proposatu genien. Helburua da jai integratzailea egitea bihar".

Omenaldia herriko artzainei

Aurten, 75 urtetik gorako herriko hiru artzain omenduko dituzte: Alzetako Patxi Lete, Lamañoko Joxe Jauregi eta



lax, esne-jezte desafioa egin zuten. GOIENA

HERRIKO ARTZAINEI AITORTZA EGINGO ZAIE, LEHENENGOZ, SAN ISIDRO EGUNEAN

Egurribai baserriko Matilde Urtueta. "Hiru baserriar hauek betidanik izan dute artaldea baserrian; gazta ere egin izan dute eta euren ingurukoek jarraipena eman diote, gainera, baserriko lanari eutsiz. San

Isidro eguna indartzeko asmo horrekin antolatu dugu omenaldia, eta pixkanaka egun hau bere izaera finkatzen ere badaibil azken urteetan", azpimarratu du Antzuolako alkateak. "Ekintzak aste barrura ere igaro ditugu, esan moduan, festa indartuz joateko. Aurten, gainera, ohiko bertso saioa egin beharrean, bertso-kalejira egingo dugu herritarrengana iristeko". Aipatu behar da herriko artzain gazte batek 30 buruko artaldeari ilea moztuko diola herritarren begiradapean.

Agintaldiko azken osoko bilkura, sintonia onean

Ohiturari jarraituz, alkateak udal bandera eta karta banatu zizkien zinegotzi guztiei azken osoko bilkuran

Maidar Arregi ANTZUOLA

Maiatzeko osoko bilkurara eroandako aztergai guztiak onartu zituzten. Lehena, eta aho batez onartu zutena, herriko taldeekin adostutako kirol hitzarmena. "Urte hasieran adostu genuen taldeekin urtean zehar egingo zutenaren berri emango zutela aurrez. Horren arabera banatuko ditugu zazpi mila euro", argitu zuen Kirol zinegotzi Garazi Larreak.

Bestetik, Udalak Jakion sozietatean dituen partaidetzak saltzea onartu zuten. "Baserriarrak eta Nekazaritza Ganberak sortutako elkarte da Jakion. Orain, eraldaketa zentroa egingo dute. Hala, inbertsio indartsuak egingo dira eta aurrerantzean Jaur-laritzak diruz laguntzen jarraituko du Nekazaritza Ganberarekin batera. Kapital pribatua sartzea eta udalak irtetea pro-

posatzen da", azaldu zuen Beñardo Kortabarría alkateak.

Sareren erakunde adierazpena

Azkenik, aho batez onartu zuten Sarek aurkeztutako presoen urruntzeari dagokion erakunde adierazpena. Bertan izan zen Sareko kide Mikel Olabarria, eta zinegotzietatik eskatu zuten urrunketa eta sakabanaketa amaitzea aldarrikatzen duen adierazpenarekin bat egitea. "Humanizazio prozesu bat abiatu gura dugu sakabanaketa amaitzeko eta gaixotasun larria dutenak askatzeko". Alderdi guztiek onartu zuten mozioa, aho batez. "Aro berri baten aurrean gaude eta ETA ez dago. Presoen hurbilketarekin legea betetzea dela uste dugu. Bizikidetzaren alde urratsak egin behar dira", aitortu zuen alderdi sozialistako zinegotzi Miren Gallastegik.

EH Bilduk ekitaldia egingo du hilaren 23an, Zurrategin

Antzuolako EH Bilduk hauteskunde kanpainako ekitaldia egingo du antzuolarren aurrean datorren maiatzaren 23an, egue-na. Arratsaldeko zazpitan izango da ekitaldia Zurrategiko plazan. Bertan izango da EH Bilduko zerrendaburua eta egungo alkate Beñardo Kortabarría. Hainbat herritarrek ere parte hartuko dute ekitaldian.

San Isidro pilota txapelketako finalak jokatu dira bihar

Zapatuan, maiatzaren 18an, jokatu dira Antzuolako emakumezkoen lehen San Isidro txapelketako finalak. Arratsaldeko sei etan hasitako dira eta herriko pilotalekuan jokatu dira. Benjamin-alebinen, infantil-kadeteen eta helduen bi mailetakoko finalak jokatu dira. Esan behar da, baina, Antzuolako pilotaririk ez dela finalera pasa.

San Isidro eguneko egitaraua

Goizean, baserriarren ganadu eta barazki postuak egongo dira. Baita artisauenak ere.

Maiatzak 17, egubakoitza

• **19:30** Bertso-kalejira Miren Amurizarekin eta Beñat Gaztelumendirekin, Zurrategin.

Maiatzak 18, zapatua

• **09:30-12:30** Bildotsak erre, eta pintxoak banatuko dituzte.

• **11:00** Salda eta txorizoa Trekutzen.

• **11:45** Atzegi Eguneko Asanblada, Olaranen.

• **12:00** Txakolin-dastaketa, Buztinzuri inguruan.

• **11:00** Gatzatua egiteko tailerra, herriko plazan.

• **11:00** Artiletik harira tailerra, herriko plazan.

• **11:00-12:30** Ahariaren pisua asmatzera.

• **12:30** Omenaldia 75 urtetik gorako herriko artzainei.

• **13:00** Aizkolariak, Zurrategin.

• **14:30** Herri-bazkaria, patioan, Nafarroa Kanta Taldearekin.

• **18:00** Emakumezkoen Pilota Txapelketako finalak, Udala Pilotalekuan.

• **21:30** Fan&Go taldearekin erromeria, Zurrategin.

• **23:00** Kontzertuak, gaztetxean.

Hiperrealismora bidaia egiten duen erakusketa ikusgai

Moi Ruiz de Azua artista gasteiztarrek *Expresiones transitorias* izeneko argazki erakusketa jarri du Aitz Garbi tabernan. Ekainera arte erretratuez gozatzeko aukera dute herritarrek bertan.

Espazio publikoaren gaineko hausnarketa da Moi Ruiz de Azua artista gasteiztarren erakusketa. "Argazkiak, grafitiak,

heriotzaren eta ahanzturaren aurrean salbatzen ditu. Helburua da arte xumea iluntasunetik ateratzea", dio artistak.

Argazki guztiak teknika bereziaz daude eginak. *Chromaluxe art* izeneko teknikaren bitartez eginak daude, hain zuzen. Modu horretan, erretratuek aluminiozko 40x60 tamainako plaketan daude txertatuta. Eta artistak dio teknika honi esker argazkiek hiperrealismo sentsazioa lortzen dutela. Erakusketa originala ekainera arte ikusgai dago.



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2019



M-26



EAJko hautagaiak, maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako programa prestatzen. EAJ

EAJren programak sozioekonomia du ardatz

Jeltzaleek adierazi dute "pertsonak erdigunean" jarriko dituen herri proiektua prestatu dutela "etorkizuneko Oñati eraikitzeko". Edukiontzien sistema, lokal hutsak erabiltzeko laguntzak eta txirindulariendako barruko aretoa, dituzten asmoen artean

Oihana Elortza OÑATI

"Pertsonak erdigunean jartzen dituen proiektu argi eta sendo bat" izango duen programa prestatu du EAJ alderdiak maiatzaren 26an egingo diren udal hauteskundeetarako, Ainhoa Galdos zerrendaburuak prentsa ohar bidez adierazi duen moduan. Gaineratu du talde jeltzalea "berme bikoitzarekin" aurkeztuko dela, "urteetan udaletxean egindako lan ona" kontuan hartuta: "Bai gobernuan egon garenean kudeaketa gaitasuna frogatuz eta baita oposizioan egon garenean ere, erantzukizunez eta herritarren interesa lehenetsi" dutelako.

Hauteskundeetarako osatu duten taldeari buruz, ibilbide osagarriak dituzten herritarren osatutakoa dela esan dute jeltzaleek, "udal kudeaketan esperientzia dutenekin eta baita udalgintzaren erronkari lehen aldiz helduko diotenekin ere, ikuspuntu berri eta askotarikoak erakarrira".

Sozioekonomia

Aihoa Galdosen hitzetan, "herri proiektu sendo bat" prestatu dute, "erronka berrien aurrean prest egoteko eta etorkizuneko Oñati eraikitzeko". Hala, "oñatiarren bizi kalitatea eta ongizatea helburu", ikuspuntu erabat sozioekonomikoa duen programa prestatu dutela gehitu du.

Lehentasuna emango diote, adibidez, herriko kale eta auzoen garbitasunari. Hondakinei lotuta, "Oñatin egun martxan dagoen eta ondo funtzionatzen duen soluzioa" proposatzen dute: "Landa auzoetan dagoen modura, edukiontzi bidezko sistema garbi, eraginkor eta eroso herri osora zabaltzea". Irisgarritasunari ere garrantzia emango

ERRONKA BERRIEI ERANTZUNGO DIEN PROGRAMA PRESTATU DUELA DIO EAJ ALDERDIAK

diote eta hobekuntza lanak egin gura dituzte herriko hainbat gune eta kaletan.

Arlo sozialean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, adinekoren arreta eta osasuna eta gazteendako aukera berriak gura dituzte. Horretarako, adibidez, mendekotasun maila txikiagoa dutenendako eguneko arreta zentroa jarri gura dute martxan Aldundiarekin.

Tokiko merkataritza indartzea eta lehen sektorea bizirik mantentzea ere badira jeltzaleen beste arduetako bi. Laguntzak aurreikusten dituzte lokal hutsen erabilerarako, ganaduzaleendako eta baso-jabeendako.

Kirol azpiegiturretan, berriz, "kanpoko igerilekuaren eta aisialdi-gunearen proiektua bideratu" gura dutela gaineratu du jeltzaleen alkategaiak. Urrutxun atletismo eta osasun zirkuitua, rokodromo homologatua eta txirindulariendako *in-door* aretoa ere egin gura dituzte datorren agintaldian.



Eguazten iluntzean Eltzia aurrean egindako agerraldia. O.E.

Herritarren babesa jasotzen jarraitu du EH Bilduk astean

Hainbat gaztek eta erretiratut egindako moduan, kultura eta euskara arloetakoak elkartu dira oraingoan

O.E. OÑATI

Datorren agintaldian EH Bilduk kultura eta euskara landuko dituen Iñaki Olalde hautagaiari babesa emateko agerraldia egin zuten hainbat herritarrek eguazten iluntzean Eltzia aurrealdean.

Olaldek berak hartu zuen hitza, Arkaitz Bengoak egindako hitzaurrearen ostean. Harritu prozesuak emandakoa oinarri hartuta Udalera sartu bezain pronto lanean hasiko direla adierazi zuen, besteak beste, "herritarren arteko eraketa eta ahalduntzea bilatuko duen kultur ereduaren alde, herritarrak

sortzaile eta parte hartzaile izango dituen". Kulturarako sarbide unibertsala bermatuko dutela ere esan zuen, eta euskarazko sormena eta zabalkundea bultzatuko dutela.

Hurrengo ekitaldiak

Gaur, egubakoitza, emakumeek dute deialdia eginda euren babesa EH Bilduri emateko; kultura etxean izango da agerraldia, 19:00etan. Martitzenean, solasaldia egingo dute Mikel Biainek eta Izaro Elorzak kultura etxean, 19:00etan, eta 24an alderdiaren ekitaldi nagusia, plazan, 20:00etan.

Sinadura bilketa hasi dute, 'Jare kuartela' ekimenak antolatuta

Erakundeei eta politikariei eskatu gura diete Guardia Zibilak Oñatiko kuartela husteko ekimenean inplikatzeko

O.E. OÑATI

Guardia Zibila Oñatiko kuartelitik joatea eta eraikina herritarren eskura uzteko ekimena da *Jare kuartela*. "Pentsatzen dugu Oñatik etekin handiagoa aterako diola kuartelari eraikina hutsik egonda beteta egonda baino. Guardia Zibila iragan ilun batekin lotzen dugu, arrotza zaigu, ez diogu lekurik ikusten herrian eta eskatzen dugu kuartela hutsik gura dugula herritarrok gure intereseko kontuetarako", dio Aitzol Gandiagak.

Erakundeei gai horretan inplikatzeko eta gaia "serio" hartzeko eskatzeko sinadura bilketa hasi dute. "Jendea mugitzen den gunetan egongo gara: azokan, dendetan, taberna inguruetan...", dio Gandiagak.

Ekainaren 15ean egingo da Jare Kuartela Eguna Oñatin. Ordura arte iraungo du sinadura bilketak eta egun horretan erakutsiko dute herritarren aldetik jasotako babesa; gainera, ospakizun ekitaldiak egongo dira Oñatin antolatzen ari diren jaiaren bueltan.

"Finalera iristeko gakoa defentsan egongo da"

Aitor Ugartek zuzentzen duen taldeak azken faseko finalerdia jokatuko du bihar, Donostian. Partidua irabaziz gero, hurrengo aste bukaeran Tolosan jokatuko den finalerako sailkatuko dira. Oñatiarrak partidu ona egiteko "gogoz" doaz Donostiara

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Gipuzkoako lehenengo mailako ligan maila ona erakutsita –hirugarren egin du Aloña Mendik–, azken fasea jokatuko dute oñatiarrek. Bihar izango da finalerdia, Donosti Dolphins-en aurka –bigarrenak izan dira ligan–, 18:00etan, Aieten.

Partidua irabazten duen taldeak finala jokatuko beharko du hurrengo aste bukaeran Tolosan –Atletico San Sebastian eta STL Azkune finalerdiko irabazlearen aurka–.

Garaipenean sinesten dute

Aitor Ugarte, Jon Ander Ugarte eta Jokin Blanco ibili dira denboraldian zehar taldea zuzentzen. Taldea ondo ikusten dutela diote: "Aste santu ondoren pauso bat aurrera egin dugu jokoan", dio Aitor Ugartek, taldeak azken asteetan izan duen gorakada azaltzeko.

Donosti Dolphins taldea aurkari "indartsua" izango dela dio Ugartek: "Ligan jokatutako bi partiduak irabazi dizkigute. Hala ere, Donostiako partiduan ondo egin genuen aurrera eta taldeak sinistu egin zuen irabazteko gauza ginela". Hain zuzen, "partidu hartako oroitzapena gogoan" dutela joango direla Donostiara azaldu du entrenatzaileak.



Aloña jokalariek, eguaztenean, Zubikoan. A.E.

DONOSTI DOLPHINS TALDEAREN AURKA BI PARTIDU JOKATU DITUZTE AURTEN, ETA BIAK GALDU

Ligako defentsa onenetakoa

"Urte guztian moduan, finalera iristeko gakoa defentsan egongo da", nabarmendu du Ugartek. Liga erregularrean ligako bigarren defentsa onena izan direla gaineratu du entrenatzaileak.

Donosti Dolphins taldeko jokalariek handiagoak izan arren, defentsa ona eginez eta errebotean baloiak hartuz kontraerasoan bizkor irteteko estrategia erabiliko dute oñatiarrek.

Urte hasieran jarritako helburua partiduz partidu joatea izan dela azaldu du Ugartek; eta, hori horrela, denboraldi ona egin dutela. Finalerdiari begira jokalariek guztiak izango dituzte jokatzeke gertu oñatiarrek: "Forma onean, gainera", gaineratu du Ugartek. Jokalariek, gainera, zaleen babesa izango dute bihar.



Hautatuak izan diren zortzi pilotariak; seik jokatuko dute. ALOÑA MENDI

Bihar hasiko dute Herri Arteko Txapelketa Oñatiko pilotariak

Aurkari gogorra izango dute: Altzo. Helburua ahalik eta tanto gehien egitea izango dela dio Josu Osak

A.E. OÑATI

Altzon hasiko du Herri Arteko Pilota Txapelketa Oñatik. 17:00etan hasiko dituzte partiduak: hiru jokatuko beharko dituzte, kadete mailakoa, gazte mailakoa eta nagusien mailakoa.

Pilota entrenatzaile Josu Osak dagoeneko hautatu ditu txapelketan parte hartuko duten zortzi pilotariak. Aldaketarik ezean, zapatuan jokatuko dute: kadete mailan, Odei Loitik eta Mikel Ugartek; gazte mailan, Ibon Perezek eta Iñigo Erlek; eta nagusien mailan, Ander Biainek eta Markel Gartzia.

Maila handiko aurkaria

"Taldea polita atera dugu eta gogotsu gaude txapelketa hasteko. Hala ere, badakigu aurrean maila handiko aurkariak izango ditugula; kanporaketa orekatua izango da", azaldu du Osak. "Nahiz eta galdu, tanto asko egitea izango da helburua", dio.

Gazte mailako aurkariak "oso indartsuak" direla dio; hala, puntu hori izango dela "zailena".

"Bestalde, Altzoko frontoia txikia da, ezaugarri bereziak dituena eta hango ezaugarrietara moldatu beharko dugu joko", gaineratu du Osak.



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

Pausoa

Herrietako udal gobernukideak aldatzeko garaia da. Beste hauteskundeetan ez bezala, munizipalean interes berezia egoten da hautagaiak ezagutzen ditugulako modu batean edo bestean. Ezin ukatu morbo puntu bat ere badagoela. "Politikan" sartzeko pausoa zeintzuek emango ote dute? Oraingoan, zerrenda bateko kide izatea egokitu zait eta emandako pausoren zergatiak galdegin didate. Herrigintza? Ez da soilik udal ordezkarien kontua. Kasu batzuetan, oztopo izatera ere iritsi izan dira. Herrigintza herriko eragile askori esker egiten da. Hor dira kirol elkarteetan gaztetxoaren entrenatzaile, koordinatzaile, laguntzaile, musu-truk lanean dabiltzan hainbat eta hainbat herritar. Auzo elkarte, jaien antolakuntzan, musika edo antzerki talde, bertso eskola, eragile sozial zein herri mugimenduetan parte hartzen dutenak. Ongizate pertsonala ongizate kolektibo batetik abiatu behar dela ulertuta, pausok emanaz dabilzan horiek. Inongo zerrendetan aurkeztu gabe ere herrigintzan dabilzanak. Pauso berririk ez, beraz, beraien alboan eta batera eman nahi nukeena soilik.

Infantil txikiak, txapeldun

Gipuzkoako infantil txiki mailako txapeldun titulua lortu zuten aste bukaeran Aloña Mendiko jokalariek. Liga erregularrean "lan bikaina" egin ondoren, lauko finala jokatuko zuten oñatiarrek aste bukaeran etxean. Finalerdian 60-30 nagusitu ziren Larramendi Atcoss BGCren aurka; eta, final lehiatuan 55-40 nagusitu ziren Zast 2006ren aurka.



Jokalariek entrenatzaile eta laguntzaileekin. ALOÑA MENDI

Marrazki bizidunetako doinuak joko dituzte ozen

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak ikasturte amaierako emanaldiak ari dira egiten egunotan Santa Ana aretoan. 'Harriketarrak', 'Maia erlea' eta 'Pipi kaltzaluze' marrazki bizidunetako soinu bandak interpretatuko dituzte, besteak beste

Oihana Elortza OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak ikasturte amaierako emanaldiak ari dira egiten egun hauetan. Telebistan ikusi ahal izan diren marrazki bizidunak izan dira aurtengo gaia, eta horien soinu bandak ikasten aritu dira. Egun hauetan, emanaldiak egiten dihardute ikasitako hori etxekoei erakusteko.

Instrumentu ezberdinak

Taldeka ari dira egiten emanaldiak. Perkusio taldekoak, gitarra jotzen duten ikasleak, panderoa astintzen dutenak... Bakoitza bere instrumentua hartuta eta taldeko lagunekin batera, ma-

rrazki bizidunetako soinu banda jotzea da helburua. "Ikasturtean zehar beste lan batzuk ere egin ditugu, baina egia da marrazki bizidunak izan direla aurtengo gai nagusia eta ordu asko egin dituzte ikasleek soinu banda horiek ondo prestatzen. Ilusioz joko dituzte etxekoen aurrean", dio musika eskolako zuzendariak, Aitor Madinak.

Hiru emanaldi

Musika eskolan ikasitako piezak Santa Ana aretoan joko dituzte orain. Eguenean egin zuten lehen emanaldia. Perkusio taldeak jo zuen egun horretan, eta, besteak beste, pieza hauek jo zituzten:

Pipi kaltzaluze, Amedio, Masha eta Hartza, Willy Fog, Dartañan eta Game of Thrones. "Aspaldiko marrazki bizidunak dira horietako gehienak, bai. Hurrengo saioetako soinu bandak ere ume izandako askorendako izango dira ezagunak", dio Madinak. Hain zuzen ere, astelehenean hauek joko dituzte: *Maia erlea, Harriketarrak, Pantera arrosa eta The Monster.* Martitzenean, berriz: *Santxo eta Kixote, Ladybug, Maia erlea eta Harriketarrak.* Emanaldi biak 18:30ean hasiko dira.

Musika eskolako eta ikastetxeetako musika taldeek joko dute, Madinak esan duenez.

Euskaldun Berria gelan izango dira odol ateratzeak

Gaur, egubakoitza, egingo dute maiatzeko odol ateratzea. Euskaldun Berria gelan izango da. Azken urteotan MU Enpresa-gintza Fakultatean erabili duten lokalean aldaketak egingo dituztela eta, maiatzetik aurrera Udalak Bidebarrieta kaleko 18an duen Euskaldun Berria eta Euskaltegiak utzitako hainbat gelatan izango dira odol ateratzeak.



Unidad Alavesa taldea. ALEA

Emakumeen Biran laguntzeko boluntario bila dabilta

Maiatzaren 25ean Oñatin hasi eta bukatuko da Emakumeen Birako txirringintza etapa eta egun horretan laguntzaile lanak egiteko boluntarioak behar dituzte; 25 lagunen beharra dute bidegurutzeko zaintzeko 13:30ak eta 18:00ak bitartean. Interesa duenak kiroldegian eman behar ditu datuak, izen-abizenak eta nortasun agiri zenbakia.

Karpak jarriko dituzte Errekalde kaleko jaietan

Auzoko jaiak dituzte asteburuan Errekalden. Urtero moduan, egitarau mardula antolatuta dute; tartean, talde entzutetsuen konzertuak eta goitibeheren jaietsiera. Gaur, egubakoitza, esaterako, Capsula, John Dealer & The Coconuts, Unidad Alavesa eta Band Soun taldeek joko dute. Pailazoak, garagardo dastatzea eta mus txapelketa ere izango dira domekara bitartean.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakleak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
 - Ureztatze sistemak
 - Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jami nahil baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Xabier Urzelai ARRASATE

Talde txuri-urdina Erregina Kopa irabazi izanagatik ospakizunetan murgilduta dagoen honetan, GOIENAK Realaren atea zaintzea zer den ondo dakiten bi lagun batu ditu. Sokoa Azkarate (Arrasate, 1979) sei urtez egon zen Realean eta Oihana Aldaik (Aretxabaleta, 1992) aurtengo denboraldia egin du atezain lanetan. Zapatuan Granadan lortutakoaz eta azken urteetan egindako bidez jardun dute.

Hasteko, jokatu duzue inoiz elkarren kontra?

Sokoa Azkarate: Bai, belaunaldi ezberdinetakoak gara eta ez zen denbora askoan izan, baina bai.

Oihana Aldai: Gogoan dut ni Eibarren egon nintzanean jokatu genuela elkarren kontra, bai.

Oihana, barneratu duzue Realarekin lortu duzuen?

O.A.: Oraindik ere horretan dihardugu, ez pentsa.

Harrera beroa jaso zenuten domekan Donostian, baina Gipuzkoako herrietatik pasatzea falta zitzaizuen.

O.A.: Eta garrantzitsua da, badakigulako zapatuan Donostiaz gain Gipuzkoa osoan eta baita Euskal Herrian ere jende asko egon zela gure partidua telebistaz jarraitzen. Gainera, geroago eta gutxiago bagara ere, taldekide guztiak ez gara Donostia aldekoak.

Sokoa, zelan bizi izan zenuen Realaren Kopako finala?

S.A.: Emozio handiarekin, hunkituta... Eta Granadara joan ez izanaren pena galantarekin. Ibili ginen partidura zelan joan ikusten, baina ez zen batere erraza eta Granada urrun dago. Realeko taldekide ohiek Whatsapp talde bat dugu eta elkarri idazten ibili ginen. Bizilagunak ohartu ziren, bai, Realak Kopa irabazi zuela; kar, kar.

Zelan baloratu behar da 1.000 real-zale Granadaraino joan izana?

S.A.: Sekulakoa da. Gure sasoiaren etxean jokatzeko genituen derbietan ere ez zen horrenbeste jende harmailetan batzen.

O.A.: Aurten, erabakigarria izan da Athleticen kontra Anoetan jokatu genuen partidua. Harmailak bete egin ziren eta norgehiagoka ederra jokatu Athletic irabazi egin genion. Jarraian etorri zen Kopako finalerdia eta partidu hori ere Anoetan jokatu genuen eta hura ere irabazi egin genuen. Orduetik, ligako partiduetan Zubie-



Oihana Aldai eta Sokoa Azkarate, Realeko atezainaren elastiko eta eskularruekin, aste barruan Arrasaten. XABIER URZELAI

"Talde honen jokatzeko moduak zaleak harrapatu ditu"

OIHANA ALDAI ETA SOKOA AZKARATE REALEKO ATEZAINA ETA ATEZAIN OHIA **FUTBOLA** Arrasatekoak sei urte egin zituen Realeko atea zaintzen; Aretxabaletakoa emakumezkoen futbolak aurten egin duen gorakada izugarriaren testigu izan da

tako harmailak bete egin dira. Emakumezkoen futbola ezagutzen ez zuen jendea harrapatuta geratu da talde honek zelan jokatzeko duen ikusita; aurreiritzi asko alde batera utzi dituzte.

"JOKALARIOK GURE ARTEAN EZ DUGU SOLDATEN GAINEAN BERBA EGITEN"

OIHANA ALDAI

Oihana, aukeratu azken aste honetan bizi izandakotik momentu bat.

O.A.: Partidu amaieran aitarekin besarkatu nintzen momentua. Pentsatzearekin bakarrik hunkitu egiten naiz.

Erregina Kopa irabazi duzue, baina ez da talde gipuzkoar batek garai hori irabazten duen lehenengo aldia.

S.A.: Ez, Añorgak eta Oiartzunek elkarren artean bost kopa ekarri dituzte Gipuzkoara.

O.A.: Gainera, talde horiek liga txapeladun ere izan dira lehena-

go, oso talde indartsuak zituztelako, eta klub handiek oraindik ez zutelako emakumezkoen futbolagatik apustu sendorik egin. Aurten izan da emakumezkoen futbolaren gorakada.

"GURE SASOIAN, ETXEKO DERBIETAN EZ ZEN HORRENBESTE JENDE BATZEN"

SOKOA AZKARATE

Reala eta Alaves Mojategin, 28an

Euskal Herriko futbol talderik onenak batu dira 2019ko IX. Euskal Herria Kopa honetan: Gipuzkoatik, Real Sociedad, Oiartzun, Añorga eta Eibar; Bizkaitik, Athletic Club, San Inazio eta Bizkerre; Arabatik, Alaves; Nafarroa Garaitik, Mulier eta Berriozar; eta Lapurditik, Baionako Aviron eta Angeluko Genets. Eta, finalerdietara Reala, Alaves, Athletic eta Eibar iritsi dira. Hala, Erregina Kopa irabazi berri duen Reala eta Alaves bertatik bertara ikusi ahal izango dituzte zaleek maiatzaren 28an, martitzena (19:30, Mojategi); Mondrako bazkideendako sarrera doanekoa izango da; gainontzekoendako, 7 eurokoa.

Sokoa, zuri berandu iritsi zaizu hau guztia, baina zuek egindako lanaren emaitza ere bada.

S.A.: Imajinatzen dut baietz, eta oraingoen borrorak balioko du etorkizunean etorriko direnendako. Badira bospasei urte futbola utzi nuela, eta gure sasoiaren hasi ginen lehenengo kontratu profesionalak sinatzen. Gogoan dut ze ilusio egin zigun Realeko kamisetan atzealdean gure izeak lehenengo jarri zituztenean. Gauza txikiak dira, tontokeriak, baina denak batuta bagoaz aurrera.

O.A.: Aurten Emakumezkoen Munduko Txapelketa Frantzian jokatu dute eta Espainia sailkatuta dago. Txapelketan selekzioak lan ona egiten badu seguru beste bultzada bat ekarriko duela emakumezkoen futbolera, ez dut horren zalan-tzarik.

Hala ere, berdegunean lortutakotik harago, emakumezkoen profesionalismora bidean aurrerapauso bat emateko aprobeztatu beharko litzateke momentu hau, edo?

O.A.: Duda barik, aukera galanta galduko genuke bestela. **Noren teilatuan dago baloia? Klubak, futbol federazioa...**



Oihana Aldai koparekin Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE



Nahikari Garcia zaleei bostekoa ematen. IMANOL SORIANO

O.A.: Guztien gainean, azken batean. Reala azken urteotan badabil urratsak ematen, baina gehiago eman beharko genituzke. Futbolario hitzarmen kolektiboa ere geldi dago...

Sokoa, zuen sasoiaren ez zineten futboletik bizi.

S.A.: Ez, ni ingeniaria naiz eta lanean erraztasunak ematen bazizkidaten ere, 08:00etatik 17:00etara lanera joaten nintzen. Ondoren taxia hartu eta Zubietara joaten nintzen. Baina, entrenatzaile eta teknikariak ere ez ziren futbolera %100 dedikatzen, horrenbestez, esijentzia maila beste bat zen, eurek ere beste ogibide bat zeukatelako. **Oihana, zuek gehienok semiprofesionalak zarete, baina gutxi daude futboletik soldata duin bat eskuratzaren dutenak.**

O.A.: Jokalariok gure artean ez dugu soldaten eta halako kontuen gainean berba egiten, baina bai, imajinatzen dut gutxi batzuk daudela %100 futboletik bizi direnak, gehienak ikasleak direlako, edo beste lanpostu bat dutelako. Ni, esaterako, erizaina naiz. Ekainetik abendura arte lanean jardun dut baina orain ez nago lanean; ez da erraza

erizaintza eta eliteko futbola bateratzera.

Oraingo astea, esaterako, zoratzekoa izan da zuendako. Harrerak, omenaldiak, entrenamendu saioak...

O.A.: Bai, lanean dagoenarendako ezinezkoa dena iristea. **Esanguratsua da bailarako klubak ere emakumezkoen futbolaren alde egiten dabiltzan apustua.**

S.A.: Ezinbestekoa da. Duela 20 urte Mondran neska koadrila bat genbiltzan futbolearen baina oso talde gutxi zeuden inguruan. Harrobia lantzea ezinbestekoa da.

O.A.: Eta oso-oso garrantzitsua da gaur egungo neska gazteek futbolearen emakumezko erreferenteak izatea. Guk ez genuen halakorik, baina oraingoek bai. **Oihana, maiatzaren 28an Mojategin jokatuko duzue Euskal Herria Kopako finalerdia.**

O.A.: Partidu berezia izango da niretako. Nire lehenengo ostiakadak Aretxabaletan, Kurtzebarri eskolan eman nituen, eta ondoren Arizmendira joan nintzen futbolearen jokatzerara. Baina, gero hiru urte egin nituen Mondran, eta, niretako, etxeko taldea ere bada. Gainera, Mojategi oso gustuko dudana futbol zelaia da.

Azken esprinta, liga modurik txukunenean amaitzeko

FUTBOLA Mondra da etxean jokatuko duen bakarra; laugarren sailkatzeko aukera dute zuri-moreek

X.U. ARRASATE

Ohorezko Erregionalean liga amaitzeko bi jardunaldi geratzen dira, eta jokoan dauden sei puntuek balio dezakete aurtengo denboraldian egindako lana txukuntzeko.

Mondra da sei puntu horiei zuku gehien atera diezaikeena, gauzak ondo egiten badituzte oraindik laugarren postuan amaitu dezakete-eta ikasturtea. Postu horrek ez du aparteko saririk, baina liga zapo gozorekin amaitzea ez da lorpen makala.

Amaikak Bat-en bisita

Arrasateko taldeak, hain zuzen, laugarren dagoen Amaikak Bat-en bisita izango du bihar, zapatua (16:30), eta Mojategira gerturatzaren diren artean, klub arrasatearrak datorren urterako abonua bat zozketatuko du.



Aranbarri, gola ospatzen. GOIENA

Bergarak ere sailkapeneko erdialdean dagoen kontrarioa izango du, Beti Gazteren zelaian jokatuko du-eta domekan (17:00). Aretxabaletak, azkenik, bigarren postuan dagoen Anaitasunaren zelaian jokatuko du zapatuan (17:00).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Mondra-Amaikak Bat

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Beti Gazte-Bergara

Domeka. 17:00. Lesaka.

Anaitasuna-Aretxabale.

Zapatua. 17:00. Txeroloia.

ERREGIONALA, KOPA

Aloña Mendi-Elgoibar

Zapatua. 16:30. Azkoaga.

Bergara-Eibartarrak

Zapatua. 16:00. Ipintza.

Arizmendi

(Atsedena).

KADETEAK, IGOERA F.

Allerru-Arrasate A

Zapatua. 12:30. Lezo.

Sanse-Aloña Mendi

Zapatua. 12:30. Donostia.

Lengok.-Aretxabaleta

Zapatua. 12:00. Donostia.

EMAKUMEZKOAK GORE.

Hernani-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Hernani.

EMAKUM. KADET KOPA

Leintz Ariz.-Bergara

Zapatua. 10:00. Ibarra.

Goierri-Aloña Mendi

Zapatua. 10:30. Altamira.

ESKUBALOA

GIPIZKOAKO TXAP. IGO

Soraluce BKE-Legazpi

Zapatua. 18:00. Labegara.

SENIORRAK BIG. MAILA

Bergara-Hondarribia

Zapatua. 13:00. Labegara.

EMAKUMEZKOEN KOPA

Aloña Mendi-Ordizia

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIZONEZKOEN KOPA

Ford Mugarri Arrasate

(Atsedena).

Fagor Industrial-Elgoi.

Zapatua. 17:45. Zubikoa.

KADETEAK NESKAK

Aloña Mendi-Elgoibar

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GAZTEAK, NESKAK

Athlon-Usurbil

Zapatua. 17:45. Zubikoa.

PILOTA

HERRI ARTEKO TXAP.

Altzo-Oñati

Zapatua. 17:00. Altzo.

FEDERATU MAILA

Oñatin:

Gaur, 19:00etan hasita, hiru norgehiagoka. Zapatua, 16:30ean, lau norgehiagoka.

Aretxabaleta:

Gaur, 19:30ean hasita, bi norgehiagoka.

Bergara:

Gaur, 19:30ean hasita, bi norgehiagoka.

AUTOMOBILISMOA

SLALOM TXAPELKETA

Zapatua. 15:00. Estazio zaharrean.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

ART-Pradoviejo

Zapatua. 17:00. Logroño

AUTOMOBILISMOA

Eslalom erakustaldia Eskoriatzan bihar

Zapatuan egingo dute, 15:00etan hasita, Eskoriatzako 2. eslalom. Iaz egin zuten lehenengo edizioa, eta kono artean erakustaldi ederreztaratu ziren ikusleek -txapelketak ez du balio ofizialik-. Euskal Herri osotik etortitako pilotuak egongo dira bihar estazio zaharrean, eta tartean egongo dira Debagoieneko hainbat.

ERRUGBIA Jaurlaritzak lau puntuak itzuli dizkio ARTri

ARTk mailari eusteko promozioa jokatuko du Logroñoko Pradoviejoren kontra. Bi partidu izango dira, eta joaneko zapatuan jokatuko dute (17:00, Logroño). Jaurlaritzako Kirol Justiziako Batzordeak arrazoia eman dio talde arrasatearrari, eta duela hilabete batzuk Federazioak kendutako puntuak itzuli dizkiote.

SASKIBALOA Ointxe!-ko kadeteek Valentzian dute hitzordua

Ointxe!-ko neskek domekan, hilak 19, hasiko dute, Valentzian, Kluben Arteko Espainiako Txapelketa. Lehen fasean lau talde daude eta multzo bakoitzeko hiru onenak sailkatuko dira final-zortzirenetarako. Domekan 19:30ean Valencia Basketen kontra jokatuko dute, astelehenean Femeni Maresmeren kontra eta martitzenean Arangurenen kontra.

ESKALADA Mikel Linazisoro, kopa txapeldun

Espainiako Kopako hirugarren eta azken proba jokatuko dute zapatuan Plasenciako (Extremadura) Cereza Wall horman. Azken proba jokatuko eta gero, bi eskaldun izan dira onenak: Itziar Zabala eta Mikel Linazisoro. Hala, aurreko bi hitzorduetan irabazi eta gero, Bergarakoak ez zuten azken jardunaldian parte hartzeko beharrik izan.

Artxiboetan gordetakoak, liburuetan eskuragarri

Mendeetan zehar Arantzazuri kantatu dioten literatura batzen duen bilduma argitaratu du Arantzazu argitaletxeak –baladak, koplak zaharrak, olerkiak, bertsoak eta abestien testuak–; hamar liburutan banatu dute sorta, eta 1.000 literatur pieza jaso dituzte

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Arantzazu dut kantagai (ADK) da hamar liburuen bildumaren izenburu bateratzailea; sortaren egile Paulo Agirrebaltzategiren esanetan, Bitoriano Gandiagaren olerki baten hasieratik hartu dute: "Aproposa iruditu zitzaigun; izan ere, kantagai dira: Arantzazuko historia –edo kondaira–, Andre Maria, erromesak eta jendea, bertako bizitza eta fraideak, Arantzazuko lurra eta bazterrak, Arantzazuko artea...".

Hamazortzi urtetako lana

Paulo Agirrebaltzategik bildu eta landu du ADK liburu sorta; artxiboetan, aldizkari zaharretan eta liburuetan aurkitu ditu literatura pieza gehienak. "Hamazortzi urtetako lana izan da. ordutan, milaka askotxo. Hasteko, testuak bilatu eta bildu ondoren, jatorrizko grafian eta forman datu-basean grabatu nituen. Ondoren, testu askoren jatorria eta ibilbidea aztertu nuen horien arteko loturak argituz horrela. Hirugarren urratsa testuak eremutan sailkatzea eta liburukitan banatzea eta ordenatzea izan zen; eta bukatzeko, maketatu eta inprentarako egokitu.

Literaturaren ikuspegitik, balio ezberdineko testuak dau-



Paulo Agirrebaltzategi, ADK liburu bilduma berriarekin. A. A.

dela dio Agirrebaltzategik: "Oso onak, eskasagoak, eta txarrak ere badaude. Arantzazu literatura gune garrantzitsua izan da batez ere 1850etik hona, eta bereziki euskaraz: (kanta)gai bezala batetik, baina baita literatura sortzaile eta sorgune, literatura sustatzaile –egin diren lehiaketak horren erakusle–, eta baita zabaltzaile ere –aldizkaria eta argitaletxea horien adibide–".

Literatura-zaleentzako proposa

Editorearen azalpen tematiko, historiko eta bibliografiko asko

dute liburuek; horregatik, euskal literaturaren zaleei gomendatu die editoreak liburu-sorta: "Hainbat olerki eta bertso sorta eder aurkituko dituzte, orain arte eskura eduki ez dutena; eta nola ez, orokorrean, Arantzazu-zaleek ere gozatzeko orrialde asko dituzte".

Arantzazun eta liburu dendetan

Bilduma osorik edo aleka erosteko aukera dagoela gaineratu du: "Tamainaren araberako prezioa dute liburuek; sorta osoa 90 eurotan dago eskuragarri".

Bildumako liburuak

- **Arantzazu: bost mendetako poemagintza** Arantzazuko literaturaren historia jasotzen du.
- **Arantzazuko baladak eta koplak zaharrak** Orain dela urte batzuk argitaratu zuten liburuaren osagarria da.
- **Arantzazuko kondaira bertsoan** Hamar bertso sorta luzerekin osatutako liburu da.
- **Arantzazu bertso berrian** Bertsolari famatuek eta apalagoek Arantzazuri kantatutako bertso sorta.
- **Arantzazuko olerkiak eta olerkariak** Arantzazu gaitzat duten euskarazko poesiak.
- **Arantzazuko kanta berriak** Askotariko abestien testuak.
- **Bitoriano Gandiaga: Arantzazu dut kantagai** Gandiagaren olerkien antologia.
- **Arantzazu cantado por sus poetas** Arantzazu gaitzat duten gaztelerazko poesiak.
- **Ahoz aho: Arantzazuko kanta zaharrak** Salbatore Mitxelenak Arantzazuko erromantzei buruz idatziz zuten liburuaren edizio kritikoa.
- **Arantzazuko artxiboko bertso paperak** Askotariko gaiei buruz idatzitakoak jasotzen ditu.

Banatu dituzte literatura lehiaketako sariak

32. aldia izan da, eta, iazkoarekin alderatuz, bikoiztu egin da parte hartzaileen kopurua

A. A. ARRASATE

Kulturateko areto nagusian banatu zituzten atzo, eguena, AED elkarteak ikastetxeen laguntzarekin antolatzen duen Arrasate Literatur Lehiaketako sariak. Urteroko narrazio, bertso-paper eta poesiaz gainera, mikro-ipuina, ilustrazioak eta komikiak ere bidaltzeko aukera eskaini zuten; eta jasotako uzta –187 lan– da ondo hartuak izan diren erakusle.

Honako hauek dira narrazio lehiaketako irabazle nagusiak: LHko 5. eta 6. mailetan: Ane Sanchez, eta DBHko 1-2: Lide Ezpeleta. Ilustrazioetan, LH5. eta 6. mailetan: Garazi Cobos, eta DBHko 1-2: Naiara Horno. Bertso-paperetan: LHko 5. eta 6. mailetan, Nerea Dulugea eta Laia Bollon; DBHko 1-2: Maialen Altuna. Poesia atalean, DBHko 3. eta 4. mailetan lehenengo saria hutsik geratu da eta Batxilergoko lehenengo saria Oihana Aranak irabazi du.

Mikro-ipuinetan irabazle nagusiak honako hauek: DBHko 3. eta 4. mailetan: Maddi Altzelai, eta Batxilergoan, Ane Arrizabalaga; eta komikien atal berrian, DBHko 3. eta 4. mailan: Izar Mendiola eta Batxilergoan, Olatz Zuazubiskar.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

GABI DE LA MAZA EUSKAL KARAOKE SORTZAILEA,
JON GOMEZEK ELKARRIZKETATUTA

MAIATZAREN 17AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

JOSEBE ITURRIOZ TRANSFEMINISTA,

JUAN KRUIZ LAKASTAK ELKARRIZKETATUTA

MAIATZAREN 22AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Siriako musikarientzako tresnak biltzen ari dira

Debagoieneko musika eskoletan batuko dituzte musika tresnak, udako oporrak hartu bitartean –ondo daudenak zein apurtutakoak– eta baita osagarriak ere –sokak eta tutuak–, eta Mugarik Gabeko Musikariak elkartearen bidez Siriara eramango dituzte

A. Aranburuzabala ARRASATE

